

2

0



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



memoria


2

1



DK

memoria



5

Donostia Kultura
Balantzea

13

Egitura eta balantze
ekonomikoa

17

Komunikazioa
eta irudia

23

Donostia Kultura
Bazkideak

29

San Telmo Museoa

49

Kultur Etxeak

- 49 Kultur Ekintza
- 59 Aiete
- 67 Casares-Tomasene /
Larratxo
- 79 Egia
- 89 Ernest Lluch
- 97 Intxaurrondo
- 107 Larrotxene
- 113 Loiola
- 119 Lugaritz
- 127 Okendo

135

Liburutegiak

153

Programazioa

- 153 Artes Eszenikoak
- 165 Musika
- 169 Zinema eta
Ikus-entzunezkoak

173

Festak

189

Jaialdiak

- 189 Donostiako Jazzaldia
- 197 Dkluba
- 201 Fantasiatzko eta
Beldurrezko Zinemaren
Astea
- 205 Giza Eskubideen Zinemaldia
- 209 dFeria
- 217 Poltsiko Antzerkia
- 221 Literaktum

225

Ekoizpen
unitatea



San Telmo Museoa, Carlos I.aren erretratua



Victoria Eugenia Antzokia, Kalakan © Esti Veintemillas

2

0

DK


Donostia
Kultura
Balantzea

2

1

Donostia Kultura Balantzea

DONOSTIA KULTURA
2021. urteaz baliatu da
bere kultur komunitatea
ezagutzeko eta indartzeko





Victoria Eugenia Antzokia, La Pastorale © Olivier Houeix

*103.776 sarrera saldu dira ikuskizunetarako, eta bere zentroetan milioitik gora lagun edo bisitari izan direlarik, **Donostia Kulturak oso emaitza onez pasatu du pandemiaren bigarren urtealdia.**

*Donostia Kulturak egokitzeko gaitasuna frogatu du, eta bere erresilientzia ere bai, **pandemiak markaturiko bigarren urtealdian.** Hona hemen hartutako neurri batzuk: Eserlekuak aurrez esleitzea aretoetan, ordutegi aurreratuak, eta kanpoko espazioak baliatzea kulturarako... 2021ean hartutako neurri batzuk besterik ez dira horiek, eta sendotu egingo ditugu etorkizunera begira.

*Gainera, programazioa xeheki baloratzeari ekin zaio, kultur “normaltasun berrirako” itzulera bidean ateratako lehen ondorioei erantzunez: **gazte gehiago etorri dira, goxo hartu beharra dago bertako sortzaileak, 0 kilometroko programazioa, pertsona nagusiek eragozpen gehiago jarri dituzte emanaldietara etortzeko...**

“Kultura: osasunez gozatu”

2021a aurreko urtea amaitu bezala hasi zen, kultur eremuan murrizpenak zituela -% 50eko edukiera, mugikortasun gutxiago- eta zenbait jai ospatu gabe, hala nola **erregeen desfilea, danborradak edo inauteriak**. Eta espero zenaren kontra, pandemiaren seigarren olatuarekin amaitu zen, aretoen edukiera % 60ra murriztuta.

Tartean, urte zaila, ustekabeak etengabe (jarduerak bertan behera geratzea, ixte perimetralak, programazio-aldaketak, sarrerak itzultzea, eta abar), eta, hala ere, osasun-babeserako neurriak, **Kultura: osasunez gozatu** goiburupean, guztiz eraginkorrak agertu zirelarik. Eta, batez ere, jendeak harrera benetan beroa egin zion Donostia Kulturak urtean egin duen kultur eskaintza zabalari.



STM, Elkano © Oskar Moreno

Azpimarratzekoak sarrera-salmentaren datu onak urtearen lehen sei hilabeteetan, **sold out ugari** izan baitziren, bai eta Jazzaldia 2021en programazioak izandako erantzun bikaina ere, edukieraren % 90 saldu baitzen. Orobat, aipagarriak dira Donostia Kulturak antolatutako ikastaroetan parte hartzearen datuak. **7.000 matrikula** baino gehiagorekin, donostiarrek agerian utzi zuten kultura aurrez aurrekoen bidez eta parte hartuz berreskuratzeko zuten gogoia. Elkanori eskainitako erakusketa, udan, urteko berri onetako bat izan zen, 25.000 bisitaritik gora izan baitzituen. Datu bereziki ona da hori museoen sailean, egoerak gogor erasan baitio sail horri. Ez, ordea, literaturaren sailari (irakurketa eta liburuen kontsumoa areagotu egin da pandemian), eta horrek bi berri on ekarri dizkio Donostia Kulturari: batetik, hiritarren presentzia Donostiako Liburutegi Sarean, 533.000 erabiltzaile inguru izan baitira eta 399.983 ale mailegatu, hots, pandemia aurreko datuen parekoak. Bestetik, Literaktum literatur jaialdiaren arrakasta, 3.500 herritar izan baitziren bertan, frogatuz Donostiako kultur hitzordu hori gorantz doala.

Jaialdiak, festak eta beste kultur gertaera batzuk

DFeria izan zen hirian egin zen pisuzko lehen gertaera (hain zuzen ere, aurreko urtean itxialdiaren bezperako egunean amaitu zen programazioa), eta 2021ean egin beharreko lehen hitzordu profesionala zen Arte Eszenikoentzat. Erantzuna berehalakoa izan zen, hainbestearaino non kanpoan utzi behar izan genituen parte hartzeko asmoa zuten zenbait profesional. 4.300 ikus-entzule izan genituen.

2021eko apirilean, **Giza Eskubideen Zinemaldiaren** 18. edizioa egin zen, aurreko urtean bertan behera utzi behar izan zena pandemia zela-eta. 2021ean, **Puy Oria** eta **Montxo Armendariz** zinegileek jaso zuten ohorezko saria. Euskal produkzioen estreinaldiek leku nabarmena izan zuten: **Aita Mari** lana, **Apaiz kartzela** eta memoria historikoa, eta **Vidas menoresen** begirada ausarta. Oso hurbileko sentitu genituen, halaber, **Traidoresen** historiak. Film laburren lehiaketa eta gazteen parte-hartzea ere bere onera etorri ziren urte horretan.


56. **Jazzaldia** oso arrakastatsua gertatu zen. Jazz zaleek ezin hobeto erantzun zuten, gogo biziz eta agertoki guztietarako sarrerak agortuz, betiere erantzukizun handiz jokatu eta osasun- eta segurtasun-neurri guztiak betez. Sarrera guztiak saldu ziren ordainbidezko 27 kontzertuetatik 15etan, eta salmenten ehunekoa, guztira, % 90era iritsi zen. Nabarmentzekoa hain maila handiko artistak etorri izana. Besteak beste, **Dave Douglas eta Franco D'Andrea, Cécile McLorin Salvant, Chucho Valdés, Marco Mezquida, José James, Buika, Giovanni Guidi** edota **Silvia Pérez Cruz**.

Beldurrezko Astearen 32. edizioa egin genuen, zeinak animoa eta baikortasuna ekarri baitzien ikus-entzuleei zein sortzaileei. Edukiera oso-osoari eta filmen programazio zabalagoari esker, Astea gogoangarria izan zen berriro. Estatuko estreinaldiak, multinazionalen filmak, sektoreko gonbidatuen kopuru handia (zinemaldietakoak, ekoizleak, zuzendariak...), argitalpen eta erakusketak: horiexek eta beste askok osatu zuten zazpi egunez menua.

Dklubak Donostiako zenbait aretotako 63 kontzerturen antolakuntzan hartu zuen parte 2021ean, eta hartara lagundu egin zuen Donostiako zirkuitu pribatuak bizirik iraun zezan. Horri esker, 4.500 ikus-entzule izan ziren kontzertuotan. Egoera hain ohiz kanpoko izanik, zuzeneko musikaren zaleek suharki erantzun zuten berriro, nahiz eta edukierak mugatuak izan eta eserita egon behar. Zirkuituak programazio eklektikoa hartu zuen, eta han izan genituen, besteak beste, **Rüdiger, Ofunkillo, Manolo, Kabezabolo, Los Estanques, Willis Drummond, Elena Setién...**



La cresta de la ola, La Estampida © Gorka Bravo



Kultur etxeek **Poltziko Antzerkiaren 30.** edizioaz egin zuten balantzea oso ona izan zen antolakuntzari eta herritarren erantzunari dagokienez. 2021ean, 4.000 ikus-entzule inguru hurbildu ziren antzerkiak, umoreaz, txotxongiloez, musikaz eta kabaretaz gozatzerako, irailaren 24a eta urriaren 10a artean.

Literaktum, Donostiako literatur jaialdia, azaroaren 8tik 21era egin zen, hiriko zenbait kokagunetan, eta berriz ere jende ugari etorri zen antolatutako ekitaldietara. Guztira 3.500 herritarrek hartu zuten parte, era batera edo bestera, programazioan. Literatura eta oroimena izan zen ardatz nagusia. Literaktumen izan ziren, besteak beste, **Luis Landero, Leila Slimani, Borja Ortíz de Gondra, David Grossman, Marta Barone, Isabela Figueiredo, Jordi Amat** edo **Edurne Portela**.

Festak programari dagokionez, berriz, zuzen-zuzenean jasan zituen pandemia zela-eta egin ziren murrizpenak: bertan behera geratu ziren **Erregeen Desfilea, Danborrada, Inauteriak** eta **Aste Nagusia**. Hala eta guztiz ere, **Abuztua Donostian** programa aurrera atera ahal izan zen, hots, formatu txikiko 163 jarduerara guztira Donostian abuztuan, eta irailean berriro izan genituen **Estropadak**, edukierak mugatuta.

Hasiera batean baikor begiratzen zitzaien udari, baina egoera ez zen hobetu nahi adina, eta ezin izan ziren egin jendetza handiak erakartzen zituzten jaialdiak, hala nola Loiola kaleko **Musikaren Eguna** edo Cristina Eneako **Glad is the Day**. Bestalde, **Amaia Zubiria** artistak irabazi zuen **Adarra Saria**, eta kontzertua eman zuen ekainaren 21ean, Victoria Eugenia Antzokian.



Altza Apain_Sortwo_Pablo Romano

Azpimarratzekoa da, orobat, **Donostia Apainen** bigarren edizioak izandako harrera ona, oraingoan Alzako auzoan, zeinean zenbait sortzailek etheen aurrealde eta hormetan zertu baitzuten beren artea, bai eta oso emaitza erakargarriak lortu ere auzotarren onerako.

San Telmo Museoari dagokionez, nabarmentzekoa **Baginen Bagara** erakusketa mugarri gertatu dela, gure inguruko emakume artistez, iraganeko zein garaikideez, egindako ikerkuntza-lana eta aitortzagatik. Urrats erabakigarria izan da Euskal Herriko artearen historia gaurko begiradaz berridazteko. Aintzat hartzen dugu, halaber, Museoa egin diren jardueren % 80 aurrez aurrekoak eta online izatea, horrek erakusten baitu bizkor erantzun zaiola gisa horretako edukien eskari gero eta handiagoari. Digitalizazio-prozesu horretan, Museoko erakusketa iraunkorrak badu dagoeneko app bat, bisitak atseginagoak eta sakonagoak izan daitezten. 2021ean, berriro ireki zen udan **Urgulleko Hiriaren Museoa**, zenbait hobekuntzarekin eta kanoiak zaharberrituta.

Hilabete hain zail horien ondotik, Donostia Kulturak bere **ondorioak eta ikaskizunak** atera ditu. Esaterako, ordutegietan egoerara egokitzeko egindako aldaketen ondoren, aurrerantzean ordutegi berria ezartzea erabaki da: ikuskizunak 19:30etan izango dira, eta ikastaroak amaitzeko ordua, berriz, 21:00etan ezarri da.



Orobat, jarleku esleituek edota sarrera zenbakituek jarraituko dute hemendik aurrera ere; halaxe izango da etorkizunean, baita zine-emanaldietan ere.

Beste neurri batzuk antolakuntza jasangarriagoa izan dadin: paper gutxiago erabiliko da ohiko komunikazioen euskarrietan, eta aztertu egingo da zer ingurune-neurri har litezkeen festa eta jaialdietan, betiere osasun-egoerak halakoak egiteko bidea ematen badu, noski.

Laburbilduz, 2021 ez da izan urte normala, aurrekoa ere izan ez zen bezala, osasun-krisia dela-eta: kontrastez beteriko urtea, jarduera batzuetan edukiera betetzeak agerian utzi baitu herritarren “kultur gosea”, eta beste batzuetan, berriz, murrizpena eta ziurtasunik eza izan baitira tarteka.

Erakundeak egoera hori baliatu du etengabeko **eralditze eta digitalizazio-prozesua** areagotzeko, lehendik ere horretan ari baitzen. Web berri bat burutu nahi da 2022rako, eta lanean ari gara kultura, irakurri ez ezik, entzun (DK Irratia) eta ikusi (Larrotxene Bideo, eta abar) ere egin dadin. Alde horretatik, nabarmentzekoa da **Ispilu Beltza** irrati-programak izan duen arrakasta, *podcast* formatuan,



112.832 bazkide Donostia Kultura

erreferente bihurtu baita oso denbora laburrean gure inguruko kultur komunikazioari dagokionez. Gauza bera Olentzero eta Erregeen presentzia digitalaz ere: txikiak online agurtzeaz gainera, dagoeneko birtualki jasotzen dituzte haien gutunak.

Azkenik, esan behar dugu dagoeneko **112.832 bazkide dituela Donostia Kulturak** (2020an baino 2.766 gehiago), eta horrek Gipuzkoako klubik handiena bihurtzen duela erakunde hau. Horretarako, 5.498.669 bisita izan ditu webean, eta 168.825 jarraitzaile ditu kudeatzen dituen sare sozialetan.

Alegia, Donostia Kultura indarturik sartu da 2022.urtean, bere ahal osoan, gure ingurunearen kultur lokomotora bihurturik

2

0

DK

Egitura
eta balantze
ekonomikoa

2

1

Egitura eta balantze ekonomikoa

Administrazio kontseilua

Lehendakaria
Eneko Goia Laso

Lehendakariordea
Jon Insausti Maisterrena

Kontseilariak

EAJ-PNV

Nekane Mendarte / Jaione Hervás

EH BILDU

Garbiñe Alkiza / Zigor Etxeburua

PSE

Duñike Agirrezabalaga / Cristina Lagé

PP

Borja Corominas

PODEMOS

Aitzole Araneta

Zuzendaritza taldea

Zuzendari gerentea:

Jaime Otamendi

Zuzendariaren teknikari laguntzailea:

Imanol Galdos

Administrazioa eta Baliabideak: **Rebeka Gallastegi**

Ekonomia eta Fintzantzak: **David Feijo**

Liburutegiak: **Arantza Urkia**

Kultur Etxeak: **Jon Aizpurua**

Zinema: **Josemi Beltrán**

Komunikazioa eta Irudia: **Jaione Askasibar**

Festak: **María Jesús Torres**

San Telmo Museoa: **Susana Soto**

Musika: **Miguel Martín**

Ekoizpena: **José Ignacio Abanda**

Antzerkia eta Dantza: **Norka Chiapusso**

2021ko Aurrekontua



Gastuak guztira:

25.928.920€



Diru-sarrerak guztira:

3.728.920€



Udalaren diru-ekarpena:

22.200.000€

2021. urtean, urrats garrantzitsuak egin ziren **Donostia Kulturak** nazioartean duen kokapena sendotzeko bidean. Inflexio-puntua markatu zuen mugarria, ezbairik gabe, diplomazia publikoari eta diplomazia kulturalari buruz antolatutako nazioarteko ikastaroa izan zen, uztailean, **Euskal Herriko Unibertsitatearen Nazioarteko Ikastaroen** barruan. Ikastaroak baitezpadako arrakasta izan zuen, mundu osoko adituak erakarri baitzituen, tartean mundu mailan ezagun-ezagunak zirenak, eta hogeita lau herrialdeetatik etorritako ehun lagunetik gora bildu zituen, oso soslai eta jatorri desberdinetakoak denak ere. Komunikabide nagusien interesa erakarri zuen ikastaroak, eta eragin nabarmena izan zuen sare sozialetan.

Donostia Kulturak ikastaroa antolatzen eta kudeatzen erakutsitako lidergoak indartu egin zuen nazioartean duen lekua. Testuinguru horretan, uztaileko ikastaroaren ondoren, beste zenbait jarduera egiteko asmoa dago, etorkizunari begira erabakigarria izango den bidea sendotzeko xedez. Abenduan, gastrodiplomaziari buruzko lehen ekitaldia egin zen, eta arlo horretako aditurik behinenek hartu zuten parte. Berriz ere, ekitaldiak sekulako erantzuna jaso zuen, ehun lagunetik gora izan baitziren parte-hartzaileak, eta gainditu egin baitzen uztaileko ikastaroan ordezkaritza izan zuten herrialdeen kopurua. Egun, inoiz baino gehiago, mundu guztiko kultur erakundeek sinergia berriak eta nazioarteko sareak lortu nahi dituzte beren ekinbide-eremua zabaltzeko, mundu gero eta konektatuago honetan.

Alde horretatik, **Donostia Kulturaren** nazioarteko erreferentzialtasuna gero eta handiagoa da egunetik egunera. Gero eta maizago jasotzen ditugu gonbidapenak mundu guztiko erakunde eta instituzioetatik, nazioarteko proiektuetan aholkularitza, lankidetzak eta parte-hartzea eskatuz. Nabarmentzekoak, alde horretatik, instituzio akademikoek egindako eskari ugariak, erreferentziazko eredutzat ikusten baitute **Donostia Kultura** kultur politiken eremuan. Hogeita hamar urtetik gorako esperientzia ezaugarri eztabaidaezina da arlo akademikoan ari direnentzat. Bestalde, akademiaren eta **Donostia Kultura** bezalako erakunde baten arteko lankidetzak, kultur politiken praktikara begira, behar-beharrezko bidea sinalatzen du etorkizunari buruz ditugun desafio izugarriei aurre egiteko.

DONOSTIA KULTURAREN ZEHAR-PLANAK:

Euskara Erabiltzeko Plana

Euskara Planaren ekintzekin jarraitu dugu. 2021an bereziki aipatu daiteke Euskara Plana aurrera eramateko daukagun egituraren hausnarketa egin dugula eta egitura berri eta indartua lortu dugula.

Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasun Plana

2021ean gogor lan egin dugu Donostia Kulturaren Berdintasun Plan berria diseinatzen eta lortu dugu. Dagoeneko prest daukagu hurrengo urteetan oinarri izango dugun Berdintasun Plana.

2

0

DK

Komunikazioa
eta irudia


2

1

BILINTXEN MENDA

BERTSO HAMABOSTALDIA

2021eko maiatzaren 2tik 14ra



donostiakultura.eus/sarrerak



Victoria Eugenia Antzokia
T. 943 48 18 18
Antzoki Zaharra
T. 943 48 12 70

Imanol Larzabal (Lugaritz)
T. 943 310 780
Okendo K.E.
T. 943 29 06 72



DONOSTIA
SAN SEBASTIAN
Euskara



donostia
kultura

Komunikazioa eta irudia

Normaltasun berria sartu ginen urtearen bigarren seihilekoan, bazirudien gauzak bere onera zetozela kultur arloan (halaxe izan da hein handi batean), eta, ondorioz, horri erantzun zion 2021ean hartutako komunikazio- eta marketing-estrategiak. Donostia Kulturak ez zuen amore eman bide berriak irekitzeko ahaleginean: komunikazio- eta zabalkunde-bide berriak, batetik, eta ikus-entzule mota desberdinekiko harremanenak, bestetik.


2020an **DK ON!** sortua genuen, Donostia Kulturaren eduki digitalen plataforma online edukientzat, zeina hazi eta hazi egin baita, bai eta sendotu ere aurrera begira. Hona hemen lagin batzuk: San Telmo Museoen eskaintzaren % 80tik gora bi bideetatik egiten da dagoeneko, aurrez aurre eta *streaming* bidez; eta Olentzero eta Erregeek online jaso dituzte gutunak bigarren urtez segidan. Deskonfinamenduak eta “normaltasun berria” ezartzeak, gainera, protokolo jakin batzuk sortzea ekarri zuten baita prentsaurrekoetarako ere; ez zen liburuxkarik banatu, artisten promozioa bideo bidez egin zen... Komunikatzeko modu berriak, aurrerakoan ere segida izango dutenak.



19

Ezin ahaztu gorabehera guztien komunikazioak eginarazi digun egokitze-ahalegina ere, urte batean non jarduera asko bertan behera geratu baitziren, edukiera-aldaketak, sarrera-itzultzeak, atzerapenak eta abar izan baitziren. Izan ere, 12.350 sarrera itzuli zizkiguten (saldutako 116.126 sarreren % 11) 2021. urtean, eta edukiera-aldaketek eta itxiera perimetralek eragina izan dute Donostia Kulturak kudeatzen dituen hogeiki kulturetarako sarbideetan.





2021ean, Donostia Kulturak 98 prentsaurreko egin zituen, eta 133 literatur aurkezpen. Hona hemen datu gehiago: 353 iragarki prentsa idatzian, 211 dossier gaikako, 90 newsletter bidaliak, 60 liburuxka edo programa...

2021ean, 2022rako aurreikusitako bi mugarriren oinarriak sortzen jardun dugu, Erakunde honen komunikazio-estrategia markatuko baitute ezberrik gabe. Estrategia horrek, gogora dezagun, esan nahi du ia 20 kultur atal kudeatuko direla DK markaren baitan. Batetik, datorren urtean DK web berria aurkeztuko dugu, herritarrekiko harreman digital berrien ardatz izango dena. Eta bestetik, beste informazio-gune bat inauguratuko da, oraingoan hiriaren erdialdean, bazkideen hurbileko zerbitzua bermatzeko, ikuskizunetara doazen ikus-entzuleen eta ikastaro edo jaietan parte hartzen dutenen hurbilekoa. Alegia, herritarren hurbilekoa, oro har.





DK Online

Kulturan zein jaien arloan eskainitako eskaintza digital zabalaren ondorioz, **Donostia Kulturaren webgunera egindako bisitak % 17,4 emendatu ziren 2021ean: 5.498.669 bisita izan ziren**, 2020an 4.915.191 izan ondoren.

Gainera, **webgunean erregistraturiko bazkideak 29.615** izatera iritsi dira, 2020an baino % 7,8 gehiago. Horiek osatzen dute, **DK agenda online jasotzen duten 36.466 lagunekin** batera, DK-k hurbilen eta ondoen informatua duen populazio-saila.

Sare sozialei dagokienez, **Donostia Kulturak 168.825 jarraitzaile izan zituen guztira sare sozial nagusietan**, % 7,6 gehiago: 77.969 Twitter-eko kontuetan, eta 57.831 Facebook-ekoetan; gainera, 30.703 jarraitzaile Instagram-en, eta 2.322 LinkedIn-en. YouTube-n, berriz, 1.930 dira izena emandakoak, eta 128.551 deskarga egin dira.

DONOSTIA KULTURA IRRATIA, 24 ordu 107.4 FM-en IRRATIA, CASARESKO IZARRA

Donostia Kultura Irratiak bere izaerari eusten dio, kultur eduki handia izanez eta audio euskarrien inguruko prestakuntzaren aldeko apustua eginez. 2021ean, gainera, indartu egin zuen hori, **Ispilu Beltza** programa bultzatuz, Donostiako kultur bizitzaren ispilu fidela. **Oier Aranzabalek** zuzentzen du, gero eta lankide gehiago ditu, eta hilabete gutxi batzuetan inguruko giroa, eragileak eta kultur gertaerak islatzea lortu du, bai eta harrera ona izan ere sektorearen eta entzuleen aldetik.

Hamaika Entzuteko! Irrati Piezen VI. Lehiaketaren sari-banaketan, saritutako lanak jakinarazteaz gainera, zuzenean gozatu ahal izan zen irrati-antzerkiak.

Donostia Kultura Irratiak Casares-Tomasene Kultur Etxetik emititzen du, FM 107.4 sintonian, eta Internet bidez ere bai irrati.donostiakultura.eus helbidean. Webguneak grabaturiko programa guztiak eta DKren podcast ugari eskaintzen ditu.



Larrotxene Bideo

2021ean **Oihua!**ren bigarren edizioa egin zen, bai eta **Bideoaldiaren** hamahirugarrena ere. Prestakuntzari dagokionez, 69 ikaslek hartu dute parte zinean espezializaturiko autore-ikastaroetan. Nabarmentzekoak, halaber, kontakizun digitalen **Medialab** proiektua, zeinak *learning by doing* metodologia erabiltzen baitu, eta aholkularitza zerbitzua, zeinak laguntza teknikorako 275 eskaera jaso baitzituen.

DK Txartela

Lehen mailako komunikazio-balioa izaki, Donostia Kulturako bazkide-kluba **112.832 kide izatera iritsi zen**, aurreko urtean baino 2.766 gehiago, eta pandemia hasieran baino % 5 gehiago. Komunikazioa eta Irudia ataletik kudeatzen da, eta kideen kolektibo horren atsegina eta fidelizazioa ezinbestekoak dira Erakundearentzat.

Alde horretatik, 2021ean txartelaren abantailei utsi zitzairen, hiriko kultur eskaintzarako deskontuak barne, honako eragile hauen eskutik: Zinemadia, Dock of The Bay, Aquarium, BCC Basque Culinary Center, eta abar.

2

0

DK

Donostia
Kultura
Bazkideak

2

1

DK SARRERAK ENTRADAS

EKITALDIAK

JAIALDIAK

GUNEAK

BAZKIDEAK

BAZKIDEAK

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Abantaila ugari:
Deskontuak
Maileguak
Agenda...



ZOKKETAK

⚠ Parte hartzeko bazkide izan behar duzu, webgunean erregistratuta egon eta [saltoa](#) hasi.

IREKITA



IREKITA



DESKONTUAK Sarrera eta ikastaroetan

%10

Informazio gehiago

ABAN

Azala

Abantaila

Zozketa

Wifi do

Buletin

HARR

T, +34 9

dkbaita

SAIO

Jada er

bazkide

Donostia Kultura Bazkideak

DK KLUBA

Donostia Kulturako bazkideak dira erakunde honen altxor handiena: jarraitzaile leialenak, ikus-entzule, kontsumitzaile, ikastaro-egile, irakurle eta parte-hartzaile dira. Eta harreman horrek bere hartan iraun du pandemiaren bi urteotan. Kolektibo horrek eutsi die Donostia Kulturaren programazioari eta zerbitzuei, maila benetan onean eutsi ere, aktiboki erantzunez kultur eskaintzari kultur etxeak berriro ireki eta gero, eta lehen-lehen unetik fidatuz hartu ziren osasun-neurriez. Esker onez jarraitzen dugu lanean, arlo bakoitzean zerbitzu hobea eta abantaila handiagoak eskaintzeko ahaleginean, egunez egun.

Hala, 2021ean ere, % 10eko deskontuaren abantailari eutsi diogu Donostia Kulturak antolatzen dituen ikuskizun, ikastaro, argitalpen eta abarretan. Txartelari esker, deskontu hori egiten da, halaber, **Basque Culinary Center & LABe Tabakaleran, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian, Musika Hamabostaldian, Chillida Lekun, Jazzaldian, Aquariumean, San Telmo Museoan, Dock of The Bay-n, Udako Ikastaroetan**, eta abarretan.

Bestalde, **San Telmo Museoak** emendatu egiten ditu abantailok STM&DK txartel mistoarekin, esandakoei beste hauek gehitzen baitizkie: Museorako doako sarrera, inaugurazioetarako gonbitak, zozketak eta deskontuak. Horra zenbait arrazoi Donostiako Museo hori "babesteko", orain inoiz baino gehiago.



DK

Bazkideak

112.832

Buletinak	Izena emandakoak
Agenda	34.466
Webgunean erregistratuak	29.615
Zinema	14.890
Antzerkia	14.000
Dantza	7.745
Musika	15.147
Artea	8.348
Literatura	8.382
Festak	7.805
Haurrak	4.318



DK txartela, zenbaki ezin esanguratsuagoak

Urtearen hondarrean, **112.832 ziren DK txartela zuten Donostia Kulturako bazkideak** (2020an baino 2.766 bazkide gehiago). Horietatik, % 77 donostiarrak dira, ia % 60 emakumeak, eta Amara da bazkide gehien dituen auzoa, % 19, eta ondoren datoz Gros (% 13), Antigua-Ibaeta (% 11) eta Intxaurren (% 11).


Txartel horren bidez, helburu unibertsal bat bete nahi da: herritar guztiei Kulturara sartzeko bidea erraztea. Horren adibiderik onena udal liburutegiak dira, oso erabilera handia baitu txartelak liburu-mailegurako identifikatzean, eta abar. Horrez gainera, ikus-entzuleria jakin batzuk fidelizatu nahi dira arte-programari dagokionez. Beste horrenbeste esan daiteke **San Telmo Museoaz eta Victoria Eugenia Antzokiaz, Antzoki Zaharraz, Imanol Larzabal aretoaz, Intxaurren, Larratxoaz eta Gazteszenaz**: DK txartela dute horiek guztiek tresnarik onena txarteldunei informazio hautatua, deskontuak eta zozketak eskaintzeko.

Abantaila guztiak ikusgai daude bazkideen online atalean, non **29.479 lagun baitaude erregistratuta**.


Hona hemen Donostia Kulturako bazkideen mapa, gaur egun:

Donostia Kultura Bazkideak: Donostiarrak

- Donostiarrak: **86.864 (%76,99)**
- Ez donostiarrak: **25.968 (%23,01)**




Bazkide donostiarrak auzoka



Guztira 86.864 %100,00

Bazkideak adin-tartearen arabera




Bazkideak sexuaren arabera



67.511
EMAKUMEAK




45.321
GIZONAK



Bazkideen garapena 2012-2021

Urtero izena emandako bazkide berriak



Bazkide kopuruaren garapena azken hamar urteotan

2

0

DK

San Telmo
Museoa

2

1

SAN TELMO Museoa

2021. urtean zehar, oso une desberdinak bizi izan ditugu, batez ere pandemiaren ondorioz. Urtearen hasiera zaila izan zen, baina udako hilabeteetan normaltasunera itzuli ginen hein handi batean, jendea berriro etorri baitzen **San Telmoko** aretoetara, eta erantzun egin baitie museoaren proposamenei. Urtearen hondarrean, ordea, museoari eragin zion berriz ere pandemiak, gizarteari oro har eta era guztietako jardueri bezala, birusak goraldia izan zuen-eta. Urte-amaierarako, museoak 83.537 bisita zituen hartuak.

Erakusketei dagokienez, **Bidaiarik luzeena**. **Lehen mundu bira** izenburukoa arrakasta biribila gertatu zen, 25.000 bisita baino gehiago izan zituen. Instituzioen arteko lankidetzeta eta erakusketan jatorrizko eskuizkribuak izateko aukera izan dira alderdi aipagarrienak. Beste mugarri handia, erakusketetan, **Baginen bagara**. **Emakume artistak: ikusgarritasun(ez) aren logikak** izan zen, azaroan hasia, oso harrera ona egin baitzitzaion. 2022ko martxora arte egongo da ikusgai.



2021eko Museoaren Eguna © Oskar Moreno



Kearen eta lanbroaren artean, Sigfrido Koch Bengoechea erakusketa

Azpimarratzekoa, halaber, **Kearen eta lanbroaren artean, Sigfrido Koch Bengoechea** erakusketa, zeinean gerrako eta zenbait euskal herritako bonbardaketen irudi orain arte ikusi gabeak jarri baitziren ikusgai. **Urgullen magalean**, 2020tik zetorrena, maiatza arte bisitatu ahal izan zen.

Sorkuntza garaikidea oso presente egon zen museoan 2021ean ere: **Museo Bikoitza** programaren barruan, **Erlea Manerosen Norustaren** bigarren kapitulua jarri zen museoan erakusketa iraunkorrean, abuztuaren azkena arte, eta bitartean, Jose Maria Zabalaren lan bideografikoa aurkeztu zen, **Magia, materia eta beharra**. Bestalde, Oier Iruretagoienaren **San Sebastian eta Fantasma** erakusketa izan dugu **Artea abian** proiektuaren barruan, zeina Kutxa Fundazioak eta San Telmoko eratu baitute. Udan, orobat, Xabier Erkiziaren **Zubiak dira zauriak, zauriak dira orbainak, orbainak dira izenak** instalazioaz gozatu ahal izan dugu, museoaren eta Musika Hamabostaldiaren arteko hitzarmen bati esker, bai eta **Cristina Iglesias**ek **Hondalea** artelanean izan duen sorkuntza-prozesua ezagutzeko aukeraz ere, izenburu bereko erakusketaren bitartez.



Erraldoiak klaustroan © Oskar Moreno

Carmen Ballvé argazkilaria Dominikar Errepublikako batey komunitateetara hurbildu gintuen **Begirada hurbila** erakusketan, eta klaustroak hartu zituen Sorian aurkitutako hilarri batzuk, euskal jatorriko izenak dituztenak.

Erraldoiek ere bisitatu zuten museoa 2021ean, eta familiek doan egin ahal izan zuten ibilbidea, **Ibilbide erraldoia**, hasi beheko klaustroan, erraldioen bildumarekin, eta goiko klaustroan bukatzeko, Altzoko Handiarekin.

2021ean bete ziren museoa berrireki zeneko 10 urteak, bai eta Gordailua inauguratu zenekoak ere, eta bi zentrook programazio bat eraman dugu aurrera instituzioen arteko lankidetzak ondareari dakartzkion onurak agerian jartzeko, zenbait ekinbide zirela medio.

Orobat, sakondu egin dugu argazki-funtsen kontserbazioari buruz genuen jakintza, **Kutxa Fundazioarekin** lankidetzan kasu honetan, halako piezek bildumetan gero eta presentzia handiagoa dutela-eta.

Gabriela Cendoyaren argazki-liburuen bildumak handitzen jarraitu du, eta museoak beste zenbait ale gehitu dizkio, katalogoa are gehiago aberasten duten zenbait obra erosita.

2021ean zehar, museoko jarduerak bide digitaletik eskaintzeko aukerari eutsi diogu; izan ere, hitzaldi asko *streaming* bidez eman dira, eta ondoren museoaren youtube kanaleko gai-zerrendetan geratu dira ikusgai. Alde horretatik, **Urgullen magalean** erakusketaren bisita birtuala egin da, bai eta **Baginen bagara** erakusketa erosoago bisitatzeko audiogida bat ere, bata zein bestea doan.



Gabriela Cendoya argazki-liburuen bilduma



Vespa © Oskar Moreno

Ondarea: bildumak eta dokumentazioa

2021. urtean, 467 objektu eta artelan eskuratu genituen erosketa edo dohaintza bidez, denak ere kulturarekin eta euskal gizartearekin zerikusia zutenak.

Besteak beste, **Julieta Gascaren** zaharberritze-lantegia aurkitu genuen, 132 piezak osatua, eta XX. mendearen erdialdeko 24 objektuz osatutako bilduma, Donostiako burgesiako familia batengandik jaso. Nabarmentzekoak, halaber, 1953an Donostian matrikulaturiko **Vespa** bat, erakusketa iraunkorrari erantsi zaiona, eta Gurelesa lantegiko bi beirategi, aurki erantsiko zaizkionak.

Nolanahi ere, 2021. urtea artelanak erosi direlako nabarmendu da batik bat. Urtean zehar, emakume artisten lanak erosi dira batez ere, *Baginen bagara* aldi baterako erakusketari begira. Hala, besteak beste, **Esther Ferrer, Inés Medina, Ana María Parra, Mari Paz Jiménez,**

Aran Santamaría, Azucena Vieites eta Isabel Hergueraren lanak erosi dira. Orobat, museoa sartu dira, beste lan batzuen artean, **Amable Ariasen** 61 akuarelak osatutako bilduma bat, eta **Rosa Valverde**ren 197 marrazki.



Urtean zehar, bildumako 26 pieza atera ziren mailegutuan beste erakunde batzuek antolatutako aldikako 9 erakusketatara. Horiei, San Telmo Museoa ekoizitako edo bertan egindako aldi baterako erakusketetan jarri izan diren piezak gehitu behar zaizkie. Museoaren bildumako 81 pieza izan dira **Baginen bagara** erakusketan, 26 pieza jarri dira ikusgai **Bidaiarik luzeena** erakusketan, eta hilarri bat **Euskal sustraiko jende izenak erromatar epigrafian. Soriako Tierras Altasko hilarriak** erakusketan.

Gordailuan, ohiko erregistro-lanez, erosi berri diren bildumak egokitzeaz, bildumen argazkiak ateratzeaz, aurrez aurreko kontsultei erantzuteaz eta maileguan utzitako bildumen edota museoeko erakusketa iraunkorrerako diren obren mugimenduz gainera, **San Telmo Museo** zaharrekoak edo Aieteko jauregikoak ziren eta inbentarioan sartu gabe zeuden piezak erregistratzeko lanak egin dira Koma ZK enpresarekin lankidetzan, bai eta berriki erositako argazki-funtsak lekuz aldatzeko, egokitzeko eta erregistratzeko lanak ere.

Urtean zehar egindako beste dokumentazio-proiektu batzuk izan dira **Elizegi** argazki-funtseko negatibo askoren digitalizazioa, **Koch Bengoechea** argazki-funtsaren inbentarioa egitea -Ereiten ZK enpresarekin lankidetzan- eta Mandasko Dukeen artxibo-funtseko gutun sorta baten inbentarioa egitea. Orobat, **Fernando Postigo** argazki-funtseko erreportajeak identifikatzeko eta dokumentatzeko lanak egiten jarraitu dugu -**Elisa Querejeta**rekin lankidetzan-, XIX. mendeko arte-bilduma berrikusteko lanak -**Mikel Lertxundi**rekin lankidetzan-, eta Donostiako kaleetako eskulturen atlas bat berrikusi eta eguneratu da -Koma ZKrekin lankidetzan-.

Eta kanpo-kontsulten zerbitzuari dagokionez, kontsulta eta erreproduzitzeko edo argitaratzeko irudi-eskaera askori erantzun zaie, aurreko urteetan bezainbati. 100 kontsultatik gora, zeinek beren dokumentazioa sortu baitute, eta irudiak erreproduzitzeko 35 eskaera. Barneko kontsulta-eta dokumentazio-zerbitzuek bereziki zorrotz jokatu dute museoak ekoizti eta antolatutako erakusketen dokumentu-premiei erantzuterakoan, hala nola **Baginen bagara** edo **Bidaiarik luzeena** erakusketen kasuan, edota **Museo Bikoitza** bezalako proiektuen kasuan.



San Telmo Museoaren Lagunen Elkarrekin Andrés Nagelen obra bat dohaintzan eman zuen © Oskar Moreno



Koch Bengoechea argazkiak © Oskar Moreno



Ondarea: kontserbazioa eta zaharberritzea

Departamentu honek hartu zuen bere gain museoan urtean zehar egindako erakusketen kontserbazioa eta zaharberritzea, hainbat lan gainbegiratzuz eta kontrolatuz, hala nola bilgarria ipintzea eta kentzea, obra muntatzea eta desmuntatzea, elementu museografikoak, egoera klimatiko eta grafikoen datuak hartzea, eta kontserbazioari eta kalteei buruzko txostenak egitea. Orobat, larrialdi-planak ere prestatu ziren erakusketa batzuetarako.

Urtean zehar, **Serten** mihiseak kontserbatzeko eta babesteko lanak egin dira, zabalkunde-programa batekin batera, eta museoan bildumen larrialdi-plan bat idatzi da. Gainera, zaharberritu eta klaustroan ikusgai egon eta gero, kanoiak Urgull mendira eraman ziren.



Argazki-zaharberritzea

Bestalde, Donostia Kulturako zerbitzu batzuen egoitza diren eraikin historikoen aurrealdeak zaharberritzeko eta kontserbatzeko plan bat idazteko eskaria egin da, eta martxan jarri da kaleko monumentuak kontserbatzeko eta mantentzeko plana, Hiria Mantentzeko departamentuarekin lankidetzan.



Aldi baterako erakusketak

Aldi baterako erakusketen programa, aurreko urtean pandemia-egoerara egokitu ondoren, normaltasunez garatu ahal izan da, eta gure eta inguruko funts eta bilduma asko eta asko erabili dira erakusketotan.

Jendea etortzeari dagokionez, izarra, ezbairik gabe, **Bidaiarik luzeena. Lehen bira munduari** izan da, Acción Cultural Españolaren eskutik etorritako erakusketa. Ekaina eta urria artean bisitatu ahal izan zen, eta 25.000 bisitatik gora izan zituen. Erakusketa horretan, gainera, Laurgaineko jauregian aurkitutako jatorrizko dokumentuak ere jarri ziren ikusgai San Telmon, Euskadiko Artxibo Historikoari esker.

Urtearen hasieran dagoeneko martxan zeuden erakusketen artean, **Urgullen magalean** izenekoa azpimarratuko dugu, maiatzera arte egon baitzen zabalik, eta 11.000 bisita izanda itxi baitzen. Erakusketa hori San Telmoko eta Gipuzkoako Foru Diputazioko funtsekin egin zen, eta gainera **Miriam Isasiren Gigante Roja** instalazioa ere sartu zen bertan. Nabarmentzekoa, museoak bisita birtuala egiteko aukera eman zuela.

Museo Bikoitza programaren barruan, **Erlea Manerosen Norusta** erakusketa iraunkorrean integratu zen, eta bigarren fase honetan elizan eta koruan hartu zuen lekua. Han bisitatu ahal izan zuten abuztuaren azkena arte. Hori baino lehen, industrializazioari eskainitako espazioan, **Magia, materia eta beharra** jarri zen, **Jose Mari Zabalen** lan bideografikoa, hots, programa honetako ondorengo artistarena, zeinak dagoeneko txanda eman baitie **Iratxe Jaio** eta **Klaas van Gorkumi**.



Elkanoren eskuizkribua. Euskadiko Artxibo Historikoa



Urgullen magalean erakusketa © Oskar Moreno



2021ean, **Kearen eta lanbroaren artean. Sifrido Koch Bengochea** erakusketa ere bisitatu ahal izan zen San Telmon, argazkilari donostiar hauen sagako kide honen irudiak alegia, zeinak 7.000 bisitaritik gora izan baitzituen. Eta urtea amaitzeko, beste mugarri handi bat, **Baginen bagara. Emakume artistak: ikusgarritasun(ez)aren logikak**, zeina azaroaren hondarrea inauguratu baitzen, eta oso harrera ona izan baitzuen. Emakume artistek egindako lanak bildu dira gehienbat, San Telmo Museoko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko bildumetakoak. Helburua gogoeta eragitea da ulertzeko ea emakume horietako asko zergatik zaizkigun ezezagunak gaur egun. Museoak audiodigida bat prestatu du erakusketa horretarako bisitaldia errazteko.





Hondalea erakusketa © Oskar Moreno

Laborategian, beste erakusketa batzuk programatu dira, hala nola **Hondalea**, zeinari esker ezagutu ahal izan baita Cristina Iglesiasek Santa Klara uhartean egindako interbentzioaren sorkuntza-prozesua. Halaber, **Begirada hurbila** ere hartu du, Carmen Ballvéren argazkiak, eta **San Sebastian eta Fantasma, Artea abian** proiektuaren bigarren edizioa, Kutxa Fundazioarekin batera egina, zeinean **Oier Iuretagoiena** artistaren lana aurkeztu baita.

Azkenik, klaustroan, Soriako goialdeetan aurkitutako hilarri sorta bat ikusi ahal izan zen hurbiletik, **Euskal sustraiko jende izenak erromatar epigrafian. Soriako Tierras Altako hilarriak** erakusketan, Idubeda oros eta Euskaltzaindiarekin lankidetzan.



Carmen Ballvé © Oskar Moreno



Euskal sustraiko jende izenak erromatar epigrafian. Soriako Tierras Altasgo hilarriak erakusketa © Oskar Moreno

Jarduerak

2021. urtean jarduera asko programatu izana nabarmendu da, bai eta proposatutako formatuen askotarikoa ere. Zailtasunak zailtasun, museoak berreskuratu egin zuen ohiko jarduna: bisita bereziak, solasaldiak, musika-jarduerak, mahai inguruak, artista-tailerrak, haurrentzako eta familientzako programak, ekitaldi bereziak... Ikus-entzuleen erantzunari adi, proposamen berriak gehituz joan gara, betiere unean uneko egoerari egokituak, asko arlo eszeniko eta musikalekoak: bertsolariak, zinea, kontzertuak, dantza-emanaldiak...

Aldi baterako erakusketa guztiek izan dute beren jarduera-programa irakurketa askotarikoei eta ikusle mota anitzengana hurbiltzeari bide emateko. Bereziki nabarmentzekoak dira udako **Bidaiarik luzeena** erakusketarekin lotutako jarduerak, bai eta **Baginen bagara** erakusketaren inguruan proposatutako begirada eta gogoeta ugariak ere.



Bertso saioa © Juantxo Egaña



Baginen Bagara © Oskar Moreno



Saskigintza museoko klaustroan © Oskar Moreno

Jendearekiko harreman hurbila eta zuzena landu da, zenbait eratako bisita gidatuen ohiko eskaintza unean uneko osasun-beharretara egokituz betiere. Hala, aldi baterako erakusketetarako bisita programatuz, autore-bisitaldietako begirada pertsonalez edo +55 programako bisita tematikoez gainera, beste proposamen batzuk eskaini dira, hala nola familien bisita ***Bidaiarik luzeena*** erakusketara, edota bisita laburra erakusketa iraunkorrera.

Eutsi egin zaio ondarearen, etnografiaren, arkeologiaren, historiaren eta euskararen inguruko jardueren programazioari. Aranzadi

Zientzia Elkarteen urteroko Arkeologia eta Etnografia jardunaldi ohikoez gainera, pandemiak etendako ekinbideak berreskuratu dira: **Hau, Euskal Herriko Objektu Tradizionalaren Diseinu Lehiaketa** eta **Atzokoak gaur** programa, lanbide tradizionalei buruzkoa.

San Telmo Museoa - Gordailuaren 10. urteurrenaren ospakizunak jarduera asko hartu zituen, museoek eta ondare-zentroek egiten duten lan ikusezin eta maiz ezezaguna ezagutzera emateko, programa batez zeinean adituek proiektu ezberdinen xehetasunak azaldu baitzituzten urtean zehar.



Gordailua Baginen Bagara



San Telmo Gaua

Bestalde, 2021eko Europako Ondarearen Jardunaldiak irigarritsunari eta inklusioari buruz egin ziren, aukera ona, noski, erakusteko zernolako sentiberatasuna eta konpromisoa duen San Telmok pertsona guzti-guztientzat irekitako espazioa izateko, inor kanpoan utzi gabe.

Ezin ahaztu kultura-aisialdirako proposamenak, arlo akademikotik kanpoko haur-jarduerak eta familientzako jardueren programa. Haur eta familientzako aisialdiaren ildoari heldu zitzaion berriro, hala familia-tailerretan nola beste era bateko jardueretan: ikuskizunak, ipuinak edo haurrentzako zine-proiektzioak. Udan, Donostiako erraldoien bisitak alaitasuna ekarri zien familiei museoko klaustroan. 2020an hasitako ildoari jarraipena emanez, autonomoki erabiltzeko zenbait material editatu dira, hala nola **Bidaiarik luzeena** erakusketako pisten jolasa, erraldoien ibilbidea edo Victoria itsasontziari buruzko ipuina euskaraz argitaratzea.

Ohi bezala, musika-programazioaren parte handi bat **Francisco Escudero** kotnserbatorioarekin eta **Jazzaldia** eta **Musika Hamabostaldia** jaialdiekin

eta **Musikagileak** musika garaikideko zirkuituarekin lankidetzan antolatu zen, eta horiei gehitu behar zaie **Ereski abesbatzarekiko** lankidetzaz, edota **Francesca di Nicola** harpa-jotzailearekikoa. **DJ Makalak** girotu zuen udako **San Telmo Gaua** festa.



DJ Makala



Francisco Escuderoaren ikasleen emanaldiak



Dolugelan jardunaldiak

Erronkak

Erronkak ildoaren programazioari dagokionez, nahikoa normaltasunez egin ahal izan zen. Ohi bezala, museoaren programazio-ildo horretan gaurkotasuna eta interesa duten zenbait gai jorratu ziren. Nagusietako bat **berdintasuna eta feminismoa** izan da, zenbait arlotan.

Betaurreko moreekin nabarmendu zen, **Laura Freixasek** zuzendua, zeinak jarraipena izango baitu 2022an. **Jasangarritasuna erabiltzen dugu** izan da beste ardatz bat, Agora K2050en eta Cristina Enearen arteko lankidetzaz. Ziklo horretan, besteak beste, Glasgoweko gailurrari eskainitako hitzaldiak izan ziren.

Biharko hiria izan zen **Donostia 2030** zikloko protagonista. Donostiako Estrategia Bulegoarekin batera antolatua. **Europar Elkarrizketak** ere egin ziren, Globernancerekin batera. Ez dira falta izan Giza Eskubideei, antropologiari, psikoanalisiari, literaturari eta erakusketekin zerikusia zuten jarduerari eskainitako begiradak, eta interes handiko programa osatu dute denen artean.

Hezkuntza

2021. urtean ikasleen bisita gidatuak berreskuratu ziren pixkanaka, bai eta beste kolektibo batzuenak ere, taldeetan murrizpenak izan badira ere.

Hezkuntza Sailaren ahalegina Hezkuntza Komunitateari heziketarako materialak eskaintzea izan zen, hau da, bai irakasleei eta bai familiei. Heziketa-lanari segida ematen ere saiatu gara, oso egoera bihurrian, edukiera-mugak eta osasun-egoera zirela-eta, horrek museora askoz bisitari gutxiago etortzea ekarri baitu.

Urte guztian, 7.096 lagun etorri ziren museoko bisita gidatuetara, 528 taldetan. Kontuan izanik aurreko urteko datuak, 2.058 lagun eta 122 talde, bistan da gorakada, baina oraindik ere datuok urrun daude Covid-19aren aurreko testuingurukoetatik.

Egin ziren bisita gidatu guztiotan, etorritako gehienak ikasleak izan ziren (% 64,80), eta gutxiago talde sozialak (% 8,20). Beste guztiak, partikularrak eta beren kontura etorritako taldeak (% 13,5) izan ziren. 2021ean instituzioetatiko zenbait bisita izan ditugu (% 10,70), eta tour-operadoreak, berriz, ia batere ez. Hala ere, konturatzen gara ezen, nahiz eta edukiera mugatuak eta murrizpenak izan, herritarrek museoa bisitatzera etorri nahian jarraitu dutela.

Bi **hezkuntza-kanpaina** egin dira, otsailean eta irailean, pandemiaren testuingurura egokitutako hezkuntza-eskaintza ezagutarazteko, eta gainera **Museoa eskolara joan da**, San Telmo eskolara programaren bitartez.

Hezkuntza Komunitateari begira, berriz, nabarmentzekoa laugarren aldiz segidan egin zirela **Dolugelan Jardunaldiak**, Bidegin Elkartearekin eta Donostiako Irakasleen Orientaziorako Zentroarekin lankidetzan. Jardunaldi horietan, Hezkuntza Komunitateko 100 lagunek hartu zuten parte, gehienak irakasleak eta gurasoak.

CDD-Liburutegia

2021ean zehar, **Gabriela Cendoya Bergarecheren** (GCBC) argazki-liburuen bildumari zabalkundea ematen eta ikusgai jartzen jarraitu dugu, jarduerak modu egonkorrean programatuz eta liburutegira bisitan etorritako taldeetara joz. Urtean, bereziki azpimarratu da emakume sortzaileak ikusgai jartzea; besteak beste, **Aitziber Orkolaga, Inma Barrio, Rocío Bueno** eta **Laura Vela Carrascosa**. Gainera, gure artean izan ditugu **Ricardo Cases** eta **Ricky Dávila** artistak, eta online, berriz, **Oriol Miñarro** eta **Joan Teixidor**. Hitzaldi guztiak eman ziren *streaming* bidez, eta bideoak STMko multimedia gordailuan jasota geratu dira, eta oso segimendu esanguratsua izan dute.

Azpimarratzekoa San Telmo Museoa dagoen GCBC hau ezaguna dela nazioartean, eta 2021. urtean, fanzine formatuko hogeita hamar bat argazki-liburu bidali ditugula Galerie le Bal de Paris (2021eko azaroan).

Gaur egun, **2.885** ale daude argazki-liburuen bilduman. Urtean zehar, argazki-liburuak katalogatzen jarraitu dugu, eta horien erregistro bibliografikoak Liburubila online plataformatik kontsulta daitezke.

Museoko liburutegi honen beste gakoetako bat da **Maya Aguiriano Funtsa**, artxibo dokumental bat, arte-kritikari eta komisario horrek gure zentroan egon zedin nahi izan baitzuen, edonork kontsultatu ahal dezan. Ikertzaile asko etorri ohi dira euskal arteari buruzko funts hori kontsultatzera, eta bertako dokumentu batzuk **Baginen bagara** erakusketan izan dira.

Liburutegitik, Artista Liburuaren inguruko VI. Topaketak koordinatu dira, zeinak 2021ean elizan egin baitira lehen aldiz, eta jende asko erakarri eta antolatzaile eta erakusleen atsegina eragin baitute. Museoak, leku-aldatze horren bidez, bertako sortzaileak babestu nahi izan ditu ekinbide hau bultzatuz.

Amaitzeko, nabarmendu behar da liburutegiak STMko Ahozko artxiboa proiektua bultzatu zuela, urte asko dituzten dendetan bildutako lekukotzen 20 elkarrizketa editatuz, azken urteetan eginak, eta aurki jendeak ikusteko moduan jarriko direla webgunearen bidez.



Artista Liburua © Oskar Moreno



Argitalpenak

2021ean sei argitalpen egin dira. Bik zerikusia dute bi erakusketatan ikusi ahal izan ziren museoaren bi bildumarekin: **XVIII. mendeko jantziak. San Telmo Museoko bildumak**, eta **Kearen eta lanbroaren artean. Sigfrido Koch Bengoechea. Miaka** ikerketa-koadernoaren laugarren zenbakia ere bai, formatu digitalean ematen dena: **Mendibururen txalaparta**.

Beste bik zerikusia izan zuten udan bisitatu ahal izan zen aldi baterako erakusketarekin – **Bidaiarik luzeena**–; izan ere, batetik Euskadiko Artxibo Historikoarekin batera argitaratu zen erakusketaren katalogoaren gehigarria, azpimarratuz zer dokumentu jatorrizko utzi ziren, eta bestetik **Victoria eta lehen mundu bira** ipuinaren euskarazko bertsioa argitaratu zen.

Azkenik, Artea abian proiektuko **San Sebastian eta Fantasma** erakusketak ere, 2021ean Oier Iruretagoienaren esku, bere katalogoa izan zuen.





Historiaren Etxea © Oskar Moreno

Urgull

2021ean **edukiera erabat murriztea** erabaki da, Historiaren Etxea bisitatu dutenen segurtasuna bermatzeko. Gainera, ordu-tarte batzuk ezarri dira sartzeko, bisitak egunean zehar banatzeko. Hartara, nahiz eta bisitari-kopurua aurreko urteetako baino askoz txikiagoa izan, bisitaren kalitatea eta zentroaren funtzionamendua ontzat jo behar ditugu.

Erakusketa ekainaren 18tik irailaren 11ra bitarte egon zen irekita, eta 40.000 bisita inguru izan zituen. Eskaintza osagarri gisa, 2021ean areagotu egin dira Urgull Mendia interes historikoko gune gisa ezagutarazteko baliabideak: lehenik genituen app-az eta plano-gidaz gainera, 2021ean kanoiak ipini dira gazteluaren zabalgunean, barruan programatu da Urgullen grabatuen aldi baterako erakusketa, eta dinamizazio-jarduerak burutu dira.

Komunikazioa

2020an pandemiak eragindako egoerara egokitzeko egindako ahaleginari esker, 2021ean museoak eduki gehiago eskaini ditu online, hala zuzeneko hitzaldiak eskainiz nola jendearen esku jarriz museoaren kanale digitaletan.

Urtean zehar, museoak 13 prentsaurreko eman zituen (azpimarratzekoa, beste erakunde eta entitate batzuen aurkezpen batzuk ere egin zirela, gai eta proiektu interesgarrien ingurukoak), eta 21 prentsa-ohar igorri ziren.

140.000 bat lagunek erabili zuten webgunea, aurreko urteko beherakada zertxobait hobetuz, eta, oro har, urtean zehar gehituz joan zen **sare sozialetako** jarraitzaileen kopurua. Gaur egun, 15.000tik gora dira. Bestalde, 5.200 lagunek baino gehiagok jaso zituzten museoak bidalitako boletín elektronikoak, hots, programazioari buruzko informazioa, bazkideentzako abantailak, hezkuntza-proposamenak eta familientzako jarduerak.

Publizitateari dagokionez, museoak publizitate-iragarkiak sartu zituen komunikabideetan, batez ere museoaren babesle edo enpresa ongile diren komunikabideekin egindako lankidetzakordioen bitartez, aldikako erakusketei eta bazkide-kanpainari zabalkundea emateko batik bat. Orobat, museoak publizitate-plan bat gauzatu zuen komunikabide espezializatuetan eta orokorretan, jardueren zabalkundea areagotzeko ikus-entzule potentzialen artean.



2

0

DK

Kultur
Etxeak

2

1



Kultur Etxeak

Kultur etxeen sarea herritarrentzako topagune da eta erreferentzia bat auzoko eguneroko agendetan. Kultur etxeek udal zerbitzuen eskaintza zabala kudeatzen dute, eta kultur arlo guztietako jarduerak programatzeaz eta festetan parte hartzeaz gainera, lehenak dira tokian tokiko sortzaileak babesten eta ekimen publikoa eta pribatua elkartzen dituzten proposamenak bultzatzen.

2021. urtean ere Covid-19a izan genuen gainean, eta ahalegin handia egin zen jarduera gehienak berreskuratzeko, erabiltzaileen, kultur eragileen eta langileen osasuna babestearekin batera.

Ez zen eginkizun erraza izan programazioak oso baldintza aldakorretan zertu baitziren, eta, besteak beste, etengabe berrasmatu behar izan ziren lan-dinamikak, unean uneko araudietara egokitzeko: atzerapenak, egutegi eta ordutegi berriak, edukiera murriztuak, higie-neurriak...

Kultur etxeek gogor lan egin bazuten ere dinamika berrian programaturiko jarduera asko egokitzeko eta aurrera eramateko, osasun-baldintzek galga jarri zieten behin baino gehiagotan ekipamendu-sarearen jarduera eta zerbitzuei.

2021. urtean ere murrizpenak izan zituzten arrisku-taldeekin (+55) edo gazteenekin zerikusia zuten zerbitzuek, eta, hasiera batean baikor baginen ere udari begira, egoera ez zen nahi adina hobetu, eta jendetza handiak ekartzen dituzten jaialdiak (**Musikaren Eguna** Loiola kalean, edo **Glad is the Day** Cristina Enean) bertan behera geratu ziren azkenean. Hala eta guztiz ere, udaren amaierarekin etorri zen ikasturte berriak aise berreskuratu zuen pandemia aurreko prestakuntza-eskaintza, eta, besteak beste, **Literaktum** jaialdia (2020an bertan behera geratu zena) eta **Poltsiko Antzerkia** (urte hasieran atzeratua) berriro egin ziren, bai eta **Altza Apain** arte-topaketa ere.

Azpimarratzekoa ezen, nahiz eta ezin zaion "normaltasuna" deitu 2021ean bizi izandakoari, urte horretan ez zela zerbitzurik itxi behar izan pandemia zela-eta, eta, oro har, erabiltzaileak seguru sentitu zirela kultur etxeetan eta haietara itzuli zirela kultur eskaintza zabalaz gozatzeraz. Azkenik, 2020an musukoa jartzen eta pertsonen arteko distantzia zaintzen ikasi behar izan bagenuen, 2021aren amaierarako handia zen txertatze-tasa, eta horrek segurtasuna handitu eta Covid-19 pasaporteaz ezartzea erraztu zuen osasun-neurri berri gisa.

**2021. URTEAN,
COVID-19AREN
ERAGINPEAN
JARRAITU
BAGENUEN ERE,
KULTUR ETXEEK
661.836 BISITA
IZAN ZITUZTEN ETA
5.058 JARDUERA
BAINO GEHIAGO
PROGRAMATU
ZIREN. GUZTIRA
187.303 LAGUNEK
HARTU ZUTEN
PARTE.**

Ikastaroak

Kultur etxeen programazioaren barruan, urtez urte onarpen handiena duen programetako bat da prestakuntza eskaintzarena. 2021-2022 aldian, Donostia Kulturak antolatutako **807** ikastaro eskaini ziren, askotarikoak iraupenaren, gaiaren eta jartzaileen aldetik. Garrantzi berezia eman zitzaizen gazteentzako ikastaroei eta autore-ikastaroei.

2021. urteko lehen hiruhilekoan, ikastaroen programazioa bi edo hiru hilabetekoa izan zen, 2020an pandemiara egokitzeko diseinaturiko planaren ildotik. 2021eko urritik aurrera, ohiko formatuetara itzuli ginen, hots, urte osorako edo lau hilabeteko ikastaroak eskaini genituen. Hala ere, eskaintza unean uneko errealitateari egokitzen jarraitu genuen, COVID-19a zela eta.

Gaien aldetik, eskaintza zabala eta askotarikoa izan zen. Ezari-ezarian, sukaldaritza-ikastaro batzuk eskaini genituen berriro, eta espero dugu aurki pandemia aurreko eskaintzara hurbilduko garela ikastaro mota hauetan.

Dena den, eta oneratze hori dela-eta, **7.000** lagunek eman zuten izena, gehienek arte eszenikoen eta arte plastikoen inguruko ikastaroetan, bai eta autoezagutzari eta osasunari buruzkoetan ere.

KZ guneek eskainitako 1022 ikastaro eta 2000 ikasle baino gehiago gehitu daitezke zifra horiei.

Nabarmentzekoa, gainera, gero eta jende gehiagok egiten dituela online izena emateko izapideak, eta 2021ean matrikulazioaren %75 izan zirela.

Programazio zabala, bizia eta askotarikoa, hiriak gaur egun dituen beharrei erantzuteaz gainera adi dagoena eta, urtez urte, arlo berriak eta eskaria duten proposamenak jasotzen dituen.

IKASTAR TAR AK CURSOS

2021-2022



Real Book © Iñaki Rubio

Poltsiko Antzerkia

Kultur etxeek **Poltsiko Antzerkia Jaialdiaren 30. edizioa**z egin zuten balantzea oso ona izan zen antolakuntzari eta herritarren erantzunari dagokienez. **Covid-19ak markaturiko 2021. urtean, 4.000** ikus-entzule inguru hurbildu ziren antzerkiak, umoreaz, txotxongiloez, musikaz eta kabaretaz gozatzeri, **irailaren 24a eta urriaren 10a artean.**

Jaialdia udazkenean itzuli zen, otsailan atzeratu eta gero, eta berritasun aipagarriena izan zen **ia osorik karpapean egin zela**, unean-unean indarrean zeuden segurtasun-eta osasun-neurriak bermatzeko. Murrizpenek galarazi egin zuten programazioa ohi bezala eskaintzea, tabernetan eta beste gune ezagun batzuetan, eta, ondorioz, **antolatzaileak ikus-entzuleentzako egokiak ziren agertokiak sortzea erabaki zuen, hiru plazatan eta asteburuetan.**

Guztira, **17 konpainiak** hartu zuten parte, eta **32 funtzio eskaini zituzten, 8 agertokitan.** Beste urte batzuetan bezala, arreta berezia eskaini zitzaion euskal sorkuntzari, eta **16 funtzio euskaraz izan ziren.** Konpainiek esker ona erakutsi zieten bai Donostia Kulturari, sektorearen eta jaialdiaren alde egiteagatik halako egoeran, bai ikus-entzuleei, beldurra alde batera utzita eta ilusioz etortzeagatik beren ikuskizunetara. **Ikus-entzuleen erantzuna ezin hobea izan zen,** ez bakarrik ugari etorri zirelako karpapa eta ikuskizunetara; baita segurtasun-neurriak bete zituztelako ere.

Poltsiko Antzerkia Jaialdiak bazituen lehendik jarraitzaileak, eta ez zioten huts egin. Gainera, ikus-entzule berriak inguratu zituen Donostiako kultur programazioan dagoeneko klasiko bihurtua den hitzordu honek.

2021 POLTSIKO ANTZERKIA TEATRO



Egoeraren beharretara egokitutako proposamen hau kultur etxeen eguneroko lanaren adibide argi bat izan zen. Izan ere, herritarrengandik hurbil dauden ekipamenduak izanik, bestelako begirada bat eskaintzen diete hiriko kultur programazioei.



Fabiolo © Iñaki Rubio



LITERAKTUM

2020ko edizioa azken orduan bertan behera geratu eta gero, **Literaktum** indartuta itzuli zen Donostiako kultur agendara. Berritasun aipagarriena **Literaktum Topaketak** izan ziren. Ekinbide horri esker, literatur panoramako autore nabarmenenek Donostia bisitatu ahal izango dute urtean zehar, jendearekin partekatzen beren ibilbideak eta proiektuak.

Bi hitzordu desberdinek, bat **Leonardo Padurarekin**, 2015eko Letren Asturiasko Printzesa sariduna bera, eta bestea **Najat El Hachmi**rekin, zeinak Nadal saria irabazi baitzuen 2021ean, hasiera eman zioten maiatzean jaialdiaren **apustu** berriari.

Literaktum, Donostiako literatur jaialdia, **azaroaren 8tik 21era egin zen**, hiriko zenbait lekutan, eta berriz ere jende ugari etorri zen antolatutako ekitaldietara. Guztira **3.500 herritarrek hartu zuten parte, era batera edo bestera, programazioan.**

“Literatura eta oroimena” izan zen ardatz nagusia. Gai horri buruz jardun zuten etorritako idazle gehienek, zera azpimarratu baitzuten, zeinen garrantzitsua den oroimena beren literatur sorkuntzaren prozesuan. Literaktumen izan ziren, besteak beste, **Luis Landero, Leila Slimani, Borja Ortíz de Gondra, David Grossman, Marta Barone, Isabela Figueiredo, Jordi Amat** edo **Edurne Portela**, denak ere oroimenaz zeresana franko duten sortzaileak

Topaketak Donostiako kultur etxeetan izan ziren, San Jeronimo kaleko aretoan, Koldo Mitxelena Kulturunean, Tabakalera eta hiriko beste zenbait tokitan. Zenbait ekitalditan, aretoak bete egin ziren; esate baterako, **Leila Slimani, Luis Landero, Javier Cercas** edo **Manuel Jabois-enetan. Nolanahi ere, David Grossman** israeldarrak bildu zuten jende gehien.

Nabarmenezkoa, halaber, **Anjel Lertxundi** idazlearen parte hartzea jaialdiaren lehen egunean, zeinean Martin Ugalde gogoratu baitzuen, euskal kulturako idazle garrantzitsua, haren jaiotzaren mendeurrenean. Aipagarriak, baita ere, **Kirmen Uriberen** hitzak New Yorketik bere azken lanari buruz, edo **Eider Rodriguezek Harkaitz Canorekin** izandako solasaldia, bere lehen eleberria zela eta.

Idazleekin izandako ekitaldi horietako asko grabatu egin ziren, eta nahi zuenak berriro gozatu ahal izan zituen entzungai jarri ziren hainbat topaketen podcastak, hala Donostia Kultura Irratiaren webgunean (<https://irratia.donostiakultura.eus/eu/>) nola podcasten plataforma nagusietan.

Idazleekin izandako elkarrizketez gainera, beste jarduera batzuk ere izan ziren **Literaktumen**, literatura beste hizkuntza batzuekin solasean jarri zutenak: eztabaidak, ikastaroak, musika-irakurketak, irratitailerra, antzezlan bat, instalazio bat eta baita bost erakusketa ere.

Literaktum Txikia programa ere, literaturzale gazteenei zuzendua, arrakastatsu gertatu zen. Kontu-kontariak, antzerkia, Haurren Egun Unibertsalaren jaia, lantegiak eta **Marratzu zure animalia fantastikoa** ilustrazio-lehiaketa: horiek guztiek eta beste batzuekin eratu zuten programa. Aipagarria, halaber, lehiaketa horretan parte hartu zutenen kopurua, 200 ilustraziotik gora bildu baitziren.



Literaktum



Dkluba programa emanaldi-zirkuitu bat da, auzoetako musika-eskaintza dinamizatzea duena helburutzat, nola eta tokian tokiko banda berriak bultzatuz eta artista ezagunak ekarriz. Oinarrian, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzat, komertzialak ez bezalako proposamenak programatzeko eta tokian tokikoa balioesteko (hala musika-taldeei nola kolektibo, klub, sustatzaile eta elkarteei dagokienez). Azken batean, Dklubak modu naturalean lortu nahi du programazio-erreferente bat izatea bertako talentuarentzat eta musika-emanaldien zirkuituentzat.

Horren adibide izan zen aurreko urtean hiriko klubekin egindako akordioari jarraipena ematea, diruz laguntzeko zirkuitu pribatuko programazioari. Osasun-neurriak zirela-eta egindako edukiera-murritzpenek aretoen jarduna zigortu, eta arriskuan jarri zuten areto ezagun batzuen jarraipena, hala nola **Doka, Dabadaba, Altxerri, Bataplan, iBe!Club** eta beste batzuen.

Areto horien iraupenak hiriko kultur ekosistamarako duen garrantziaz oharturik, eta bertako eszena bizirik edukitzeko helburuz, **Dklubak 63 kontzertu antolatu zituen areto horiekin 2021ean, eta 4.500 ikus-entzule etorri ziren haietara**. Egoera hain ohiz kanpokoa izanik, zuzeneko musikaren zaleek suharki erantzun zuten berriro, nahiz



Chill Mafia

eta edukierak mugatuak izan eta eserita egon behar. Zirkuituak programazio eklektikoa hartu zuen, eta han izan ziren, besteak beste, **Rüdiger, Ofunkillo, Manolo, Kabezabolo, Los Estanques, Willis Drummond, Elena Setién...**

Urtea baikor hasi genuen, pentsatuz udan osasun-egoerak hobera egingo zuela, baina abelera oso aldakorra zen, eta ezin izan ziren berriro antolatu urteroko jaialdi jendetsu batzuk, hala nola **Musikaren Eguna** Loiola kalean, **Glad is the Day**, Cristina Enea parkean, eta **Musikagela Fest**, erdialdean egitekoa zena.

Intxaurrondo K. E.ari dagokionez, **Dklubaren** agertoki nagusia baita, 2021a hilean kontzertu bat eskainiz hasi zen. Urtarrilean, **Gari & Maldanbera** izan ziren, eta otsailean **Noa & The Hell Drinkers & Friends**, eta biek erakarri zuten jendetza handia. Apirilean, berriz, **XI. Musikagela Weekend** jaialdia inoiz baino tokikoagoa izan zen, **Mihise** usurbildarrak izan baitziren

kartelburu. Nordikaren 10. urteurrenean, osteran, **Juárez** iruindarrek jo zuten. Maiatzean, aretoak **Revolution JamRock Bizirik**en lehen jardunaldia hartu zuen, eta ekainean **Bruma** madrildarrak, **Musikaren Eguna** zela-eta.

Udaren ondoren, gitarrabirtuosoak etorri ziren: **Twanguero** irailean eta **Joseba Irazoki eta Lagunak** azaroan. **Revolution Jam Rocken** bigarren jardunaldia ere azaroan izan zen. Orduan itzuli ziren zutikako kontzertuak, urte eta erdiren ondotik.

Urteari modu handiosean agur esateko, abendura atzeratutako **Donostikluba** jaialdia, zeinean une horretako bandarik lotsagabeena izan baitzen: **Chill Mafia**. Bi urtez edukiera murriztuak eta eserleku behartuak izan ondoren, aretoak berriro jarri zuen "Sarrerarik ez" kartela, edukiera bere osoan zela Covid-19 pasaporte eskatu zen lehen asteburuan.



musikagela

Musikagela Donostia Kulturaren zerbitzu ezagunenetako bat baino askoz gehiago da. Erreferente bat da Donostian musika praktikatzen dutenen artean, eta horri esker, lagun egiten dien jarraitzaile talde baten babesa dute, etengabe berritzen dena. Erabiltzaileek hainbat aukera dituzte: aholkularitza-zerbitzuak, maketak grabatzeko eta zuzeneko emanaldietarako ekipamenduak, saio-probetarako aretoak, kultur etxeetan egonaldiak... eta horri guztiari musika-prestakuntza espezializatuaren eskaintza gehitu behar zaio.

Bestalde, tokiko banden jarduna sustatzeaz gainera, etengabe dihardu haien lanari zabalkundea ematen. Donostia Kultura parte izanik antolatzen diren ekitaldietan, berrak daude baldintzarik egokienak ekipamenduaren, kontratazioaren eta publizitatearen aldetik.

2021. urtea, Covid-19aren presiopean iraganenez, urte gogorra izan zen bandentzat, beren lana zuzenekoetan erakusteko aukera faltak ahanztura-arriskua ekarri baitzuten, eta martxan zituzten proiektuak geldiarazi. **2020aren parte batean ez bezala, bandek saio-probak egin ahal izan zituzten Intxaurren eta Egiak kultur etxeetan**, baina musika-jarduerak kaltea izan zuen, eta banda hasiberriek inoiz baino aukera gutxiago izan zituzten zuzenean jotzeko.

Egoera horretaz oharturik, eta koordinaturik betiere saio-aretoetara etortzen diren musika-taldeekin, **Musikagelatik** eginahalak egin ziren gutxienez promozio-materiala baldintzarik onenetan izan zezaten, lekuak eta ekipamenduak erabiltzen utziz audio-grabazioak eta bideoklipak egiteko edo zuzenekoaren prestaketarako.

Besteak beste, *Dock of the bay & Super Amara* promozio-bideoaren grabazioa **Las Penas** taldearekin, edota **Rumblin Lipsen** *Is this love?* bideokliparena. Orobat, **Rock Salad** bandaren eta **Aphaxia** taldearen maketak grabatu ziren, bai eta **2Raka Music** (Dj AndoL eta Dj Iru) plataformako musika elektronikoa.

Are **Liher** bandak, hirikoa eta dagoeneko bidea egin duena, **Musikagelaren** babesa izan zuen **Intxaurren Kultur Etxean**, non lekua utzi baitzitzaie ikus-entzunezko berriak eta promozio-materialak lantzeko, eta non 2022an beren azken lana aurkeztuko baitiote Donostiari.

Zerbitzuak egoera hori baliatu zuen tokiko bandek gaur egun dituzten premiez gogoeta egiteko, eta barne berrantolaketa prozesua jarri zuen martxan 2022ari begira. **Musikagelaren** asmoa bere baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzea da, saio-probetarako aretoen eskariari erantzuteko eta indartsuen datozen bandei ahalik eta hurbilenetik laguntzeko beren ibilbidean.



Liher

JARDUERAK

182

Antzerki (emanaldiak)
18.567 erabiltzaileak

165

Zine (emanaldiak)
4.008 erabiltzaileak

1.682

Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak
21.690 erabiltzaileak

404

Gaztelekua
3.321 erabiltzaileak

22

Dantza (emanaldiak)
2.618 erabiltzaileak

231

Hitzaldiak eta
mahai inguruak
8.986 erabiltzaileak

664

Liburutegiko
jarduerak
8.723 erabiltzaileak

447

Haurtxokoa
5.649 erabiltzaileak

107

Musika (kontzertuak)
7.853 erabiltzaileak

181

Erakusketak
97.763 erabiltzaileak

847

Plus 55
5.763 erabiltzaileak

126

Bestelakoak
2.362 erabiltzaileak

Guztira

5.058

Jarduerak

187.303
erabiltzaileak

ZERBITZUAK

351.653

bisitaldiak
Liburutegia

6.772

bisitaldiak
Haurtxokoa

79.545

bisitaldiak
Altzako bilduma web

1.769

bisitaldiak
Bideo tailerra

1.230

bisitaldiak
Ikasgela

13.581

bisitaldiak
Kzgunea
(Nabigazioak)

12.053

bisitaldiak
DK Irratia web

2.269

bisitaldiak
Musikagela

6.292

bisitaldiak
Gaztelekua

282

bisitaldiak
Altzako bilduma

2.851

bisitaldiak
Ispilu beltza
magazine-podcast

5.617

bisitaldiak
Musika Eskola

Guztira

484.664

BISITALDIAK

3.601

bisitaldiak
Plus 55

PRESTAKUNTZA

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak	Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	1.829	1.307	9.985	8.066	2.150
2020-2021 IKASTAROAK	359	180	2.576	2.089	466
Ikasturte osokoak (2020ko urria - 2021eko martxoa)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	15	15	577	462	115
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	38	17	178	159	19
Gaztelaniaz	36	31	398	343	55
Bigarren lauhilabetekoak (2021eko otsailean hasita)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	10	3	32	22	10
Gaztelaniaz	19	9	129	89	37
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	116	22	219	181	38
Gaztelaniaz	124	83	1.043	833	192
2021-2022 IKASTAROAK	440	214	3.602	2.960	570
Ikasturte osokoak (urria - abendua 2021)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	20	7	70	45	12
Gaztelaniaz	35	26	997	770	209
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	206	54	659	549	100
Gaztelaniaz	179	127	1.876	1.596	249
IKASTARO PUNTUALAK	8	11	224	108	72
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	3	3	73	52	21
Gaztelaniaz	5	8	151	56	51
KZgunea IKASTAROAK	282	243	867	598	269
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	740	659	2.716	2.311	773

KULTUR ETXEETARA EGINDAKO BISITAK
Guztira 661.836

2

0



AIETE
Kultur
Etxea

2

1

AIETE Kultur Etxea

2021a urte arraroa izan zen **Aiete Kultur Etxean**, mundu osoan bezala: online saioak, talde murriztuak, murrizpenak edukieretan... Urtearen hondarrean, pixkanaka, berriro itzuli ginen normaltasunera, *kultura segurua* lema beti gogoan. Kultur Etxeko erabiltzaileen erantzuna ezin hobea izan da, edukiera bete egin baita programaturiko jarduera askotan.



Aiete Kultur Etxea. (Argazkia: Iñaki Rubio)

Programazioaren ikuspuntutik, erakusketek eutsi egin zieten kalitateari eta herritarren nahi eta interesei. Esaterako, sakondu egin zen gizarte- eta ingurune-gaietan, literatura eta artean, kontuan izanik kultur etxe honen espezialitatea giza eskubideak eta bakea direla, ikuspegi pedagogiko berri eta erakargarri betiere. Bertako artisten eta kanpokoen arteko orekak bere hartan iraun zuen. Tokiko artistekin, beren produkzioaren erakusketak egin ziren, arte-sorkuntza bultzatuz eta, aldi berean, hiriarekin eta auzoarekin lotura zuten gaiak jorratuz. Bestetik, Donostia Kulturaren beste arlo batzuk lantzerakoan, **Giza Eskubideen Zinemaldirako** eta **Literaktum** jaialdirako erakusketak egin ziren.

Halaxe gertatu zen **Jane Goodall, ikertzailea eta bakerako aktibista (Jane Goodall, investigadora y activista por la paz)** erakusketaren kasuan, omenaldia egin baitzitzaion primatologo, ingurunearen aldeko aktibista eta Nazio Batuetako Bake Mezulari izandako emakume honi, **Asier Iturralde** artistaren ilustrazioen bidez. Erakusketa **Giza Eskubideen Zinemaldiaren** eskutik iritsi zen Aietera, eta **Jane Goodall** Institutuaren aholkularitza izan zuen. Horrekin batera, lantegiak egin ziren 5 eta 11 urte arteko haurrentzat, Donostiako Haurtxokoa sarearen bitartez.




33 Paraleloa. Bidaia gatazkan zehar, Aiete Kultur Etxea

Donostiako Udaleko Lankidetzaren Departamentuarekiko elkarlanetik sortu zen **33 Paraleloa. Bidaia gatazkan zehar (Paralelo 33. Un viaje a través del conflicto)** erakusketa. **Karlos Zurutuza, Jewan Abdi, Gilad Sade** eta **Andoni Lubaki** argazkilarik profesionalen argazkiek islatu zuten Mendebaldeko Saharatik Ekialdeko Balutxistanera doan ibilbide bat; bide horretan, etengabe aurkitu dituzte gerrak, goseak eta bidegabeak beren etxeetatik egotzitako pertsonak.



Asier Iturralde bere ilustrazio baten ondoan, Aiete Kultur Etxea



Virginia Woolf erakusketa. Gela bat norberarena. Sara Moranteren eskutik, Aiete Kultur Etxea. (Argazkia: Iñaki Rubio)

Arteari dagokionez, **Virginia Woolf. Gela bat norberarena. Sara Moranteren eskutik (Virginia Woolf. Una habitación propia. Por Sara Morante) Literaktum**, Donostiako Literatura Jaialdiaren eskutik iritsi zen Aietera. Virginia Woolf-en **Gela bat norberarena** saiakeraren lan jatorrizkoak, Elena Medel-en edizioan (Seix Barral, 2021) ikusi ahal izan ziren kultur etxean, britainiar idazleari eta idatzi nahi bai baina beren gelarik edota dirurik izan ez zuten emakume guztiei egindako omenaldian.

Eta **Tytti Thusberg** artista finlandiar donostiartuaren kasuan, artisautza, berdintasuna eta ingurunea bildu ziren jantzien diseinuetan, mezu sakona eta kalitate artistiko deigarria agerian. Hala, **Tytti Thusberg. Dotoretasun Birziklatua** erakusketa gonbidapena izan zen kontsumoaz, modaz eta emakumeen identitateaz gogoeta egiteko.

Erakusketekin jarraituz, Aiete Kultur Etxeak ilustrazioari eskainitako gune bat du.

Ilustrazioaren Txokoa 2021an sortu zen, eta harrezkero kultur etxearen identitate-adierazgarri bihurtu da. Liburuaren munduan, beti ezagutu izan da idazleen lana, baina maiz itzalean geratu da ilustratzaileena. Proiektu hau Donostia Kulturaren eta Galtzagorri elkartearen arteko lankidetzari esker jarri zen martxan. 2021. urtean, **Paul Caballerok**, Irrimarra bikoteak (**Irene Irureta** eta **Karmele Gorroño**), **Ana Ibañezek** eta **Ane Arzulusek** kolorez bete zuten txokoa.



Ilustrazioaren Txokoa, Ana Ibañez. Aiete Kultur Etxea



Tytti Thusberg erakusketa. Dotoretasun birziklatua, Aiete Kultur Etxea



Leila Slimani eta María Pilar Rodríguez, Literaktum. (Argazkia: Iñaki Rubio)

Aiete Kultur Etxea dotore apaindu zen **Leila Slimani** idazle frantziar-marokoarrari ongi etorri egiteko, **Literaktum** jaialdiko gonbidatu ohorezkoa izaki. Bere azken eleberria ekarri zuen Donostiara, ***El país de los otros***, eta hartaz jardun zuen **María Pilar Rodríguez** irakaslearekiko solas jostagarri eta pizgarri batean. *El país de los otros* zeresana emango duen trilogia bateko lehen alea da.

Arte eszenikoen arloan, **Musiklasik** programak formatu txikiko kontzertuak aurkeztu zituen, inguruko banda eta bakarlari eskarmentudunek emanak. Programa hori sendotuz doa urtetik urtera. Hala, 2021ean, **Loreto Aramendi** eta **Marian Herminosillak** lau eskutarako piano-kontzertua eskaini zuten; eta **Scherzok**, **Saul Martínez**, **Maider Zapiain** eta **Iván Casadok** osatutako biolontxelo hirukoteak, sekulako erreperitorioa. Iparraldetik **Habiak** (**Amaia Hiriart**, **Maia Iribarne** eta **Elena Haira**) bere

azken diskoa aurkeztu zuen, eta **Hiru Damatxok** (**Haizea Muñoz**, **Ane Artetxe** eta **Itxaso Sainz de la Maza**) ikus-entzuleen gozamina eragin zuen euskal konpositoreei eskainitako kontzertu barnekoi batean.

Haurrentzako programazioa oso aintzat hartzen da; hein batean, kultur etxea parke baten barruan dagoelako. Kontu-kontaketa, zuzeneko musika, haurrentzako antzerkia eta zinea... horra familientzako zenbait proposamen.

Interes berezia piztu zuen **Zorionak Marimotos** ikuskizunak, **Porrotx eta Marimotots** pailazo ezagunekin. Hiru minutuan agortu ziren gonbidapenak **Literaktum Txikiaren** barruan programaturiko hitzordu horretarako. Ikuskizunak opari oso berezi bat ere izan zuen, gereziondo txiki bat, kultur etxeak Aiete Ikastetxeari egina, hots, auzoko ikastola publikoari, zeinak izugarri eskertu baitzuen oparia.



Habia: Amaia Hiriart, Maia Iribarne, Elena Haira. Musiklasik, Aiete Kultur Etxea



Zorionak, Marimotots!, Porrotx eta Marimotots, Literaktum Txikia. (FArgazkia: Iñaki Rubio)



Aiete Kultur Etxeko Liburutegia

Liburutegia da Aieteko parkeko erakargarri handienetako bat, beirategi eder-handia duelako eta, horri esker, argi naturalaz eta parkearen edertasun aldakorraz gozatzeko bidea ematen duelako. Hala, irakurketa sustatzeko jarduerak interesa piztu zuten gazteen artean, eta **Zeu irakurle. Gu kontalari** programa sartu zen Aieten ere. Gainera, zenbait erakusketa eta marrazki-lehiaketa izan ziren, hala nola Harry Potter unibertsoari eskainia, **Nire animalia fantastikoa**, zeina **Literaktum Txiki**aren barruan egin baitzen.

Aieteko ikastaroetan, **500 ikaslek** baino gehiagok hartu zuten parte (% 82, emakumeak) honako arloetan: arte plastikoak, dantza, musika-tresnak, autoezagutza, osasuna eta humanitateak. Autore-ikastaroen sailean, Aietek ahalegin berezia egiten du urtero eskaintza zabaltzeko. 2020-2021 aldian, sinaduradun ikastaroek askotariko gaiak jorratu zituzten, hala nola vikingoak, greziar mitologia, karlistadak, ilustrazioa ardatz zuten ikastaroak (**Aitziber Alonso** eta **Maite Gurrutzagaren** eskutik), edota **Coaching, reinventa tu vida, Azucena Vega** zuzendaritza-garapeneko adituaren eskutik.

2021a ez zen urte erraza izan **Haurtxokoa** eta **Gaztelekuarentzat**. Protokoloak pandemiaren fase bakoitzera egokitu ziren, eta, pixkanaka, hartara jarri beharra izan genuen. Lehen aldiz ikasturtean, Haurtxokoak eta Gaztelekuak otsailean ireki zituzten ateak. Berritasuna izan zen ezen udan Haurtxokoak hamabost eguneko udalekuak eskaini zituela, arrakasta handiz eskaini ere. Eta irailean, berriz, zerbitzuek hasiera eman zioten 2021-2022 ikasturteari, osasun-arauetara egokituta eta normaltasunera itzuliz pixkanaka. Familiek asko eskertu zuten hori.

Kultur Etxeak auzoarekin eta hiriarekin duen lotura estuaren adierazle izan zen **Lantxabe** elkartearekin izandako lankidetzaz hain emankorra gertatzea, hileroko hitzorduan autore-zinea eta literatura ekarri baitzituen kultur etxera. Bestalde, Aiete izan zen **ACEX-Eske** unibertsitateko esperientziaren geletako adindun taldeak eta Helduen Hitza elkarteak antolatutako ikastaroen egoitza nagusietako bat. Hizlari eta gai interesgarrienak izan genituen Aieten.

JARDUERAK

12

Antzerki (emanaldiak)
832 erabiltzaileak

0

Dantza (emanaldiak)
0 erabiltzaileak

4

Musika (kontzertuak)
162 erabiltzaileak

84

Zine (emanaldiak)
1.174 erabiltzaileak

16

Hitzaldiak eta mahai inguruak
764 erabiltzaileak

15

Erakusketak
8.129 erabiltzaileak

66

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
1.300 erabiltzaileak

21

Liburutegiko jarduerak
167 erabiltzaileak

0

Plus 55
0 erabiltzaileak

66

Gaztelekua
875 erabiltzaileak

156

Haurtxokoa
2.217 erabiltzaileak

6

Bestelakoak
48 erabiltzaileak

Guztira

446

Jarduerak

15.668
erabiltzaileak

ZERBITZUAK

41.581

bisitaldiak
Liburutegia

0

bisitaldiak
Ikasgela

847

bisitaldiak
Gaztelekua

1.717

bisitaldiak
Haurtxokoa

0

bisitaldiak
Kzgunea (Nabigazioak)

0

bisitaldiak
Altzako bilduma

0

bisitaldiak
Altzako bilduma web

0

bisitaldiak
DK Irratia web

0

bisitaldiak
Ispilu beltza magazine-podcast

0

bisitaldiak
Bideo tailerra

0

bisitaldiak
Musikagela

0

bisitaldiak
Musika Eskola

0

bisitaldiak
Plus 55

Guztira

44.145

BISITALDIAK

PRESTAKUNTZA

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak	Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	89	41	518	425	0
2020-2021 IKASTAROAK	40	15	190	169	0
Ikasturte osokoak (2020ko urria - 2021eko maiatza)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	1	1	9	9	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Bigarren lauhilabetekoak (2021eko otsailean hasita)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	1	1	12	12	0
Gaztelaniaz	1	1	20	17	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	19	2	26	26	0
Gaztelaniaz	18	10	123	105	0
2021-2022 IKASTAROAK	49	26	328	256	0
Ikasturte osokoak (urria - abendua 2021)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	4	3	34	21	0
Gaztelaniaz	4	4	57	39	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	21	5	58	48	0
Gaztelaniaz	20	14	179	148	0
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK
Guztira 62.713

2

0

DK

CASARES /
TOMASENE -
LARRATXO
Kultur Etxeak

2

1



Altza Apain

CASARES / TOMASENE

Kultur Etxeak



Altzako Udala- Erakusketa

Kultur jardueren itzulerak markatu zuen 2021. urtea. Jarduna aktiboa eta parte hartze handikoa gertatu zen, nahiz eta urtearen lehen erdian edukiera aldetik mugak izan.

Proiektu asko **berreskuratu eta kultur etxean bertan egin ahal izan ziren**: arte eszenikoetako eta musika-saioak, irakurketa sustatzea, kultur jardunaldiak, kultur etxeko aretoak lagatzea inguruko erakunde eta elkarteei zerbitzua emateko, eta abar.

Urteko jarduerarik nabarmenena, ezbairik gabe, **Altza Apain** izan zen. Donostia Kulturaren *Donostia Apain* programaren ekinbide bat, zeinaren eginkizuna artearen bidez hiriko auzoei balioa ematea dena eta iraila eta urria artean burutu zena. Gizarte- eta hiri-interesa zuten lekuetan jarduten saiatu ginen, agerikoak edo oso ezagunak zirenetan: kaleko horma pribatu zein publikoak, mehelinak, plazak edo topaguneak, eskailerak, arranak, igogailuak, eta abar.

Auzoak artistei emandako erantzuna aintzat hartzeko modukoa izan zen, eta emaitza oso ona, hala partaide kopuruaren aldetik nola parte hartzearenetik. Emaitza sei muralista ezagunen parte-hartzea izan zen: **Maite Gurrutxaga, Maite Rosende, Alaia Gaztelumendi, Diana Vasina, Mikel Larrañaga Remak** eta **Jokin Sortwo**, zeinei graffitigile anonimoen beste parte-hartze bat erantsi baitzitzaien.

ALTZAKO TOKIKO BILDUMA

Altzako Tokiko Bildumak 19.932 dokumentu ditu katalogatuak (horietatik 1.050, 2021ean katalogatu ziren), eta horietatik 16.369, berriz, webgunetik bertatik kontsulta daitezke. Dokumentu-bilaketa aldi historiko jakin batzuetan (Gerra Zibiletik hona) eta euskarri grafikoetan egiten da: lurraldearen dokumentazio historikoak, irudiak eta ikus-entzunezko lekukotzak, besteak beste.

Bildumak gero eta zabalkunde handiagoa du urtetik urtera, eta gero eta ezagunagoa da. Funtzaren bisitari digitalak ere gero eta gehiago dira urtero. 2021ean, 4.647 lagunek bisitatu zituzten funtsak online plataformaren bidez (aurreko urtean baino % 29,3 gehiago), eta guztira 79.645 kontsulta egin ziren (iturria: Google Analytics).

Gainera, bildumak bi erakusketatan hartu zuen parte. Bat Bidebieta auzoari buruzkoa, Garbera Merkatalgunean, eta bestea udako jaiei buruzkoa, Tomasenen. Biek izan zituzten bisitari ugari.



IRRATIA, CASARESKO IZARRA

2021ean, Donostia Kultura Irratiak bere izaerari eutsi zion, programazioa eta zerbitzuak indartuz kulturzale guztientzat eta bereziki gure irratia zaleentzat. **Ispilu Beltza** programak, **Oier Aranzabal** eta **Cristina Tapia** aurkezle, kultura eta gaurkotasuna ditu ardatz nagusi. Sendotuz joan da, eta gure irratia kultur leihotzat eta gure hiriaren ezaugarritzat daukaten herritarrak informatuz.

Orobat, **Donostia Kultura Irratiaren** webguneak bere programen podcastak partekatu zituen audio-plataforma nagusien bitartez, bai eta Donostia Kulturaren grabazio asko ere, edozein erabiltzailearen eskura jarriz nahierara goza ditzan.

Bestalde, ikastaroen eskaintza irratirako irrika duten pertsoneri erantzuten saiatu zen, nola eta **Forki** eta **Sergio Errastiren** irratiki-ikastaro baten bitartez, zeinean lokuzio-teknikak, gidoiak, alderdi teknikoak eta abar landu baitzituzten.

Beste ikastaro batzuek ere harrera ona izan zuten: **Ahotsarekin jolasean**, **Maidar Gorostegik** emana, eta **Radio-teatro**, **Inko Martinek**.

Hamaika Entzuteko! Irrati Piezen VI. Lehiaketaren sari-banaketan, saritutako lanak jakinarazteaz gainera, zuzenean gozatu ahal izan zen irratiantzerkiak, **Borobil Antzerkiaren Futuro in Txerto** lana eman baitzuten **Asier Sota** eta **Anartz Zuazua** aktoreek.

Donostia Kultura irratiak Casares-Tomasene Kultur Etxetik emititzen du, FM 107.4 sintonian, eta badago entzuterik donostiakultura.eus url-ean ere.



JARDUERAK

8

Antzerki (emanaldiak)
773 erabiltzaileak

9

Zine (emanaldiak)
244 erabiltzaileak

174

Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak
3.005 erabiltzaileak

0

Gaztelekua
0 erabiltzaileak

3

Dantza (emanaldiak)
57 erabiltzaileak

12

Hitzaldiak eta
mahai inguruak
350 erabiltzaileak

131

Liburutegiko
jarduerak
2.317 erabiltzaileak

0

Haurtxokoa
0 erabiltzaileak

1

Musika (kontzertuak)
275 erabiltzaileak

5

Erakusketak
8.625 erabiltzaileak

525

Plus 55
46 erabiltzaileak

0

Bestelakoak
0 erabiltzaileak

Guztira

868

Jarduerak

15.692
erabiltzaileak

ZERBITZUAK

46.559

bisitaldiak
Liburutegia

0

bisitaldiak
Haurtxokoa

79.545

bisitaldiak
Altzako bilduma web

0

bisitaldiak
Bideo tailerra

0

bisitaldiak
Ikasgela

1.223

bisitaldiak
Kzgunea
(Nabigazioak)

12.053

bisitaldiak
DK Irratia web

0

bisitaldiak
Musikagela

0

bisitaldiak
Gaztelekua

282

bisitaldiak
Altzako bilduma

2.851

bisitaldiak
Ispilu beltza
magazine-podcast

2.826

bisitaldiak
Musika Eskola

Guztira

145.431

BISITALDIAK

92

bisitaldiak
Plus 55

PRESTAKUNTZA

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak	Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	135	283	1.499	1.111	388
2020-2021 IKASTAROAK	37	21	225	172	53
Ikasturte osokoak (urtarrila - otsaila 2021)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	2	2	16	14	2
Gaztelaniaz	3	3	28	20	8
Bigarren lauhilabetekoak (2021eko otsailean hasita)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	1	1	9	6	3
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	17	4	32	24	8
Gaztelaniaz	13	11	140	108	32
2021-2022 IKASTAROAK	61	25	307	249	58
Ikasturte osokoak (urria - abendua 2021)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	3	0	0	0	0
Gaztelaniaz	5	1	10	6	4
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	29	9	84	70	14
Gaztelaniaz	24	15	213	173	40
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	37	27	122	81	41
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	245	210	845	609	236

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK

Guztira 72.699

CASARES K. E.: 26.140 / TOMASENE K. E.: 46.559

LARRATXO Kultur Etxea

Larratxo Kultur Etxean, haurrentzako antzerkiaren eskaintza nabarmendu behar da, arrakasta handia izan baitzuten antzezlanek urte osoan, eta maila handiko antzerki taldeek hartu baitzuten parte; besteak beste, **Borobil, Eidabe, Markeliñe, Ganso y Cíak**, zeinek auzoko familientzako kultur jardueretan parte hartzea bultzatu baitzuten.





Heavy jaia

Udan, kaleko antzerkia eskaini zen era guztietako ikus-entzuleentzat; **Trapu Zaharra** eta **Zirika Zirkusen** lanekin, besteak beste, zeinek argi utzi baitzuten jendearen gogoak kaleko kultur gertaeretan parte hartzeko.



Musikaren arloan, **Heavy Jaian** parte hartu zuten taldeek –**Zenobia** eta **Grendel**– eta **Heaven Musik Festivalean** –**Jose Andrëa Uroboros**– eta **Zombie Jaialdian** –**Vhãldemar +Blast Wave+Leyenda+Delion**– parte hartu zutenek Larratxo bete zuten. Aretoak edukiera-murrizpenetara eta segurtasun-neurrietara egokitu ziren, eta frogatu zen musika-kultura segurua izan daitekeela, eta ikus-entzuleek jarraipena eskatzen dutela.

Plus 55 programak kultura- eta hezkuntza-jarduerak eskaini zizkien 2021ean ere nagusiei. Nabarmentzekoak, sakelakoaren eta bideoforum ikastaroak. Zerbitzua ordeztzen duen pertsonen kolektiboaren eskariari erantzuten saiatu zen, eta aholkularitza- eta laguntza-zerbitzua ere eman zien motibazioa eta parte hartzeko gogoak zuten guztiei.

Prestakuntzarako eskaintzak, iraupen desberdineko ikastaroen bitartez, bere betekizuna izan zuen 2021ean ere: arlo sorta zabala eskaintzea herritarrei, bai eta topaguneak eta parte hartzeko lekuak ere. Kultur Etxeko aretoak premia berrietara egokitu baziren ere, lantegietan parte hartu zutenen kopurua handia izan zen; erantzun miresgarria eta positiboa.

Gizarteari interesatzen zaizkion gaiak, hala nola ingurumena, genero-berdintasuna edo hezkuntza, ardatz izan ziren Altzako elkarte eta erakundeekin batera antolaturiko jardueren zenbait ziklotan. Hala **Emakumeen Astea** nola **Hezkuntza Jardunaldiak** arrakasta handikoak izan ziren parte hartzeari, interesari eta bildutako jendetzari dagokienez.



Master class - Zigor García



Semana de las Mujeres - Anarkia relacional

Nabarmentzekoak udan haurrentzat egin ziren zeramika, arte eta musika lantegiak, auzoan kultur motibazioa eta bertako bizitza bultzatzeko. Bestalde, arrakasta itzela izan zuen *Cristina Enea Fundazioarekin* batera egindako **Mezu sekretuaren bila** proiektuak. Proiektu horren xedea auzoaren historia eta tipologia aintzat hartzea zen, beste ikuspuntu batetik ezagutarazteko: jolasarenetik, hain zuzen ere. Azpimarratzekoa, halaber, auzoko familia askok parte hartu izana.

XX. Bertso Aroak indar berezia izan zuen, urte osoan zehar antolatu baitziren bertsoaren inguruko ekitaldiak. Ikus-entzule mota



desberdinentzat izan ziren, bai helduentzat eta bai haurrentzat. Nabarmentzekoak, besteak beste, **Manex** eta **Eli Pagolaren Kontzertu bat bertsotan**; **Bertso Jaialdia**, **Aroa Arrizubieta**, **Andoni Egaña**, **Uxue Alberdi** eta **Joanes Illarregirekin**; **Bertsoaren Harria**, **Koldo Izagirre**, **Maialen Lujambio** eta **Beñat Gaztelumendirekin**; **Koplariak Koplari**, **Xabier Amuriza** eta **Agus Barandiaranekin**. Jendeak ondo erantzun zuen, erakutsiz Altxako auzoak gero eta gehiago estimatzen duela bertsoa.

Bi liburutegietan, irakurketa bultzatzearen eta jarduera parte-hartzaileen aldeko apustua egin zen berriz ere. Biek eutsi zioten maileguzerbitzuari, bereziki beharrezkoa 2021ean. Erabiltzaileen kopuruak berresten du liburutegiak erreferente direla auzoko bizitzan eta dinamikan.

Amaitzean, nahitaezkoa da eskerrak ematea kultur etxe hauetan kultur programazioa garatzen parte hartu zuten erakunde eta elkarte guztiei. Gure instalazioak erabiliz erakutsi duten konfiantzak eta jarduerak antolatzen izan duten jarraipenak eta inplikazioak lagundu egin dute kultur etxeek auzoko kultur dinamizazioan ardatz izaten jarrai zezaten.



Bertso Aroa - Bertso Jaialdia

JARDUERAK

8

Antzerki (emanaldiak)
773 erabiltzaileak

0

Zine (emanaldiak)
0 erabiltzaileak

65

Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak
903 erabiltzaileak

0

Gaztelekua
0 erabiltzaileak

1

Dantza (emanaldiak)
120 erabiltzaileak

4

Hitzaldiak eta
mahai inguruak
249 erabiltzaileak

8

Liburutegiko
jarduerak
224 erabiltzaileak

0

Haurtxokoa
0 erabiltzaileak

3

Musika (kontzertuak)
545 erabiltzaileak

0

Erakusketak
0 erabiltzaileak

0

Plus 55
0 erabiltzaileak

0

Bestelakoak
0 erabiltzaileak

Guztira

89

Jarduerak

2.814
erabiltzaileak

ZERBITZUAK

11.966

bisitaldiak
Liburutegia

0

bisitaldiak
Haurtxokoa

0

bisitaldiak
Altzako bilduma web

0

bisitaldiak
Bideo tailerra

0

bisitaldiak
Ikasgela

0

bisitaldiak
Kzgunea
(Nabigazioak)

0

bisitaldiak
DK Irratia web

0

bisitaldiak
Musikagela

0

bisitaldiak
Gaztelekua

0

bisitaldiak
Altzako bilduma

0

bisitaldiak
Ispilu beltza
magazine-podcast

0

bisitaldiak
Musika Eskola

Guztira

11.966

BISITALDIAK

0

bisitaldiak
Plus 55

PRESTAKUNTZA

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak	Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	26	6	101	93	8
2020-2021 IKASTAROAK	14	3	46	42	4
Ikasturte osokoak (urtarrila - otsaila 2021)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Bigarren lauhilabetekoak (2021eko otsailean hasita)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	8	0	0	0	0
Gaztelaniaz	6	3	46	42	4
2021-2022 IKASTAROAK	12	3	55	51	4
Ikasturte osokoak (urria - abendua 2021)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	6	1	8	7	1
Gaztelaniaz	6	2	47	44	3
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK

Guztira 20.983

LARRATXO LIBURUTEGIA: 11.966 / LARRATXO K. E.: 9.017

2

0

DK

EGIA
Kultur
Etxea

2

1



EGIA Kultur Etxea

2021ean, pixkanaka, Kultur Etxearen dinamika berreskuratuz joan ginen. Edukiera murriztuek eta protokolo-neurriek behartu gintuzten aribide jakin batean jardutera, zeinak nabarmen zaildu baitzuen gure jarduera eta zerbitzuak nahi bezala eskaintzea. Hala ere, ahal zen neurrian, eta Kultur Etxeko langileen, erabiltzaileen eta elkarten ahaleginari esker, topaguneak sortu ziren, eta hala lortu zen urtearen azken aldera jarduera eta zerbitzuen eskaintza ia osorik bere onera etortzea.



Giza liburutegia

Liburutegiak, beste urte batez, komunitatea sortzen eta sustengatzen jarraitu zuen. Ohiko zerbitzu guztiak berreskuratu zituen: mailegua, egunkariak, aldizkariak, Internet, informazioa, bisita gidatuak, eta abar, eta oso ondo erantzun zioten erabiltzaileek.

Bestalde, haur eta helduentzako jarduerak antolatzen jarraitu genuen: **Liburu Baby Kluba**, **Zeu irakurle gu kontalari**, **Literatur solasaldiak**, edota **Irakurketa erraza** eta **Plus55** irakurketa-taldeak, zeinetan bizitasun handiz eta gogotsu parte hartu baitzuten irakurzaleek.

Jarduera bereziak ere eskaini genituen, hala nola **Giza Liburutegia** eta idazleen aurkezpenak, zeinetara irakurleak erruz etorri baitziren, bai eta atseginez parte hartu ere. Besteak beste, **Aseel Luzarraga**, **Itziar Madina** eta **Asisko Urmenetaren** aurkezpenak nabarmendu ziren, eta modu berezian **Giza Liburutegia**, urtetik urtera gero eta harrera hobea duen jarduera bat.

Literatur tailerraren azken eguna ospatzeko, Egiako Liburutegiak, Musikagelak eta Plus55 zerbitzuak musika-irakurraldia eskaini zuten, non **Iñaki Miguel** musikariak eta tailerreko zenbait lagunek hartu baitzuten parte. Pianoak lagun egin ziren garai eta egile desberdinen zati eta testu erotikoen irakurketei. **Julio Cortázar**en *Rayuela*, **Pablo Neruda**ren *En ti la tierra*, **Anaïs Nin**en *Delta de Venus*, **Marguerite Duras**en *El amante*, **Anchee Min**-en *Azalea roja*, **Choderlos de Laclos**en *Las amistades peligrosas*, eta **Santa Teresa de Ávila**ren *Mi amado para mí*.

Plus 55ek, zerbitzu garrantzitsua eta oso eskatua, ez zuen etenik izan 55 urtetik gorako pertsonen arreta eskaintzen. Azpimarratzekoa zein harrera ona izan duten mugikorra erabiltzeko edo ahalduz digitalerako lantegiak, bai eta Internet erabiltzeko aholkularitzak ere, bereziki senideekin eta lagunekin harremanetan jartzeko. **Ondoko, Mafalda Saloiok** ematen duen dantza-antzerkiko tailerra, eta **Igor Calonge** koreografoak ematen duen dantza garaikideko tailerra martxan jarri ziren berriz ere, eta oso harrera ona egin zieten erabiltzaileek, bai eta oso aintzat hartu ere. Biziki interesgarriak gertatu ziren zenbait gairen inguruko hitzaldiak eta Giza Liburutegia. Nabarmentzekoa **Ondoko** proiektuaren dokumentala jendearentzat modu irekian eman izana, tailerrean parte hartu zutenek egin eta protagonizatu.



Plus 55



DANTZA

Emanaldiei, sorkuntzari eta sentsibilizazioari babesa ematea funtsezko helburua da. Nabarmentzekoak dira euskal konpainiek egiten dituzten egonaldiak: lanerako aretoak eskaintzen zaizkie, eta lagundu egiten zaie sorkuntza-prozesuan, alderdi teknikoan eta beren proposamenen estreinaldietan. **Oihana Varelak - Camínate Proiektua-**, **Ez** proiektu diziplinartekoa aurkeztu zuen. **Dantzaz Konpainiak**, **Gil Harush** koreografoak gidatutako dantzari gaztez osatuta, **Gatza**. **Myriam Cazabonek**, berriz, **Neria(Ha) Hari** proiektuan, proposamen experimental eta eraldagarria eskaini zuen, **Hiru(3)**, oso inprobisazio-lan interesgarria. **Igor Calongek**, bere aldetik, lan koreografiko ezin ederragoa, **Hamaika** izeneko ikuskizun indartsua. **Eduardo Guerrero**ren

flamenko garaikideak harritu egin gintuen **Sombra efímera** lanean. **La intrusak**, Espainiako Dantza Sari Nazionala 2015ean, arte-esperientzia baten bidez komunitate bat sortzea proposatu zuen **Prusik** ikuskizun zirraragarrian. **Adriana Bilbao** dantzari eta koreografoak Éclat aurkeztu zuen, modaren eta siluetaren historia, musikaren eta dantzaren bidez kontaturiko gertaera historikoen sorta bat. **Haatik**ek harritu egin gintuen **Errimak bi oinetan** ikuskizunean, zeinaren berezitasuna bertsolaritzako forma eta ariketak dantzara eramatea baitzen, gogoetak eskainiz gaur egungo auziez eta mugimendua emanez bertso zahar eta berriei. Eta, azkenik, **Thomas Noone** koreografo eta pedagogoak, bere estilo fisiko eta keinuzkoari leial, solo bat eskaini zuen, **After the party**.



Eduardo Guerrero - Sombra efímera



Axut! - Amua

ANTZERKIA

Euskaraz ari diren antzerki-konpainiei emandako laguntza da azken urteotan eskainitako programazioaren oinarria. Nabarmentzekoa ikus-entzule berriak sortzeko eginkizun garrantzitsua, batez ere gazteak, zeinek eutsi egin baitzioten eskaintzari.

Artedrama-Huts Teatroa taldeak, **Atzerrian lurra garratz** antzezlanean, galdera hauek pausatu zituen: ba al dago sustraitzerik gurea ez den lur batean? Ba al dago, familia eta aberria zama ditugula, geure hegaldiari ekitea? Eta gau batez gure biziaren nondik norakoa erabaki beharko bagenu? **Barrexerka** donostiar konpainia gazteak **Ez etorri!** estreinatu zuen, josteta eta gaztetasuna bete-betea agertokian. **Benetan Bek** **Porno vs Afrodita** eszenaratu zuen, gazteentzako eta hain gazte ez direnentzako komedia bat, non sexu- eta afektuen heziketaz jardun baitzuten, zuzeneko musikarekin. **Axut!**ek **Amua** komedia politiko sentimentala aurkeztu zigun, **Maite Larburuk** musika zuzenean jotzen zuelarik, aktore-lanetan aritzeaz gainera. Eta programazioa ixteko, **La Dramática** **Errantek Altsasu** proposatu zigun, Momotxororen irudia abiapuntu zuela, hots, Altsasuko inauterietako pertsonaia ezagunenetako bat, azken urteetako auzi judicial eztabaidatuenetako batean barrentzeko.

Poesiak eta musikak bat egin zuten errezitaldi-kontzertu eder-eder batean, **Puy Barral** (ahotsa) eta **Manu Gaigne** (bateria eta perkusioa) bikotearen eskutik.

Maite Larburuk **Krak** aurkeztu zuen, bakarkako bigarren diskoa. **Axut!** antzerki-kolektiboaren **Amua** lanerako idatzitako doinuen bilduma.



Maite Larburu - Krak



Gorakada - Literaktum (Argazkia: Iñaki Rubio)

Haurrentzako antzerkian, konpainia ezagunak izan genituen: **Gorakadak** *Pinocchio*ren bere bertsioa eskaini zuen; **Markeliñek**, *Robinson Crusoe* klasikoaren egokitzapen bikain bat; **Literaktumen** programazioaren barruan, **Gorakada** konpainiaren *Zuhaitzak landatzen zituen gizona* eman zen, **Jean Gionoren** lanean oinarritua, natura ulertzetik kontatua, gizakiaren sormenetik eta xehetasunekiko maitasunetik. Azkenik, **Logela** **multimedia**ren *Tartalo gaztaren sekretuaz* gozatzeko aukera izan genuen, artzain erraldoi baten elezahar fantasiazkoaz, zeina gazta preziatu bat egiteko sekretuaren jabe baitzen.

Nabarmentzekoa Aitor Ikastolaren **Antzerki Astea** eta **Gazte Antzerki Topaketak** berreskuratu zirela, eta aukera izan zela gazteenak ikusteko beren lanak Gazteszenan aurkezten eta ikus-entzuleen berotasuna eta txalo-zartak jasotzen.



Gorakada- Pinocchio



Zurriola Ikastola - Ander edo

Arte eszenikoen arloan, aipagarria da **Teatro Estudiori** egin zitzaion omenaldia, ondo merezia eta hunkigarria. Konpainiak **Baile de huesos** antzeztu zuen Gazteszenan, ikus-entzuleekin sari bat ospatzeko eta partekatzeko: 2021eko amateurrentzako Izaera Sozialeko Max saria. Konpainia hau 1965ean sortu zen, eta hona hemen zer esan zuen **Manolo Gómezek**, konpainiaren zuzendariak:

*“Ustekabearen ondoren,
bide bati adierazi zaion
esker onaren eta egin zaion
aitortzaren sentimendua dator,
auzoko antzerkizale batzuek,
gure gizarte- eta kultur kezkei
bide emateko xedez, oso
gazterik hasi genuen bideari,
noiz eta, diktaduraren azken
aldera, komunitate sentitzeko,
elkartzeko eta auzolanerako
giroa bor-bor zegoen garaian.”*

2021ean oso garrantzitsua izan zen kaleko programazioa, espazio hori berreskuratu baitzen dantza- eta antzerki-eskaintza egiteko. Hiritarren erantzuna guztiz interesgarria izan zen, eta eskainitako ikuskizunek benetan harrera ona izan zuten. **Trapu Zaharrak** umorea jarri zuen **Beti prest**, lanarekin, **Dantzaz Konpainia** gazteak **Basoa** taularatu zuen. **Chey Jurado & Akira Yoshidak**, hip hop-eko bi dantzari zoragarrik, gozamina ekarri zuten **Hito** lanaren bidez, eta **Larutan Danzak** duo indartsua aurkeztu zuen **Out of the Blue** lanean.



Puy Barral - Baile de huesos

MUSIKAGELA

2021a urte gogorra izan zen sortzaileentzat. Izan ere, beren lanak zuzenean erakusteko aukera faltak ahanztura ekarri zien, eta martxan zituzten proiektuak geldiaraztera behartu zituen. 66 bandak erabili zituzten saio-probetarako aretoak.

Egoera horretaz oharturik, eta saio-aretoetara etortzen diren musika-taldeekin koordinaturik betiere, **Musikagelatik** eginahalak egin genituen gutxienez promozio-materiala baldintzarik onenetan izan zezaten, lekuak eta ekipamenduak lagaz audio-grabazioak eta bideoklipak egiteko edo zuzenekoen prestaketarako.

Besteak beste, *Dock of the bay & Super Amara* promozio-bideoaren grabazioa **Las Penas** taldearekin, edota **Rumbling Lipsen** *Is this Love?* bideokliparena. Orobat, **Rock Salad** bandaren eta **Aphaxia** taldearen maketak grabatu ziren, bai eta **2Raka Music** (Dj AndoL eta Dj Iru) plataformako musika elektronikoa.



JARDUERAK

31

Antzerki (emanaldiak)
4.489 erabiltzaileak

11

Zine (emanaldiak)
241 erabiltzaileak

212

**Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak**
1.896 erabiltzaileak

75

Gaztelekua
455 erabiltzaileak

18

Dantza (emanaldiak)
2.441 erabiltzaileak

10

**Hitzaldiak eta
mahai inguruak**
171 erabiltzaileak

124

**Liburutegiko
jarduerak**
1.110 erabiltzaileak

0

Haurtxokoa
0 erabiltzaileak

1

Musika (kontzertuak)
112 erabiltzaileak

2

Erakusketak
1.922 erabiltzaileak

12

Plus 55
1.192 erabiltzaileak

44

Bestelakoak (Montajes - ensayos)
484 erabiltzaileak

Guztira

540

Jarduerak

14.513
erabiltzaileak

ZERBITZUAK

11.668

bisitaldiak
Liburutegia

0

bisitaldiak
Haurtxokoa

0

bisitaldiak
Altzako bilduma web

0

bisitaldiak
Bideo tailerra

1.230

bisitaldiak
Ikasgela

2.217

bisitaldiak
**Kzgunea
(Nabigazioak)**

0

bisitaldiak
DK Irratia web

1.512

bisitaldiak
Musikagela

1.851

bisitaldiak
Gaztelekua

0

bisitaldiak
Altzako bilduma

0

bisitaldiak
**Ispilu beltza
magazine-podcast**

0

bisitaldiak
Musika Eskola

Guztira

18.795

BISITALDIAK

317

bisitaldiak
Plus 55

PRESTAKUNTZA

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak	Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	129	366	2.453	1.917	536
2020-2021 IKASTAROAK	37	31	354	318	36
Ikasturte osokoak (2020ko urria - 2021eko maiatza / ekaina)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	19	13	141	128	13
Gaztelaniaz	18	18	213	190	23
Bigarren lauhilabetekoak (2021eko otsailean hasita)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
2021-2022 IKASTAROAK	44	32	419	373	46
Ikasturte osokoak (urria - abendua 2021)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	25	15	194	174	20
Gaztelaniaz	19	17	225	199	26
IKASTARO PUNTUALAK	6	3	23	6	18
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	2	1	6	3	3
Gaztelaniaz	4	2	17	2	15
KZgunea IKASTAROAK	42	36	135	85	50
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	299	264	1.522	1.136	386

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK
Guztira 68.533

2

0

DK

ERNEST
LLUCH
Kultur
Etxea

2

1

ESPACIO SIN



ERNEST LLUCH

Kultur Etxea

2021a oso urte garrantzitsua izan zen **Ernest Lluch Kultur Etxe**arentzat. Hiru urte luzez bere zerbitzu eta programak eskaini ezinik egon eta gero, lehenik Anoetako Estadioaren eraberritzea zela-eta, eta ondoren Covid-19aren osasun-krisiagatik, Kultur Etxea ia osorik itzuli zen bere jardunera, programazio agian osoenaren bidez itzuli ere, orain arte zenbait arlotan izandako daturik onenak jasoz, eta berriz ere agerian jarritz kulturagune garrantzitsua dela Donostian.

Adibide gisa, nabarmendu daiteke markak hautsi zituela eskainitako ikastaroetan izena eman duten ikasleen kopuruak, batez ere autore-ikastaroen eskaintzan, non buru izan baitziren literaturari eta nazioarteko egungo egoerari eskainitakoak. Erakusketak dira 2021ean nabarmendu ziren beste sail bat. Den-denak izan dira geuk ekoitziak, artistekin berekin eta komisarioekin batera garatutako proiektuak.

Ezbairik gabe, asmo handienekoa –eta baita hungigarriena ere– **Rafael Berrio** musikariaren inguruan antolatutakoa izan zen, 2020ko martxoan zendu baitzen. Pandemiak eragotzi egin zuen orduan donostiar artista jenial horrek merezi zituen omenaldiak egitea, baina lagun eta miresleek modurik ederrenean gogoratu zuten hurrengo urtean. **Estudio Lanzagortak** egin zituen komisario-lanak, eta **Harkaitz Canok** gidoia. Erakusketa modu originalean barrendu zen Berrioren nortasun konplexuaren ertz askotarikoetan, eta haren sorkuntza-prozesu berezia berreraiki zuen.

Erakusketarekin batera, solasaldi eta proiektzioen ziklo ahal handiko bat, **Sergio Cruzadok** koordinatua, zeinean musikari eta letragilearen obra eta nortasuna ondoen ezagutzen zituzten askok hartu baitzuten parte. Tartean, “Rafaren lagunek” eskainitako kontzertua, non aritu baitziren, besteak beste, **Havoc, Ama, Basmatti, Deriva** edo **Infame**, eta non agerian geratu baitzen, bidenabar, **Ernest Lluch Kultur Etxeko** aretoa oso aukerakoa dela kontzertuetarako.



Rafael Berrio - Kontzertua



Ernesto Valverde eta David Trueba - Beste aldea Erakusketa

Ernesto Valverde futbolari ohi bat da, baita lehen mailako entrenatzailea ere, baina, horrez gainera, argazkilari interesgarria ere bada. **Real Sociedadek** antolatzen duen **Korner** kultura eta futbol jaialdiaren eskutik, **Ernest Lluch Kultur Etxeak** **Beste aldea** hartu zuen, **Valverderen** bakarkako lehen erakusketa. Egileak solasean jardun zuen erakusketaz eta bere argazkilari-lanaz **David Trueba** zuzendari eta idazlearekin.

Eta ezin aipatu gabe utzi beste erakusketa oso berezi bat, euskal zinematografian mugarri gertatu den film baten 40. urteurrenari eskainia: **Segoviako ihesa. Ihes baten historia. Euskal Produktoreen Elkarateak** eta **Donostia Kulturak** antolatu zuten, eta Euskadiko Filmategiak ere hartu zuen parte. **Jesus Uriarteren** hogeita hamar bat argazki bildu zituen, zeinean egileak filmaren errodajea jasotzen baitzuen. Zinea baino askoz gehiago, gure historiaren une bereziki nahasi batean. Argazkiez gainera, erakusketan errodajeko zenbait objektu ere egon ziren ikusgai, bai eta testuak eta artxiboko irudiak ere.

Erakusketa inauguratzeko, solasaldia izan zen honako hauen artean: **Imanol Uribe** filmaren zuzendaria, **Angel Amigo** ekoizlea eta gidogileetako bat, eta **Amaia Zubiria** musikari eta konpositorea..



Beste aldea Erakusketa



Elena Medel

Beste urte batez, literatura eta eztabaida garaikidea izan ziren programazio-lerro nagusia, eta ezin azpimarratu gabe utzi gonbidatuen kopurua eta kalitatea; haietako asko, kultur urteko berri nabarmenenen protagonistak. **Sara Mesa, Elena Medel, Lucía Baskaran, Jesús Carrasco, Elisabeth Duval, Luna Miguel, César Rendueles, Katixa Agirre, Fernando Aramburu** edota Booktegiko jarduera kolektiboek liburuak eta eztabaida garrantzitsuak ekarri zituzten Kultur Etxera, eta audioak entzungai daude DK Irratiaren podcastetan.



Sara Mesa



Elisabeth Duval



Alfabeto ikusezina - Erakusketa

Poesialdia eta **Literaktum** izan ziren beste bi une frogatzeko ezen **Ernest Lluch Kultur Etxea** dela, ziur aski, erreferentziazko donostiar gunea literaturari dagokionez. Martxoan, **Donostiako Poesiaren Astea** egin zen, eta bertan bi autore entzutetsuk hartu zuten parte, **Itxaro Bordak** eta **Luis García Monterok**, eta **Literaktumen**, Donostiak azaroan ospatu ohi duen literatur jai handian, gure Kultur Etxea izan zen gunea nagusietako bat, eta bertatik pasatu ziren honako gonbidatu hauek: **Luis Landero**, **Borja Ortiz de Gondra** eta **Eider Rodriguez**, bai eta **Lauki Makala** arte-instalazioa edota **Allan Daastrupen** **Alfabeto ikusezina** erakusketa ere.

Urteko literatur programazioa ixteko, Kultur Etxeak literatur modernitateko hiru egile funtsezkoen jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatu zuen, **Dostoievski**, **Flaubert** eta **Baudelaire**; eta **Dante** ere gehitu zitzairen, 700 urte bete baitziren **Jainkozko Komedian** egilea hil zela.

Horri guztiari gehitu behar zaizkio liburutegiak urtean zehar burutu zituen programak, hala nola literatur solasaldiak edota irakurketa errazeko taldeak, zeinei esker liburutegi hori udal sareko dinamikoenetako bat baita.

Azken buruan, urte oso betea, **Ernest Lluch Kultur Etxea** Donostiako kultur jardunean berriz ere sartzea ekarri zuena. Horren adierazle dira Kultur Etxera etorritakoen kopurua, jardueretan izandakoena eta ikasle eta zerbitzuetako erabiltzaileena.

Luis Landero - Literaktum
(Argazkia: Iñaki Rubio)

JARDUERAK

20

Antzerki (emanaldiak)
2.898 erabiltzaileak

11

Zine (emanaldiak)
212 erabiltzaileak

239

**Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak**
1.878 erabiltzaileak

0

Gaztelekua
0 erabiltzaileak

0

Dantza (emanaldiak)
0 erabiltzaileak

27

**Hitzaldiak eta
mahai inguruak**
1.182 erabiltzaileak

156

**Liburutegiko
jarduerak**
1.375 erabiltzaileak

0

Haurtxokoa
0 erabiltzaileak

4

Musika (kontzertuak)
268 erabiltzaileak

6

Erakusketak
5.633 erabiltzaileak

71

Plus 55
2.026 erabiltzaileak

0

Bestelakoak
0 erabiltzaileak

Guztira

534

Jarduerak

**15.472
erabiltzaileak**

ZERBITZUAK

69.234

bisitaldiak
Liburutegia

2.747

bisitaldiak
Haurtxokoa

0

bisitaldiak
Altzako bilduma web

0

bisitaldiak
Bideo tailerra

0

bisitaldiak
Ikasgela

2.858

bisitaldiak
**Kzgunea
(Nabigazioak)**

0

bisitaldiak
DK Irratia web

0

bisitaldiak
Musikagela

2.000

bisitaldiak
Gaztelekua

0

bisitaldiak
Altzako bilduma

0

bisitaldiak
**Ispilu beltza
magazine-podcast**

0

bisitaldiak
Musika Eskola

Guztira

78.266

BISITALDIAK

1.427

bisitaldiak
Plus 55

PRESTAKUNTZA

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak	Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	216	218	2.359	1.761	598
2020-2021 IKASTAROAK	67	43	812	626	186
Ikasturte osokoak (2020ko urria - 2021eko maiatza)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	10	10	386	284	102
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Bigarren lauhilabetekoak (2021eko otsailean hasita)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	3	0	0	0	0
Gaztelaniaz	3	2	55	45	10
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	21	5	50	49	1
Gaztelaniaz	29	26	321	248	73
2021-2022 IKASTAROAK	72	44	1.125	855	270
Ikasturte osokoak (urria - abendua 2021)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	9	9	606	443	163
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	30	8	115	100	15
Gaztelaniaz	32	27	404	312	92
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	77	71	200	117	83
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	61	60	222	163	59

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK

Guztira 86.286

2

0



INTXAURRONDO
Kultur
Etxea

2

1

INTXAURRONDO

Kultur Etxea

Esanez gero 2021a kultur ekipamenduen dinamika erabat berreskuratu zeneko urtea izan zela, alde batera utziko genuke zein inguruabar eta testuingurutan ibili ziren herritarrak eta, beraz, haien kultur ohiturak. Bistan da ezen, pixkanaka, Kultur Etxearen taupada bizkortu egin zela berriz, eta, oro har, jarduerak auzoko eta auzoaz kanpoko pertsonak erakarri zituztela berriz, kontuan izanik egoera zein aldakorra zen, batzuetan berregokitu egin behar izaten baitziren proposamenak.

Alde horretatik, **musika-programazioa**, Intxaurrendoko programazioaren ardatza, eskaintza biziberritzearen arrazoietako bat izan zen, urtearen hasieratik nabarmendu baitzen beste jarduera batzuen artetik.

Gari inauguratu zuen urtea, **Beste bat!** ekinbidearen barruan, **Maldanbera** zuelarik telonero, eta “dena salduta” txartela jartzea lortu zuen. Horrek pentsarazi zigun garai hobeak zetozeala jendearen erantzunari zegokionez. Otsailean, harrera berdintsua egin zitzaion **Noa** eta **Hell Drinkeren** kontzertuari, eta berriro bete zen aretoa.



Gari





Impacto Vudu

Apirilean, berriz, **Musikagela Weekendi** ekin zitzaion berriro, hamaikagarren edizioa, Musikagela zerbitzutik programatua. **Mihise** taldea izan zen protagonista, eta hemengo bi talde izan zituen lagun, **Tenpera** eta **Watsuwei**.

Maiatzean, proposamen gehiago izan genituen, jaialdietakoak. **Udaberri JamRock** izenekoak, **Revolution JamRock** jaialdi eraberrituaren lehen parte, nazioarteko topaleku izan zen, *sound system* estiloan, bertan izan baitziren **Belén Natali** argentinarra, **Elsa K-Bless** iruindarra eta **BeñaRanks** donostiarra, **Revolutionary Brothers** suhar errezonekin batera. Maiatzean bertan, eta Nordikaren X. urteurrenaren barruan, **Juárez** taldeak jardun zuen, aurretik **Impacto Vudú** zuela.





Chill Mafia

Eta eskola-urtearen hasieran, berriro bete zuen aretoa Intxaurrondon ezaguna dugun norbaitek: **Twanquerok**, **Big Bog Railroad** lagun zuela. Gitarra eta amerikar erritmoak izan ziren protagonista asteburu hartan, non, gainera, musikariak *master class* bat eman baitzuen **Musikagela** zerbitzuak duen prestakuntza-eskaintzaren barruan.

Berritasunen artean, Intxaurrondok **Liher** talde donostiarra hartu zuen urrian, zeinak azken lana aurkeztu baitzuen, eta aretoan grabatu baitzuen **Nor zaren ere** kantaren bideoklipa.

Eta udazkenean jarraituz, azaroan bi proposamen izan ziren, zeinetan jendea zutik egon baitzen kontzertuetan. Lehena, **Revolution JamRocken** bigarren jardunaldia: **Beñaranks**, **Bojaman&Grompy Stile** eta, kartelburu, **Chata Flores** zaragozarra. Eta **Joseba Irazoki** beratar musikariak bere disko berria aurkeztu zuen **Lagunak** taldearekin, **///**, rockaren eta esperimentazioaren artean dabilen lana; aurrez, **Rumbling Lips** rock talde donostiarrak erritmo gordin eta psikodelikoz bete zuen aretoa.

Donostikluba Festivalari egokitu zitzaion abenduan urteari azkena ematea, aretoa mukurua beteta, **Chill Mafia** iruindar fenomenoak parte hartu izanari esker, jaialdiaren bigarren saioan. Lehen egunean, **Bengo** eta **Miren** bertako artistek berotu zituzten motorrak Chill Mafia kolektiboaren kontzertu hartarako, zeinak markak hautsi baitzituen, aurretik **Hoffe 4:40** artista aritu ondoren.

Ezin Intxaurrondo Kultur Etxeko musikari eskainitako atal hau bukatu **Musikagela** zerbitzua berriro aipatu gabe. Zerbitzu horrek erraztu egiten du bertako taldeek Donostiako eszenan parte hartzea, eta bide ematen die beren sorkuntza-proiektuetarako baliabideak eta aholkularitza izan ditzaten. 2021ean, zerbitzuak berriro hartu eta piztu ahal izan zituen proiektuak eta proposamenak, eta, alde horretatik, bi kontu nabarmendu ziren. Batetik, autoreta-ikastaroak kultur etheen prestakuntza-eskaintza orokorrean agertu izana, eta bertan bi ikastaro, berritasuna ekarri eta oso ibilbide ederra izan zutenak: **Ahotsa instrumentu gisa**, gaztelaniaz eta euskaraz, biak ere **Narrea Enkote** emanak.



Joseba Irazoki



Bestetik, saio-probetarako aretoen erabilera egonkortu egin zen abendura arte, hil horretan proiektuari aldaketa bat egin baitzitzaion, Intxaurrondoko saio-aretoak talde egoiliarrentzat utziz eta areto gehiago jarritz txandaka erabiltzeko Egian.

Kultur Etxeak Intxaurrondon duen parte hartzeaz edo lankidetzaz, zenbait lan-ildo aipatu behar dira. Batetik, gure guneak erabiltzeko eskariak ugaritu egin ziren, auzoko elkarteek eta auzotarrek bilerak egiteko edota ekinbideak bideratzeko. Nabarmentzekoak, adibidez, **Cara de Pan** kolektiboaren **Intxaurrondo Bai** proiektua, arte garaikideari buruzko topaketa batzuk, zeinak herritarren parte hartzea ekarri baitzuen; edota auzoko zenbait ikastetxeri gelak utzi izana ikasleekiko kultur jarduerak dinamizatzeko: antzerki-proposamenak, solasaldiak, proiektzioak...

2021ean, berriro izan genuen **Emakumeen Astea**, auzoko emakume-elkarteekin elkarlanean, eta antzerki-jarduerak eskaini zitzaizkien herritarrei, **Maria de Maezturen** hitzaldi bat eta **Maidar Oleaga** zine-zuzendari eta Larrotxene Bideoko ikastaroetako irakaslearen proiektio bat.

Ibiltari Astea da Intxaurrondon tradizioa duen beste programa bat. Udaberrira itzuli zen, eta, bidaietako esperientziak ardaztat hartuta, zenbait hitzaldi eman ziren. Oraingoan, **Agurtzane Belaunzaran**, **Fernando Retolaza** eta **Idoia Gastón** izan ziren bidaien mundura leiho berriak ireki zituzten gidariak.

Gainera, Kultur Etxeko guneetan egin ziren beste udal departamentu batzuen programak edo ekinbideak, hala nola **Indarkeria matxistak nerabezaroan V. Jardunaldiak** edo **Gabonak Zuretzat** programa, Gazteria Departamentuarekin batera; edota Donostiako **Ekialdeko barrutiaren** lan-saioak, zeinean parte hartzen baitu gure Kultur Etxeak.



Ibiltari astea



Zuhaitzarekin solasean - Rouge Elea



Kuiki - Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Beste erakunde batzuekiko lan-eremu horretan, 2021ean berriro jardun genuen **Plazara Goaz** elkartearekin, **Pirritx, Porrotx eta Marimotots** pailazoan **Kuiki** lana programatzen, zeinaren estreinaldiak, beti bezala, egundoko arrakasta izan baitzuen auzoan, minutu gutxiren buruan agortu baitziren sarrera guztiak. Jarduera hau, beste urte batzuetan bezala, euskararen aldeko ekinbideetako bat izan zen. Gainera, Plazara Goaz-ekin batera, zenbait literatur solasaldi eskaini ziren euskaraz urtean zehar, **Iratxe Retolaza** dinamizatzaile, eta herritarrengana hurbildu zuten euskal literatura.

Arte eszenikoei dagokienez, eta Donostiako kultur etxeen sarean kide izanik, **Intxaurrondo Kultur Etxeak** parte hartzen du sarearen programa komunetan. Esaterako, **dFERIA**ko hiru proposamen eman ziren bertako ekitaldi-aretoan: **Viaje a América, Solos Extremos** eta **Golfa**.

2021ean, gainera, **Kale Antzerkiaren** programari ekin genion berriro, eta familientzako zenbait lan eskaini genituen ekain-uztailetan: **Rouge Elea** konpainiaren **Zuhaitzekin solasean**, **Hortzmugaren Jule** eta **Trapu Zaharren Turistreatzen**. Oso harrera ona izan zuten hiru proposamenek, eta pandemia-egoerari zor zaizkien segurtasun- eta higiene-neurrietara egokitu ziren.

Bestalde, **Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiaren** 2021eko edizioa inauguratu zuen Kultur Etxeak. Urte horretan, jaialdiaren formatua aldatu egin zen, eta tabernetatik Sagastieder plazako karpa batera pasatu zen agertokia. Ikus-entzuleen erantzuna ezin hobea izan zen iraileko azken asteburuan eskaini ziren bederatzi antzezlanetan.

Intxaurrondo Kultur Etxearen prestakuntza- eskaintzari dagokionez, pandemia-egoerak baldintzatu zituen hala 2020-2021 kanpaina nola 2021-2022koa, bai eta herritarren pertzepzio paradoxazko batek, zeren eta, batetik, fidakaitz baitziren beste pertsona batzuekin elkartzea zela- eta, eta, bestetik, kultur eta gizarte-jardueretan berriro hasteko beharra baitzuten. Alde horretatik, ikastaroen dinamikan ere izan zuten eragina datuen bilakaerak eta hartu izan ziren osasun-neurriek. Hala ere, erantzuna oso ona izan zen, eta 2021-2022 ikasturtean beste batzuetan baino ikastaro gehiago osatu ziren. Sendabelarrak, bizikletak konpontzea, yoga, areto-dantzak, zeinu-hizkuntza... Horiek izan ziren astez aste auzoko zein auzotik kanpoko hainbat herritar bildu zituzten ikastaro batzuk.



Gorka Aginagalde - Poltsiko Antzerkiaren Jaialdia (FArgazkia: Iñaki Rubio)

Laburpen honetan ezin aipatu gabe utzi **Intxaurreko Kultur Etxeak** herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak; besteak beste, **Liburutegia**, zeina urritik aurrera edukiera osora itzuli baitzen eta beste eskaintza batzuk berreskuratu baitzuten, hala nola prentsa eta haurtxoteka. Bi puntu aipagarri 2021ean liburutegian: materialen mailegua emendatu egin zela, eta ekipamenduan aldaketak egin zirela herritarrentzako arreta eta zerbitzua hobetzeko; esate baterako, informatika-ekipamendua eta argiztapena berritzea.

Liburutegiaren programazio egonkorra oso garrantzitsua izan zen urte horretan, eta zenbait jardura online egin behar izan ziren, itxiera perimetralak edo edukiera-murritzpenak zirela-eta, hala nola **Komikiari buruzko solasaldiak**, gaztelaniaz eta euskaraz (**Juan Manuel Diaz de Guereñu** eta **Igor Leturia** dinamizatzaile), edota **Liburu Baby Kluba**, lau urte arteko seme-alabak dituzten familientzat, zeina aurrez aurreko saioekin hasi baitzen urrian.

Zeu irakurle, gu kontalari proiektua ere urrian hasi zen, Lehen Irakaskuntzako 1. eta 2. mailako ikasleentzat, eta oso harrera ona izan zuen. Haurrentzat hau ere: hiru **Ilustrazio Tailer** programatu ziren **Iosu Mitxelenaren** eskutik, eta hiruretan bete ziren taldeak.

Plus 55 zerbitzuarekin batera, zeina **Donostia Kulturak** eta Udaleko **Gizarte Ekintzako** departamenduak koordinatzen baitute, bi jardura proposatu ziren 2021. urtean. **Poesiaren Mundu Egunaren** inguruan, eta Musikagelarekin batera, poesia-errezitaldia eskaini zen, zuzeneko musikarekin, eta jarraipena eman zitzaion **Giza Liburutegiak** proiektuari, non literaturarekin edo kontaktarekin zerikusia duten bizipenak eta esperientziak partekatzen baitira.

Hilero egin genituen literatur soladaldiak Intxaurrendoko Emakume Elkartearekin batera, non parte-hartzaileek landu beharreko eleberriaren aleak jaso baitzituzten liburutegien arteko mailegu-zerbitzuaren bidez.

Udaberrian, **Belardo, 20 urte** erakusketa egin zen Liburutegian, eta egilea, **Iñaki Martiarena Mattin**, berak sortu zuen pertsonaiaren bineten erakustaldian izan zen. Oraindik ere argitaratzen ditu pertsonaiaren binetak prentsan. Gainera, **Mattinek** haurrentzako ilustrazio tailerra eskaini zuen.

Amaitzeko, ez dira ahaztekoak **Intxaurreko Kultur Etxean** eskaini ziren beste zerbitzu batzuk, kultur etxeen eta udal departamentuen artean sortutako sarearen parte direnak.

2021. urtea oso bete izan zen Udaleko Gazteria Saileko zerbitzuentzat, urtarrilean ireki baitzituzten ateak zenbait hilabetez jardun gabe egon eta gero. **Gaztelekuak** epe laburrera begira jardun zuen, gazteak erakartzea finkatzeko xedez, dinamika parte-hartzaileak eta interesgarriak zirela medio, hala nola **Beldur Barik** ikastaroan parte hartzea, Aste Santuko jardura bereziak, Euskararen Eguna ospatzea edo kale-ekintzak. **Haurtxokoan** ere, pandemia-egoerak baldintzatu egin zuen egunez eguneko dinamika, baina aurrera atera zen zenbait proposamenetan parte hartzea, hala nola Gazteria Planean, Haurren Nazioarteko Egunean, edota Giza Eskubideen Zinemaldiarekin lotutako zenbait jardueratan. Bi taldeek garatu zituzten proposamenak Gabonak Zuretzat programan, besteak beste.

Plus 55ri dagokionez, zeina adindunei zuzendua baita, hitzaldi, solasaldi, ibilaldi, antzerki-jardura eta urtero planifikatzen diren eta itxialdiaren ondoren berreskuratu ziren beste ekinbide batzuek gainera, beste eskari batzuei erantzun zitzairen, hala nola teknologia berrietan ahalduntzea, hain beharrezkoa gaur egun.

JARDUERAK

24

Antzerki (emanaldiak)
2.435 erabiltzaileak

4

Zine (emanaldiak)
108 erabiltzaileak

211

**Bilerak eta
elkarleen ekitaldiak**
4.295 erabiltzaileak

172

Gaztelekua
1.121 erabiltzaileak

0

Dantza (emanaldiak)
0 erabiltzaileak

7

**Hitzaldiak eta
mahai inguruak**
289 erabiltzaileak

52

**Liburutegiko
jarduerak**
481 erabiltzaileak

177

Haurtxokoa
1.864 erabiltzaileak

14

Musika (kontzertuak)
1.778 erabiltzaileak

60

Erakusketak
532 erabiltzaileak

75

Plus 55
484 erabiltzaileak

5

Bestelakoak
89 erabiltzaileak

Guztira

801

Jarduerak

**13.476
erabiltzaileak**

ZERBITZUAK

35.308

bisitaldiak
Liburutegia

0

bisitaldiak
Haurtxokoa

0

bisitaldiak
Altzako bilduma web

0

bisitaldiak
Bideo tailerra

0

bisitaldiak
Ikasgela

0

bisitaldiak
**Kzgunea
(Nabigazioak)**

0

bisitaldiak
DK Irratia web

757

bisitaldiak
Musikagela

0

bisitaldiak
Gaztelekua

0

bisitaldiak
Altzako bilduma

0

bisitaldiak
**Ispilu beltza
magazine-podcast**

2.791

bisitaldiak
Musika Eskola

Guztira

39.282

BISITALDIAK

426

bisitaldiak
Plus 55

PRESTAKUNTZA

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak	Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	46	19	307	211	52
2020-2021 IKASTAROAK	11	2	19	12	7
Ikasturte osokoak (2020ko urria - 2021eko maiatza)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Bigarren lauhilabetekoak (2021eko otsailean hasita)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	2	1	4	0	4
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	11	2	19	12	7
Gaztelaniaz	8	3	59	50	9
2021-2022 IKASTAROAK	34	16	244	199	45
Ikasturte osokoak (urria - abendua 2021)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	2	0	0	0	0
Gaztelaniaz	4	2	15	13	2
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	16	5	66	47	19
Gaztelaniaz	12	9	163	139	24
IKASTARO PUNTUALAK	1	1	44	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	1	1	44	0	0
KZgunea IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK
Guztira 67.174

2

0



LARROTXENE
Kultur
Etxea

2

1

LARROTXENE

Kultur Etxea



Futbolariak eta printzesak - Eidabe

Larrotxene Kultur Etxearen dinamika eta programak, beste kultur etxeenak bezala, baldintzatu egin zituen pandemiak gizarte- eta kultur arloetan izan duen kudeaketa konplexuak. Higiene- eta osasun-neurriak hartu, edukierak aldatu edo eskaintzako jarduera batzuk atzeratu behar izateaz gainera, herritarren erantzuna ere aintzat hartu behar izan zen hain testuinguru aldakorrean. Oro har, esan dezakegu 2021ean bere onera etorri zela pixkanaka kultur etxeetako erritmoa, eta urtearen bigarren partean, baita jarduera eta zerbitzuena ere.

Aurreko urtearen arrastoan, **Larrotxene Bideok** protagonismoa erakutsi zuen berriz ere bai Donostian eta bai Donostiatik kanpo, zine-munduari eta ikus-entzunezkoei dagokienez.

Zenbait mugarri eta arrakasta izan zituen proiektu honek. **Materialen lagapena** emendatu izana nabarmenduko dugu (54 lagapen 2021ean), hala zerbitzu honetatik dinamizatutako ikastaroetan sortutako produkzioei nola kanpoko ikus-entzunezko beste lan batzuei, zeinak, berez, **Larrotxene Bideoren** koprodukzioak izan baitziren.

Zerbitzuaren beste osagai funtsezko bat, zenbatekotan bakarrik neurtzen ez dena, proiektu berrientzako **aholkularitza eta babes eta laguntza teknikoa** da. 275 informazio-eskaera jaso ziren ikastaroetatik kanpo, eta horietako % 60 emakumeek egin zituzten.



Bideoaldia Zinemari

Autore-ikastaroetan sartzen zen **prestakuntza-eskaintzari** dagokionez, 69 ikaslek hartu zuten parte honako proposamen hauetan: ***Dirección de cine***, Pablo Malo; ***Guión avanzado***, Michel Gaztambide; ***Zuzeneko soinua eta audioaren diseinua*** (euskaraz), Xanti Salvador; ***Producción audiovisual***, Iñaki Sagastume; ***Realización de documentales***, Oskar Tejedor; ***Zineko lokalizazioak*** (euskaraz), Mainer Oleaga; eta ***Gidoiak*** (euskaraz), Andoni de Carlos.

Ikasturtean egindako lanaren parte bat **Bideoaldiaren** hamahirugarren edizioan ikusi ahal izan zen, ekainean, zeinean 210 ikus-entzule bildu baitziren, Antzoki Zaharrean. Ikastaroetan sortutako lau lan aurkeztu ziren, eta bost koprodukzio. Bestetik, **Larrotxene Bideoan** sortutako lanen sorta bat proiektatu zen **Zinemaldiaren** programazioaren barruan, eta 61 lagun izan ziren ikus-entzule.

Medialab proiektuak, zeinak **Learning by Doing** metodologiaren bidez garatutako kontakizun digitalak jorratzen baititu, lankidetzazko ikaskuntza sustatzen jarraitu zuen, eta hiru proiektu jarri ziren martxan. Lehena euskarazko **websail** umorezko bat izan zen; bigarrena **bQria** izenekoa, **Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astearekin** lankidetzan, eta Astea promozionatzeko sare sozialetan zabaldu diren zortzi pieza bildu zituen; eta, azkenik, **Toki Alai Erdi Aroa** ekinbidea, **Larrotxene Bideo**ko ikastaroetako ikasle baten eraginez, zeina gainera irakasle baita ikastegi horretan; proiektuak oihartzun handia izan du komunikabideetan, **Begiradak** jaialdian hartu du parte, eta gainera **Elhuyar On Zientziaren** gazte saria jaso du.

Baina **Larrotxene Kultur Etxearen** jarduna ez zen mugatu ikus-entzunezkoen eta zinearen arlora. Auzoarekiko hurbiltasunak ere eragiten dio Kultur Etxearen dinamikari, eta urteko azken hilabeteetan ugaritu egin ziren, esate baterako, bertako **aretoak bileretarako erabiltzeko** eskariak, bai eta inguruko beste erakunde batzuekin batera antolatutako programak ere. Alde horretatik, eta baldintzak alde izan zirenean, berriro ekin zitzaion **Intxaurrondo Kantuzi**.

Aurrez, martxoan, eta Emakumeen Astearen barruan, **Tessa Andonegi** eta **Ainhoa Aierbe** euskal aktoreen antzezpen bat eskaini zen Kultur Etxean, **Me Too** lana.

Larrotxene Kultur Etxeak aukera gehiago eskaini zituen 2021ean antzerkiaz gozatzeko. Berriro etorri zen haurrentzako antzerkia, eta honako lan hauek oso harrera ona izan zuten familien artean: **Mago Tor**en **Amarru**; **Eidaberen** **Futbolariak eta printzesak**; **Marsel magoaren** **Magia Potagia**; **Skratx!**en **Norbaitek salbatu behar gaitu**; eta **Aissa Insausti** eta **Eneko Arrateren** **Urpekakariak**.



Amarru - Mago Tor



Indartsuak - Cinci Chosco



Norbaitek salbatu behar gaitu - Skratx!

Kale Antzerkia programa ere berriro jarri zen abian Donostian, eta, **Intxaurrondo Kultur Etxearen** atalean aipaturiko auzoko proposamenez gainera, Larrotxenek ere hartu zuen **Trapu Zaharra** taldea eta hark adin guztietako ikus-entzuleentzat eskainitako lana, **Turistreatzen**. Zoritxarrez, eta eguraldia zela medio, **Chosco Zirkua**ren **Indartsuak** proposamena beste egun batean eta Intxaurrondo Kultur Etxean egin behar izan zen, eta oso harrera ona egin zioten hango ekitaldi-aretoan.

Donostia Kulturaren prestakuntza-eskaintza orokorraren barruan, izen-emate gutxiago izan dira 2020-2021 eta 2021-2022 denboraldietan, urteotan bizi izan dugun egoera hain zaila dela-eta.

Amaitzeko, esan dezagun **Liburutegi** zerbitzua pandemiaren aurreko dinamikara itzuli zela, eta bisiten datuak onak izan zirela. Bisita horiek direla-eta, Kultur Etxearen inguruko ikastetxeek berriro eskatu zuten liburutegian parte hartzea, eta hizpide izan zen hurrengo urtean **Liburu Baby Kluba** saioak egitea txikienentzat.

JARDUERAK

6

Antzerki (emanaldiak)
233 erabiltzaileak

1

Zine (emanaldiak)
62 erabiltzaileak

29

Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak
206 erabiltzaileak

0

Gaztelekua
0 erabiltzaileak

0

Dantza (emanaldiak)
0 erabiltzaileak

0

Hitzaldiak eta
mahai inguruak
0 erabiltzaileak

4

Liburutegiko
jarduerak
56 erabiltzaileak

0

Haurtxokoa
0 erabiltzaileak

0

Musika (kontzertuak)
0 erabiltzaileak

60

Erakusketak
209 erabiltzaileak

0

Plus 55
0 erabiltzaileak

1

Bestelakoak
210 erabiltzaileak

Guztira

101

Jarduerak

976
erabiltzaileak

ZERBITZUAK

11.703

bisitaldiak
Liburutegia

0

bisitaldiak
Haurtxokoa

0

bisitaldiak
Altzako bilduma web

1.769

bisitaldiak
Bideo tailerra

0

bisitaldiak
Ikasgela

0

bisitaldiak
Kzgunea
(Nabigazioak)

0

bisitaldiak
DK Irratia web

0

bisitaldiak
Musikagela

0

bisitaldiak
Gaztelekua

0

bisitaldiak
Altzako bilduma

0

bisitaldiak
Ispilu beltza
magazine-podcast

0

bisitaldiak
Musika Eskola

Guztira

13.472

BISITALDIAK

0

bisitaldiak
Plus 55

PRESTAKUNTZA

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak	Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	16	8	139	107	32
2020-2021 IKASTAROAK	4	1	12	5	7
Ikasturte osokoak (2020ko urria - 2021eko maiatza)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Bigarren lauhilabetekoak (2021eko otsailean hasita)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	4	1	12	5	7
Gaztelaniaz	4	4	41	21	20
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
2021-2022 IKASTAROAK	11	6	75	60	15
Ikasturte osokoak (urria - abendua 2021)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	3	2	15	7	8
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	6	3	43	36	7
Gaztelaniaz	2	1	17	17	0
IKASTARO PUNTUALAK	1	2	52	42	10
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	1	1	52	42	10
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK
Guztira 15.782

2

0

DK

LOIOLA
Kultur
Etxea

2

1

LOIOLA

Kultur

Etxea

2021. urtean ere pandemia izan genuen gainean. Lehen seihilekoan, kontu handiz ibili behar izan genuen programazioan, eta udatik aurrera ahalegina egin genuen normaltasun hala-holako batera itzultzeko, 2020an atzeratuta geratutako programa eta jarduera asko berreskuratuz.

Hiru jarduerak izan zuten oihartzun berezia:

2017an hasitako **Loiola Apain** hormirudien proiektuaren **spin-offa**: bisita gidatuek urte osoan jarraitu zuten, eta aurreko urteetan egindako 12 muralei beste bi gehitu zitzaizkien, **Aitziber Alonso** donostiar ilustratzaile ezagunak eta Loiolan bizi den **Stephen Webb** ingelesak eginak biak ere, oro har jendearen eta batez ere gazte eta haurren gogoko gertatu zirenak.



Loiola Apain Stephen Webb



Loiola Apain Aitziber Alonso

Iciar Bollainen *Maixabel* filmeko eszena baten grabazioa, Kultur Etxean, 80 figurante baino gehiagorekin, gehi teknikarien eta arte-taldeak, Covid-19aren protokoloen arabera.

Eta **Loiolako organoaren 20. urteurrena**, edukiera osoarekin eta bertako lau organojolek (**Periko Alkain, Eusebio Guindano, Josu Elberdin, Martín Lasa**), **Easo Abesbatzako** bi gazte bakarlarik (**Lorea López, Luken Munguira**) eta Loiola-Martuteneko **Ibaiertz Abesbatzak** parte hartu zutelarik.

Beste jarduera garrantzitsu batzuk, berriz, ezin izan ziren egin: **HidroLogikak** zikloa eta **Nazioarteko Folklore Jaialdia**.

Ohiko programazioko ziklo eta jardueri dagokienez, asko eta asko azken bi edo hiru hamarkadetan sendotuak, udako **Kale Antzerkiak** aipa genitzake arte eszenikoetan, egoera halakoa izanik ere arrakastatsu gertatu zirenak.

Arrakasta izan zuten, bai, **Tutik Clowns** konpainiaren **Petitxou** ikuskizunak eta **Trapu Zaharra** ezagunaren **Por hacer un favor** izenburukoak. Beste konpainia batzuk aipatzeko: **Tomaxen Abenturak, Potxin eta Patxin** eta **Txotxongilo Taldea Erreka Mari** bere obra

ezagunarekin. Eta estreinaldiak: **Oihulari Klown** konpainiako **Virginia Imazen Pronoia**, eta **Astrolabium** konpainia gaztearen **Butterfly Effect**, gehi antzerki amateurreko beste emanaldi batzuk, zeinei abegi on egiten baitzaie Loiolan. Horren adibide, **La Troupe de Erdialderen Desencuentros**, zeina bi astez segidan programatu baitzen.

Musikaren arloan, ezin aipatu gabe utzi Loiolan klasiko diren bi programa, **Vintage** eta **Poetry in Motion** jaialdiak.



Virginia Imaz. Emakumeen Eguna



Erakusketa: Negua gozatuz

Abesbatzen Asteak ere izan zuen bere lekua, eta **Vono** taldeak (Suedia) ikus-entzuleen gozamina eragin zuen abangoardiako musika eskainiz eta neurritz gaineko teknika erakutsiz. Azpimarratzekoa 2020tik **Raphaeli** egindako omenaldia berreskuratu zela, Paddam bikoteko **Estefanía Sáez Wulf** sopranoaren ahotsean. Eta **Euskararen Egunean Banda Biren Abelardo mon amour** ikuskizunaren estreinaldia izan genuela. Esan behar da Loiolako elizak aukera eman zigula edukiera handiagoz programatzeko eta urteari amaiera emateko **Goiko Gela** taldearen euskal gospeleko kontzertuarekin.

Euskal Kulturaren Ildotik zikloaren barruan, omenalditxo eskaini zitzaion **Juanmi Gutierrez** zine-zuzendari donostiarrari, haren film bat proiektatuz: **Zuzendu, mesedez!** Zikloan, izan ziren hiru dokumental etnografiko ere, Urumearen ibarrean kokatuak: **Basker** (ia zabalkunderik izan ez duen film bat, suediar telebistarena, txalapartari buruzkoa), eta **Juan Mari Beltranen Soinu Tresnak Euskal Herriko Musikan** eta **Txalaparta**,

Liburutegitik, jarduera nabarmenenak **Zeus Irakurle**, **Gu Kontalari** eta **Liburu Baby Kluba** izan ziren. Bigarren hori aurrez aurreko formatura itzuli zen urrian.

16 erakusketa egin ziren -ez dira gutxi!-, ildo desberdinetakoak: **Alberto Saavedra** eskultoreari egindako omenaldia, haren azken lana den **Azken afariaren** bidez, **Amaia Ibarbia** eta **Sara Ayasa** EHuko ikasleen erakusketa plastikoak, **Javier Espigares** akuarelista loiolatarraren **Emakume**

Zapatistak/Las Mujeres Zapatistas, **Martuteneko kartzelako lantegietako lanak**, **Matiz** eta **Emaus** kolektiboen proposamenak ahaztuei eta baztertuei buruz, **Mikologia Jardunaldietako bilduma**, **Hiriko Ahotsaken 10. urteurrena**, **Negua Gozatuz** eta **Fino Danborraria**.

2021. urtean, pandemia betean, Loiola Kultur Etxeak bere inguruko erreferente izaten jarrai dezan ahalegindu ginen, kultur ohiturei segida ematen eta partaidetzaren bultzagile eta topagune sortzaile eta ekintzailea izaten, **Donostia Kulturak** formaziorako, espresiorako, bilaketarako eskaintzen duen zerbitzua hobetzeko.



Erakusketa Javier Espigares

JARDUERAK

17

Antzerki (emanaldiak)
733 erabiltzaileak

3

Zine (emanaldiak)
40 erabiltzaileak

10

**Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak**
520 erabiltzaileak

0

Gaztelekua
0 erabiltzaileak

0

Dantza (emanaldiak)
0 erabiltzaileak

2

**Hitzaldiak eta
mahai inguruak**
40 erabiltzaileak

31

**Liburutegiko
jarduerak**
235 erabiltzaileak

0

Haurtxokoa
0 erabiltzaileak

9

Musika (kontzertuak)
567 erabiltzaileak

17

Erakusketak
6.079 erabiltzaileak

0

Plus 55
0 erabiltzaileak

11

Bestelakoak
498 erabiltzaileak

Guztira

100

Jarduerak

8.712
erabiltzaileak

ZERBITZUAK

11.541

bisitaldiak
Liburutegia

0

bisitaldiak
Haurtxokoa

0

bisitaldiak
Altzako bilduma web

0

bisitaldiak
Bideo tailerra

0

bisitaldiak
Ikasgela

0

bisitaldiak
**Kzgunea
(Nabigazioak)**

0

bisitaldiak
DK Irratia web

0

bisitaldiak
Musikagela

0

bisitaldiak
Gaztelekua

0

bisitaldiak
Altzako bilduma

0

bisitaldiak
**Ispilu beltza
magazine-podcast**

0

bisitaldiak
Musika Eskola

Guztira

11.541

BISITALDIAK

0

bisitaldiak
Plus 55

PRESTAKUNTZA

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak	Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	41	19	239	207	32
2020-2021 IKASTAROAK	13	7	65	59	6
Ikasturte osokoak (2020ko urria - 2021eko maiatza)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Bigarren lauhilabetekoak (2021eko otsailean hasita)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	8	2	17	17	0
Gaztelaniaz	5	5	48	42	2
2021-2022 IKASTAROAK	28	12	174	148	26
Ikasturte osokoak (urria - abendua 2021)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	16	3	42	31	11
Gaztelaniaz	12	9	132	117	15
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK
Guztira 39.780

2

0



LUGARITZ
Kultur
Etxea

2

1

LUGARITZ

Kultur

Etxea

2021. urtean ere, Covid-19ak eragindako pandemiak trabak jarri zizkion **Lugaritz Kultur Etxeari** normal jarduteko, eta eragina izan zuen bertan eskaintzen diren programa eta zerbitzuetan. Udatik aurrera, txertatze-kanpainen ondoren, normaltasun hala-holako batera iritsi ginen, baina hori ezbaian jarri zen atzera, abenduan seigarren olatua etorri zenean. Azken batean, hartutako prebentzio-neurri guztiak gorabehera (musukoa, gel hidroalkoholkoa...), zaila eta mugatua gertatu zen normaltasunera itzultzea.

Gauzak horrela, Kultur Etxearen programa eta zerbitzuen eskaintzaren ezaugarria birusaren aurrean jarrera zuhurra izatea izan zen, eta lehen hilabeteetan "gutxiago gehiago da" ideia gogoan genuela egin genuen lan, hau da, zerbitzu eta programazioak mantsotzen saiatuz, birusarekiko distantzia ahalik eta handiena izan zedin.



La extraña pareja, Calibán Teatro. Susana Hernáiz eta Elda García, Lugaritz K. E.



Los hermanos Machado, Teatro del Temple, Literaktum. Carlos Martín, Alba Gallego, Félix Martín, Lugaritz K. E./Literaktum. f: Marcos Cebrián



Kartelburuak, Perigallo Teatro. Celia Nadal, Javier Manzanera, Lugaritz K. E.

Testuinguru horretan, programa eta zerbitzuak emendatuz joan ziren pixkanaka, eta eskaintza zabaltzea lortu genuen, aurreko urtekoa baino ugariagoa egiteraino.

Azpimarratzekoa da ezen, nahiz eta urtean egin ohi diren jardueren kopuruan ez izan murrizte nabarmenik, edukierak mugatu beharrak ondorio larriagoak izan zituela. Antzerkia, zinea, musika, prestakuntza-ikastaroak, liburutegia, KZgunea eta abar, denei eragin zieten, gehiago edo gutxiago, lehen hiru hilabeteetan pandemia zela-eta edukieran egindako murrizpenek.

Aretoko antzerkiaren programazioak jatorri eta izaera oso desberdineko konpainiak ekarri zituen. Euskaraz, **Ados Teatroaren *Kopaz kopa*** lanak, eta gaztelaniaz, berriz, **Teatro del Templeren *Los hermanos Machado*** arrakasta izan zuten ikus-entzuleen artean. Beste antzezlan batzuei, berriz, hala nola **Calibánen *La extraña pareja*** edo **Perigallo Teatrotoren *Cabezas de cartel*** izenburukoei, nahikoa harreran ona egin zitzaion.



Kopaz kopa, Ados Teatro. Ainara Ortega, Ainhoa Aierbe, Iñigo Aranbarri, Asier Sota, Lugaritz K. E.

Familei zuzendutako lanen artean, honako konpainia huen ekarpenak nabarmenduko genituzke: **Gorakada**, **Spasmo**, **El que ma queda de teatro** edo, konpainiak 50 urte betetzen zituela-eta, **Txotxongillo talde**arena, hots, **Encarni Genua** eta **Manolo Gómezen** konpainia ospetsuarena.

Amateurren sailean, berriz, ia ez zen antzerki-produkziorik izan, tamalez, taldeok biltzeko eta saio-probak egiteko izandako zailtasunengatik.

Kale-antzerkiko programatik, ezin izan ziren aurrera atera neguko emanaldiak, eta udara arte itxaron behar izan genuen **Trapu Zaharra**, **Rojo Telón** eta **Zirkozaurreren** proposamenak eskaintzeko.

Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiari dagokionez, areto handiagoetara jo behar izan genuen, gorde beharreko distantzia fisikoa gorde ahal izateko (Añorga, Igeldo eta Antigua), taberna txikiagoak alde batera utzita.



Pinocchio, Teatro Gorakada. Aroa Blanco, Pako Revueltas, Nerea Ariznabarreta, Pau Torres, Lugaritz K. E. F: Txelu Angoitia



Kobr3, Zirkozaurre. Gorka Pereira, Pablo Cáceres, Imanol Suso, Antiguoko Frontoia



Giza gorputzaren erdigunera bidaia, Spasmo Teatro. Vicente Martín, Álvaro Sánchez, Isaac Tapia, José Gabriel Sánchez, Lugaritz K. E.



Mikel Azpiroz, Lugaritz Kultur Etxea



Xabier Aburruzaga, Lugaritz Kultur Etxea

Musikaren atalean, beste guztien gainera nabarmendu zen **Mikel Azpiroz** buru zuen hirukotearen emanaldi izugarria, **Islak** albumaren aurkezpenean. Maila artistiko handia erakutsi zuten, halaber, **Xabier Aburruzaga**, **Tenpora** eta **Anne Etchegoyen**en kontzertuek ere. **Donostia bertso**tanen saioak ere jende asko erakarri zuten, bai eta **Abesbatzen Jaialdi**aren baitan eskainitako kontzertuak ere, non **Sjaella** abesbatza alemanak hartu baitzuen parte, Ibaetako parrokiaren.

Erakusketak izan ziren osasun-murrizpenek gehien kaltetu zuten arloa. Erabili beharreko babes-neurriak eta zeuden baliabideak izanik, ezin izan zen eratu erakusketarik.

Zinearen arloan, lehen hiruhilekoan eutsi genion **Juan Luis Díazek** dinamizaturiko zientzia-fikziozko filmen zikloari, eta forum horri Plus 55 programakoa gehitu zitzaion, ohikoa dagoeneko, bai eta **Bagera** elkarteak antolatu eta **Ander Gisasolak** dinamizatutako euskarazko zine-forumari ere.

Ekainean amaitu zen ikasturteko ikastaro eta lantegien kopuruan, eragin nabarmena izan zuen lehen hiruhilekoan edukierak izandako murrizpenak. Hala ere, 2021-2022 ikasturteko parte hartzea ona izan zen, eta udazkeneko hiruhilekoak bete-betean jardun zuten, murrizpenik gabe, baina higieneneurriak gordez betiere.

Udazkenean, halaber, ingurumen-heziketarako **Etxekolanda** programari berrekitea lortu genuen, zeina ikasleei zuzendua baita.

Liburutegi-zerbitzuan, mailegu-maila ona izan zuten materialek, baina bisitariak pandemia aurreko urteetan baino gutxiago etorri ziren. Liburutegiaren jarduerak zenbait murrizpen izan zituzten, eta ezin izan ziren normaltasunez kudeatu udazkenera arte. Dena den, **Zeuren irakurle, gu kontalari** programak edota **Maite Gonzalez Esnalek** dinamizaturiko literatur solasaldiek parte hartze handia izan zuten.

Plus 55ren jarduerak, adineko pertsonen zuzenduak direnez, gehiago jasan zuten erasana, populazio-sail horrek arrisku handiagoa baitu birusaren ondorioen aldetik.

Azkenik, esan beharrean gara hainbat urtez Merkatuan jarduten duten elkarten jarduerak eta Haurtxokoko eta Gaztelekukoak atzeratu egin behar izan zirela, harik eta udazkenean jarduna biziagotu ahal izan zuten arte.



Tempus, El que ma queda de teatre. Joan Fernández, Lugaritz K. E.

JARDUERAK

31

Antzerki (emanaldiak)
3.400 erabiltzaileak

18

Zine (emanaldiak)
699 erabiltzaileak

621

Bilerak eta
elkarleen ekitaldiak
6.663 erabiltzaileak

31

Gaztelekua
322 erabiltzaileak

0

Dantza (emanaldiak)
0 erabiltzaileak

0

Hitzaldiak eta
mahai inguruak
0 erabiltzaileak

64

Liburutegiko
jarduerak
461 erabiltzaileak

34

Haurtxokoa
510 erabiltzaileak

13

Musika (kontzertuak)
1.005 erabiltzaileak

0

Erakusketak
0 erabiltzaileak

53

Plus 55
462 erabiltzaileak

17

Bestelakoak
222 erabiltzaileak

Guztira

882

Jarduerak

13.744
erabiltzaileak

ZERBITZUAK

21.980

bisitaldiak
Liburutegia

606

bisitaldiak
Haurtxokoa

0

bisitaldiak
Altzako bilduma web

0

bisitaldiak
Bideo tailerra

0

bisitaldiak
Ikasgela

983

bisitaldiak
Kzguna
(Nabigazioak)

0

bisitaldiak
DK Irratia web

0

bisitaldiak
Musikagela

347

bisitaldiak
Gaztelekua

0

bisitaldiak
Altzako bilduma

0

bisitaldiak
Ispilu beltza
magazine-podcast

0

bisitaldiak
Musika Eskola

Guztira

24.155

BISITALDIAK

239

bisitaldiak
Plus 55

PRESTAKUNTZA

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak	Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	250	185	633	782	219
2020-2021 IKASTAROAK	54	23	264	201	63
Ikasturte osokoak (2020ko urria - 2021eko maiatza)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	2	2	26	20	6
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Bigarren lauhilabetekoak (2021eko otsailean hasita)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	1	1	8	5	3
Gaztelaniaz	5	0	0	0	0
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	16	5	53	41	12
Gaztelaniaz	30	15	177	135	42
2021-2022 IKASTAROAK	41	23	292	235	57
Ikasturte osokoak (urria - abendua 2021)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	3	1	14	10	4
Gaztelaniaz	4	4	66	53	13
Ikasturte osokoak					
Euskaraz	17	4	39	27	12
Gaztelaniaz	17	14	173	145	28
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	43	36	77	55	22
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	112	103	0	291	77

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK
Guztira 42.355

2

0



OKENDO
Kultur
Etxea

2

1

OKENDO Kultur Etxea

2021ean ere pandemiaren garapenak ezaugarritu zituen **Okendo Kultur Etxe**ko jardueren agenda eta formatuak. Gutxinaka joan ziren berreskuratzen programak eta jarduerak, unean uneko neurri egokien artean. Mugak eta egoera kontuan hartuta, kultur etxeak herritarrei eta eragileei eskaintza ugari eman zizkien eta ilusioz erantzun zioten emandako aukerei.



San Julian. Beldurrezko Astea



Dan Feit

Arte plastikoek leku berezitua dute Okendo Kultur etxean eta 2021 ez zen izan salbuespena. Ikastaro eskaintza orokorra eta berezia, erakusketak eta han hemenka garatutako jarduerak izan ziren. Pandemiari aurre egiteko neurriek eskaintza hori ere ezaugarritu zuten, izan ere urtea ikastaro eskaintza mugatuarekin hasi zen, 2020/21 ikasturteari zegokiona, eta bukatu zuen eskaintza zabalagoarekin, 2021/22 ikasturteari dagokionean.

Erakusketak, kultur etxean diren gune desberdinetan hedatuta, **Okendoko** ikurra izan ziren, noski. Arte diziplinei dagokienez eskaintza askotarikoa izan zuen: margoa, ilustrazioa, komikigintza, argazkilaritza edo moda.

2020 agurtu zuen erakusketak eman zion hasiera urteari **Aran Santamariá**rekin. Jarraian Javier Brizuelaren eskultura eta margoek atondu zituzten eraikin zaharreko hormak. Berehala **Dan Feit** artistaren **Urtebete Euskadin** proposamenaren bisio partikularra eman zuen. Margo eta collage lanak, teknika desberdinak eta material berreskuratutak erabilia, konfinamenduan sortu zituen artistak hainbat pieza. Erakusketaren osagarri, **Dan Feitek** berak emaniko margo tailerra hala nola master class bat egin ziren eta aipagarria bisitariekin batera osatu zen tamaina handiko murala.



Kontzientzia sortzaileak - El Salvador

Martxoak **Leihoak zabalik** erakusketa ekarri zuen, **Iraia Okina, Leire Salaberría, Maite Gurrutxaga, Paula Estévez** eta **Sandra Garayoa** ilustratzaileek konfinamenduan egindako lanak ikusgai jartzeko.

Foto-kazetaritzari buruzko erakusketak, DKVrekin elkarlanean gauzatua, oihartzun handia izan zuen: **Kontzientzia sortzaileak**. Erakusketa honetan 40 argazki-kazetariak eginiko lanak baloreari jarri zuten kolektibo honek egiten duen salaketa ariketa eta hartzen dituen arrisku eta dedikazioa. Izan ere une berezian ailegatu zen erakusketa, aste bate lehenago **Burkina Fason David Beriain eta Roberto Fraile** kazetariak bizitza kendu baitzieten. Bisitari ugari etorri zen kontrastez beteriko irudiak ikustera, argazki ederrak bezain krudelak, kontzientzia astindua sortzen zutena.

Udak bide eman zion modari, **Paseo de Francia 2 Pedro Rodriguez** modistari buruzko erakusketarekin. Arrakasta itzela jaso zuen erakusketa horrek, zalantzarik gabe, Donostian modak izan duen garrantziaren isla bihurtuta. Ohiko publikoaz gain, aipagarria da garai batean modu batera edo bestera modarekin harremanetan izandako emakume andana etorri izana (jostunak, brodatzaileak, erosleak,...).

Ikasturte berriari hasiera eman zion **Prest Gaudel!** erakusketak, kirol egokituari buruz ikastako parada paregabearekin eta jarraian, Fantasiako eta Beldurrezko asteak **San Julián. Fantasiako artearen maisua** erakusketa ekarri zuen. Nazioarte mailako ospea duen margolari handiaren lanak ikusteko parada eman zuen.



Artea Komikigintzan

Urteko erakusketa eskaintza **Literaktum** jaialdiarekin bukatu zen lotzen. Batetik **Aurpegrafiak** lanaren mostraren bidez, eta bestetik, **Artea Komikigintzan** erakusketaren bidez.

Iñaki Martiarena Mattin margolariak bere **Aurpegrafiak** hormetan eskegitzeaz gain, tailerrak eman zituen heldu zein txikientzat, arrakasta handiarekin. 2021 eta 2022 lotuz, **Artea Komikigintzan** erakusketak jaso zuen

bederatzigarren arteak erabiltzen dituen era desberdinak historia zahar eta berriko arte lan handiak jasotzeko. Kalitate handiko erakusketa honek, Fundación Telefónicaarena, tokiko egileei ere lekua utzi zien: **Angel Alonso, Iñaki Holgado eta Harkaitz Cano.**

Liburutegiko sarrerako ormek aukera eman zieten herritar egitasmoei, guztiak elkarlanari esker gauzatuak: **Ulia Mendiola, balio naturalak** Uliako auzo elkartearekin, **Defensoras mesoamericanas** Lumaltik Herriak eta Politiki Elkarteekin batera, **30 urte habia-kutxekin** Kukulunbera elkartearekin.

Hileroko bestelako jarduerak ere jarraitu zuten 2021ean. **Haur antzerkiak** hileroko eskaintza eman zuen otsailetik aurrera: **Murren Bidaia, Meri, Mari eta Lari. Peru, Ganbaran eta Otsoa, Aioko, Zorionak Marimotots!** Familia plan politik eman zituzten saioek.

Zikloak eta elkarte edo eragileak batzen direnean emaitzak biderkatzen direla jakina da. Horren isla politik izan zituen 2021 urteak Okendo Kultur Etxean. **Club Vasco de Camping** elkartearekin batera Okendo Kultur Etxeak urtero urtero antolatzen duen **Mendia eta Natura** zikloak jarraipen ederra izan zuen. Hilabeteak pasa ahala eta aforoak zabaldu ahala aretoa ere betetzen joan zen, ohiko arrakastaren seinale. Okendo Kultur Etxeko ziklorik beteranoenak ez zuen huts egin.



Aurpegrafiak-Mattin



Beteingoiagu - Poltsiko Antzerkia Jaialdia
(Argazkia: Iñaki Rubio)

Elkarlanean ere gauzatu ziren zine zikloak fantsez eta alemanez, Institut Français eta Goethe Institutuko kideei esker. Bai eta memoria historikoari buruzko mahai-inguru sorta Goldatu elkartearen laguntzaz. Aldiz eta tamalez, elkarlanean egiten diren beste ziklo batzuek ezin izan zuten ohiko garapena izan, ala nola, Osasun Astea bat aipatzeagatik.

Okendo Kultur Etxeak 2021en ere errepikatu zuen bere parte hartzea Groseko Euskararen Egunaren antolaketan beste elkarte ugariarekin. Horren baitan eta Pandora tabernari esker, 2021ean izan zen mota honetako kontzertu bakarra **Olaia Inziarte** artistarekin.

Bestalde **Hiriko jaialdiek** ere euren leku propioa izan zuten kultur etxeak Grosen gauzatu zuen programazioan. Aipagarria **Poltsiko** Jaialdiak izan zituen tamaina zein formatu ezberdinak. Pandemiari aurre egiteko osasun neurri egokiak ziurtatzeko 2021eko jaialdiak formatu desberdina erabili zuen: ostalaritza espazioen ordez karpa handi bat izan zen antzezlanen erakuslekua. Catalunya plazan kokatuta Grosek jaso zituen beste auzo batzuetako emanaldiak, auzoko ohiko ikuskizun kopurua hirukoiztuz. Poltsiko sormen lehiaketaren irabazleak, **Culturas milenarias, El maravilloso mundo de las otras crisis, Dos vascas y un destino...** lanek horren beharrezkoa dugun farra algarra ekarri ziguten.

Kaleko Antzerkia da Okendo Kultur Etxearentzat beste ziklo klasiko bat eta 2021ean ere formatu desberdina izan zuena, pandemiaren ondorioz. **Txoriak Txori** eta **Tomaxen abenturak** ikuskizunek jai giroa utzi eta Okendo zaharreko plazan kokatu ziren, Hautxoko eta Gazteleku zerbitzuak programaren protagonista bihurtuta. Berria ere izan zen giro horren baitan zirku teknika tailerra **Sarini Zirkoren** presentzia profitatuz.



Sarini Zirkoa



Literaktum - Marta Barone (Argazkia: Iñaki Rubio)

Lehenago aipatu moduan **Literaktum** jaialdiak presentzia izan zuen kultur etxean, bai erakusketen bidez -aipaturiko **Aurpegrafiak** eta **Artea Komikigintzan-**, bai Literaktum jaialdiari dagozkion beste formatuen bidez. Literaktum Topaketetan bi aurkezpen izan ziren uda aurretik: **Los últimos románticos** eta **El lunes nos querrán** (Premio Nadal) liburuak, **Txani Rodriguez** eta **Najat el Hachim** idazleenak, hurrenez hurren. Giro berezia sortu zuten bi jarduerak publikoaren arrakasta handiarekin. Eta arrakasta berbera izan zuten urte bukaerako aurkezpenek ere: **Marta Barone**, **Eduarne Portela**, **Javier Cercàs** idazleek aretoa betetzen joan ziren **Ciudad sumergida**, **Lo ojos cerrados**, **Independencia** liburuen berri emateko.

Jaialdi beteranoen artean ere, urte bukaeran ailegatu ziren abesbatzen eta umeen denbora. **Tolosako CITekin** batera antolatzen den **Abesbatzak** zikloa berreskuratu zuen Suediatik etorritako **Sofia Vokal Ensemble** abesbatzaren kontzertuarekin. **Gabonak Zuretzat!** programaren baitan kokatzen diren jarduerak urteari amaiera eman zieten umeentzako eskaintza bereziarekin.

Música con M de mujer barruan emakumeek musikan izan duten presentzia eta garrantzia agerian jarri ziren, ikusgarritasun eza gaindituz. Kultur etxea 2021ean berriz hitzaldi eta eduki desberdinen bozgorailua izan zen, **Okendotarrak sokagile nahiz markes denak itsastar**, **Bilintxen Mendan**, **Eutananasia legea martxan: eman beharreko urratsak**, **Aulki bat hutsik**, batzuk aipatze arren.

Okendo kultur etxeak zerbitzu inportantea eman zuen kanpo eragileei bertako espazioak lagata, pandemiaren ondorioz aspaldiko partez bilkurak egiteko aukera berreskuratzekoan edo mota guztietako jarduerak egiteko aukera izaterakoan. Ezin ukatu, hala ere proposamen guztiak bideratzeko zailtasuna, kultur etxeak jaso zuen eskaera kopurua duen atenditzeko ahalmen gainera izan zelako.

Okendok eskaintzen dituen **zerbitzuen** urtearen laburpena egitea zaila egiten d egunero ematen den zerbitzua, taldeka zein indibidualki, tantoka eta orduka, lerro gutxitan sartu nahian. Izan ere Jardueren programazioa bezain garrantzitsua da Okendo Kultur Etxearentzat bertan biltzen diren zerbitzuak. Adibidez, Kzgune zerbitzuak ematen dituen aukera digitalak guztiz garrantzitsuak izan ziren, pandemi egoeran sortzen diren behar desberdinen aurrean.

Liburutegiak hilabeteak pasa ahala zerbitzu guztiak berreskuratu zituen, hori izanik 2021eko berri onenetakoa. Horren arabera ere erabiltzaile kopurua handitzen joan zen. Helduen zein txikitxo jarduerak: tertuliak euskaraz nahiz gaztelaniaz, **Zeu irakurle**, **Gu kontalari**, Liburu **Baby Kluba**, liburu gidak, hemeroteka, ... eta liburuen mailegua, noski.

Gazteleku eta Haurtxoko zerbitzuen bidez auzoko gazte eta umeek ehundaka jolas eta entretenimenduz gozatzeko aukera eman zien urteak. Aipatu bezala, zerbitzuak beren eskaintzaren baitan, auzoko eta kultur etxeko dinamikaren parte bihurtzen dira

Azkenik, 2021 urtearen berri emateko guztiz garrantzitsua den **Plus 55** zerbitzua. **Plus 55** zerbitzuaren jarduerak urtean zehar pandemiak eragindako aldaketen erritmoan joan ziren berreskuratzen eta gauzatzen. Inportanteak izan ziren mugikorrek erabiltzeko ikastaroak, libildiak egiteko aukera, funtsezko gaiak landu zituzten hitzaldi arrakastatsuak (zaugarritasuna, frustrazioa, neurotransmisoreak). Halaber zerbitzuak bere eskaintzan lan arlo desberdinetan denboraz gozatzeko pizgarriak eman zituen: Kirola udaran, poesia, artea.

JARDUERAK

25

Antzerki (emanaldiak)
2.001 erabiltzaileak

0

Dantza (emanaldiak)
0 erabiltzaileak

4

Musika (kontzertuak)
341 erabiltzaileak

24

Zine (emanaldiak)
1.228 erabiltzaileak

153

Hitzaldiak eta
mahai inguruak
5.941 erabiltzaileak

16

Erakusketak
66.634 erabiltzaileak

Guztira

643

Jarduerak

83.436
erabiltzaileak

55

Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak
1.024 erabiltzaileak

73

Liburutegiko
jarduerak
2.297 erabiltzaileak

111

Plus 55
1.553 erabiltzaileak

60

Gaztelekua
548 erabiltzaileak

80

Haurtxokoa
1.058 erabiltzaileak

42

Bestelakoak
811 erabiltzaileak

ZERBITZUAK

90.113

bisitaldiak
Liburutegia

0

bisitaldiak
Ikasgela

1.247

bisitaldiak
Gaztelekua

1.702

bisitaldiak
Haurtxokoa

6.300

bisitaldiak
Kzgunea
(Nabigazioak)

0

bisitaldiak
Altzako bilduma

Guztira

100.462

BISITALDIAK

0

bisitaldiak
Altzako bilduma web

0

bisitaldiak
DK Irratia web

0

bisitaldiak
Ispilu beltza
magazine-podcast

0

bisitaldiak
Bideo tailerra

0

bisitaldiak
Musikagela

0

bisitaldiak
Musika Eskola

1.100

bisitaldiak
Plus 55

PRESTAKUNTZA

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak	Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	226	154	1.633	1.381	252
2020-2021 IKASTAROAK	32	26	485	414	71
Ikasturte osokoak (2020ko urria - 2021eko maiatza)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	3	3	165	158	7
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	16	1	12	8	4
Gaztelaniaz	15	10	157	133	24
Bigarren lauhilabetekoak (2021eko otsailean hasita)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	3	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	16	2	22	12	10
Gaztelaniaz	15	10	129	103	26
2021-2022 IKASTAROAK	88	27	583	534	49
Ikasturte osokoak (urria - abendua 2021)					
Egile ikastaroak					
Euskaraz	4	1	7	7	0
Gaztelaniaz	9	6	243	216	27
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	40	1	10	9	1
Gaztelaniaz	35	19	323	302	21
IKASTARO PUNTUALAK	0	6	105	61	44
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	1	15	7	8
Gaztelaniaz	0	5	89	54	36
KZgunea IKASTAROAK	83	73	33	260	73
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	23	22	127	112	15

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK
Guztira 185.531

2

0



Liburutegiak

2

1

Liburutegiak

Liburutegiak, onera bidean





Donostiako liburutegi-sarea onera bidean jarri da bigarren urte honetan, non liburutegiek arauak eta osasun-neurriak betez jardun baitute COVID-19ari aurre egiteko. Urtearen amaieran, zerbitzu guztiak genituen martxan.

Onerako bidea erakusten dute datuek, oso onak baitira. **399.983 mailegu** egin ditugu, eta horrek esan nahi du liburutegiak % 85ean erabili direla, hots, 2019an baino % 14,20 gutxiago besterik ez. 2020arekin alderatuta, % 35,01 gehiago.

Liburutegiak ez dira mailegurako bakarrik, **eztabaidarako, ideientzako eta ezagutzarako gune ere badira.** Bai eta aisialdirako eta gizarte-guneak ere, eta hori guztia beste zerbitzuen bidez baino ez da lortzen: kontsulta, Internet eta hemeroteka. Edukierak gutxituta ere, aurreko urteko bisitari kopurua baino % 29,49 gehiago izan dira 2021ean. Bestetik, 2019. urtearen aldean, hots, pandemia aurreko urtearen aldean, % 36,50 bisitari gutxiago izan ditugu. Alegia, **531.723 bisita** hartu ditugu 2021ean

Irakurketa bultzatzeko gune diren aldetik, literatur solasaldiak nabarmenduko ditugu, Literaktum-saioak, *Zu irakurle, gu kontalari* eta *Liburu baby kluba* jarduerak, *Irakurketa erraza-Lectura fácil*-eko saioak, liburu-aurkezpenak. **Guztira, 992 jarduera, non 15.087 lagun bildu baitira.**

Pandemiaren bi urteotan, liburutegiak zabalik egon dira, irakurketa bultzatzeko eta adimen emozionala indartzeko Berriro erakarri beharra dago beldurra dela-eta etortzeari utzi dioten pertsonak. Ez gara nekatzen irakurketaren onurak goستن. **Irakurketak aberastu egiten gaitu, eta gure liburutegietako liburu-eskaintza oso zabala eta askotarikoa da.**

Sarea zenbakitan



Pandemiaren bigarren urte honen errendimendua aurrekoarena baino askoz hobea izan da. Guztira, **399.983 mailegu** egin ditugu, eta **532.724 lagunek bisitatu gaituzte**. Alegia, 2,1 mailegu biztanleko.

Nabarmentzekoak, haurrentzako liburuen 136.521 maileguak. Garrantzia du herritarrak kontzientziatzea irakurketak aro digitalean jaiotako haur eta gazteentzat duen garrantziaz.

2021an mailegu gehien egin dituen liburutegia **Liburutegi Nagusia** da, **81.344 mailegu**, eta ondoren Okendoko liburutegia, **56.897 mailegu**, eta Amarako liburutegia, **51.442 mailegu**.

Liburutegien funtsak eguneratu egin dira. 39.565 dokumentu erosi eta katalogatu ditugu. Horrek % 5,17ko hazkundera esan nahi du, eta % 6,56ko berritze-tasa.

Funts zaharkitu eta hondatuen xahuketa zeregin zaila bezain beharrezkoa da. 2021ean, 28.204 dokumentu xahutu dira. Irakurleen hurbileko liburutegiek funts eguneratu eta berriak izan behar dituzte, eta Liburutegi Nagusia arduratzen da bildumak etorkizunerako gordetzeaz bere gordailu bibliografikoetan.

Izena emandako bazkideak **94.472** dira. Horietatik, bazkide berriak **3.354** dira; 2.284 heldu eta 1.027 haur. Bazkide aktiboek dagokienez -mailegu zerbitzutik urtean gutxienez behin pasatu direnak hartzen dira aktibotzat-, kopurua **22.449** lagunekoa da.

Funts bibliografikoak erosten egindako gastua 450.106 €-koa izan da. Alegia, 2,40 €-ko gastua biztanleko, eta 4,90 €-koa bazkideko. Ez dago esan beharrik zein garrantzitsua den bildumak liburu berriak gehituz eguneratzea. Kopurua aurreko urteetako parekoa da.

Katalogoan, liburutegien webgunean, Liburu Dantza zerbitzuko blogean eta DonostiaTEKA Liburutegi digitalean egindako **kontsulta digitalak** 739.369 izan dira.

Liburutegiok benetako gardentasunean sinesten dugu. Gure datu guztiak urtero argitaratzen dira paperean eta formatu digitalean, edonork ikus dezan gure bilakaera. Datuak Eusko Jaurlaritzarako, Irakurketa Publikoko Sarerako eta INEko ere jasotzen dira.



Proiektu nabarmenak

2021. urtean, azpimarratzekoa da Liburutegi Nagusiko instalazioak hobetu izana, DonostiaTEKAn dokumentu gehiago digitalizatu izana, Dosdoce enpresak Liburutegi Nagusia eraberritzeko egindako azterketa.



Liburutegi Nagusiko instalazioak hobetzea beharrezkoa zen eta, inbertsioei esker, San Jeronimo kaleko ekitaldi-aretoko altzariak eraberritu ahal izan ditugu, bai eta Alderdi Ederreko lan-eremuak, sarrerako pintura eta KZ ere. Espazioa liburutegien osagai funtsezkoa da. Hura hobetuz gero, erabiltzaile kopurua ere hobetu egiten da. Haur Liburutegi Nagusiak eta Urgulleko Liburutegiak ere aldaketak egin dituzte altzarietan eta espazioan. Birusaren ondorioz, desagertu egin dira ipuinaren ordurako tapizak, eta aulkitxoek ordeztu dituzte. Garbitasuna garrantzitsua zen lehen ere, baina orain ezinbestekoa da.

DonostiaTEKAk emendatu egin ditu funts digitalizatuak, 553 digitalizazio berri gehituta. Gehienak kartelak dira, 452 guztira. Lau liburu berri erantsi dizkiogu: 1909, 1912 eta 1922ko *Guías de forastero de San Sebastián*, tokiko balio handikoak, eta *Recuerdo del carnaval de 1900* izenburuko album txikia.

2021eko hirugarren proiektu benetan garrantzitsua da Dosdoce enpresari agindutako **azterketa, liburutegi paradigmatico batzuen berrikuntzari buruz**: Brooklyngo Liburutegi Publikoa, New Yorkeko Liburutegi Publikoa, Australiako Liburutegi Nazionala, eta abar. Azterketa horri esker, Liburutegi Nagusia eraberritzeko zein ildo estrategikori jarraitu erabaki ahal izango dugu. Horixe da, ezbairik gabe, Liburutegiaren erronka datozen lau urteotarako. Azterketa abenduan jaso zen, eta oinarritzkoa izango da DonostiaTEKA fisikotik diru-funts beharrezkoak lortzeko, bera baita udal sareko burua, Alderdi Ederren dagoena. Liburutegi Nagusiaren eraberritzea hiriarentzako proiektua da.

Jarraipena eman diegu *Liburuka* programari eta *Irakurle gazteak* jarduerari, hots, ikastetxeei egindako liburu-maileguei. Hiru liburu-bidalketa egin genien ikastetxeei, 16 ikastetxek hartu zuten parte, 286 ikastaldek guztira, eta **8.288 liburu mailegatu ziren**. Gainera, azaroan berriro hasi ginen Motxila Txikia jarduerarekin, zeinak ikastetxea, etxea eta liburutegia batzen baititu.

2021. urtea **aldaketa-urtea** izan da **liburutegietako langileen artean**, erretiroak direla-eta. Erretiroa hartu duten pertsonen eskarmentua oso baliosa zen. Datozen urteetan izango ditugun langile-aldaketak oso garrantzitsuak izango dira hiriko liburutegi-zerbitzuaren etorkizunerako.





Jarduerak

Jardueren programazioaren ezaugarri nagusia, pandemiaren bigarren urtean, atzera ere aurrez aurreko formatura itzuli izana da. Hala ere, izan da literatur solasaldiak online formatuan jarraitzeko aukera; hau da, bietarikoak izan dira. Erabiltzaileek, oro har, nahiago dute aurrez aurrekoa.


Liburu Baby Kluba jarduera, hiru urte arteko haurrentzat, online egin zen iraila arte. 55 bideo grabatu dira, 42 saio zoom-en, eta 3.162 aldiz ikusi dira; batez beste, 90 minutu bideoko.

Liburuaren eguna, apirilaren 23an, ospakizun bitarikoa izan zen. Bi podcast enkargatu ziren. Bat, **Martin Ugaldere**n obrari buruzkoa, **Inazio Mujika**, **Garazi Kamio** eta **Koldo Izagirre**ekin; bestea, *Paseando con Quirke por San Sebastián* izenburukoa, **John Banvillere**n obran oinarritua eta **Amaia García** eta **Slawka Grabowskaren** eskutik. Biak entzun daitezke DK Irratian. Gainera, beste *Liburu Challenge 2.0* bat egin genuen, **Markel Sainz**, **Xanti Korkostegi** eta **Lorea Intxaustire**ekin, eta *Liburu Baby Klubaren* saio berezi bat.

Aurrez aurreko formatuan, aurreko urteko irakurle onenen sariak eman genituen, eta **Ana Galarragaren** *Bizitza laborategian* lantegia, 6-8 urteko haurrentzat. Ez dugu ahaztuko urteko orri-markatzailearen ilustratzailea, **Miren Asiain**. Bigarren urtez, ez zen izan liburutegien azokarik Gipuzkoako Plazan.



Liburu Challenge 2.0



Hiru hitzordu Poesiarekin

Poesialdia martxoan egin ohi da, eta 2021ean 22tik 26ra izan zen, Poesiaren Egunaren inguruan, zeina martxoaren 21a baita. Egun horietan ezagutarazten da nork irabazi duen **Donostia Kulturaren Gazteentzako Poesia Saria**. **Maialen Berasategi** irabazi zuen IV. edizioa, *Eskuan beti zerbait* lanarekin. 1.000 euro eta obra Balea Zuria argitaletxeak kaleratzea, horra zertan den saria.

Astean, **Itxaro Borda**, **Iratxe Retolaza**, **García Montero**, **Itziar Mínguez** izan ziren, eta *Abere bala, ala, ele* poesia-ikuskizuna izan genuen.

Poesia eta Pentsamendua errezitala ekainean egin ohi da, eta tradizio luzea du. Han izan ziren **Maialen Berasategi**, **Aurora Luque**, **Peru Magdalena** eta **Shiara Nuño**. Bai eta **Jon Makuso** ere, biolin-jotzaile. Topaketa hori Chillida Lekurekin lankidetzan egin ohi da, eta bertan izan ziren **Gotzon Arrizabalaga**, **Leire Bilbao**, **Yolanda Castaño**. Ekitaldiaren irudia **Imanol Larrinagari** zor zaio.

Azkenik, **Poesia Orduak** izan genituen Victoria Eugeniaren, **Leire Bilbao**, **Maite Larburu** eta **Nahia Zubeldi**arekin. Tradizio handiko ekitaldia da, Euskal Idazleen Elkartearekin batera antolatua.

Liburutegien Eguna urriaren 24an ospatzen da eta, ezbaierik gabe, huts egin ezineko hitzordua da Donostiako liburutegi guztientzat. Tabakalera eta Koldo Mitxelena Kulturunearekin batera, *Immigrazioa eta liburutegiak: erronkak eta aukerak* jardunaldia antolatu zen.

Beti bezala, parte-hartzaile interesgarriak etorri ziren. Gurekin izan ziren **Maite Fouassier**, **Emma Armengod Martínez** (Bartzelona), **Manuel Sola Bernabé** (Purchena) eta Greziako liburutegien esperientzia, (bideoz grabatutako parte hartzea) errefuxiatu-eremuetan.

Jarduera osagarri gisa, migrazioez jardun genuen **Eneko Aizpurua** eta **Ainara Gorostizaren** liburuaren bidez. Bideoa grabatu zen, hiru liburutegietako erabiltzaile migratzaileekin. Donostia Kulturaren YouTube kanalean dago ikusgai, Liburutegiak zerrendan. Bideoaren izenburua *Immigrazioa eta liburutegiak, aukeraz betetako harremana* da.



Beste behin ere, **Emakume Idazleen Topaketa** egin genuen, **Anna Moï** eta **Tatiana Tibuleac** idazleekin. **Anna Moï** Vietnamen jaioa da, baina Frantzia hezia. Haren azken eleberririk, **Le venin du papillon**, Littérature-Monde saria jaso du. **Tatiana Tibuleac** Chisinaun jaioa da, Moldaviako hiriburuan, eta Europar Batasuneko Literatura Saria irabazi zuen **El jardín de vidrio** eleberriarekin. Topaketa hau azaroaren 3an eta 4an egin zen, Literaktumen atariko gisa.

Urtea amaitzeko, **Kirmen Uribe** eta **Itziar Ituño**ren arteko solasaldia egin zen Antzoki Zaharrean. Solasaldian, **Kirmen Uriber**en azken liburua aztertzen zuten, **Izurdeen aurreko bizitza**. Abenduaren 29an izan zen, eta horrekin batera hasi zen Covid pasaportearen erakutsi beharra kultur jardueretan. 155 lagun izan ziren ekitaldian.



Literaktum 2021



Literaturaren aldetik, gertaerarik garrantzitsuena izan da pandemiak markaturiko urtean. Oso programa osatua, *Literatura eta Oroimena* gaitzat hartuta. Euskal literaturan, **Eider Rodríguez**, **Martin Ugalde**, **Aurelia Arkotxa**, **Ixiar Rozas**, **Irati Jiménez**, **Harkaitz Cano** autoreak izan ziren bertan.

Atzerritik berriz, hauek etorri ziren: **Leile Slimani**, **David Grossman**, **Isabela Figueiredo**, **Marta Barone**. Gaztelaniazko literaturakoak, berriz, **Luis Lander**, **Javier Cercas**, **Jordi Amat**, **Manuel Jabois**, **Edurne Portela**, **María Belmonte**.

Literaktum Txikik oso ondo funtzionatu zuen, antzezpeneak izan ziren, eta ilustrazio-lehiaketa bat Harry Potter-i buruz.

Literaktum diziplinarteko topaketa bat da, non erakusketak eta antzerkia ere izaten baitira. Urtez urte egiten den literatur jaia.

2021a, hots, pandemiaren bigarren urtea, ez da gogoratuko zenbakiengatik, baizik eta egunero egindako ahaleginengatik liburutegiek ateak egunero ireki zituzten, nahiz eta Covid-19a izan. Gogoan geratuko da, halaber, gure liburuzain batzuek **erretiroa** hartu dutelako, eta garbi geratu delako zein garrantzitsua den **aurrez aurreko formatua** liburutegietan.

Liburutegi zerbitzua zenbakitan



Funtsak 603.224

Sarbide librea **492.613**
Historiko katalogatua **110.611**



Liburuak **479.215**
CD **35.801**
CD ROM **1.600**
DVD **60.315**
Bideo jokoak **1.765**
Mapak **231**
Material grafikoa **3.955**
Partiturak **9.075**
Aldizkako argitalpenak **11.063**
Ordenagailu eramangarriak **40**
E-reader / iPad **55**
Mahai jokoak **109**



Euskaraz **112.265**
Gaztelaniaz **433.147**
Besterik **57.812**



Altak **39.565**



Bajak **28.204**



Bildumaren
hazkundera **%5,17**



Bildumaren
eraberritzea **%6,56**



Maileguak 399.983

Maileguak eguneko
1.603



Helduentzako liburuak **187.119**
Haurrentzako liburuak **136.521**
CD **7.180**
DVD helduak **39.659**
DVD hurrak **15.249**
CD ROM **154**
Aldizkako argitalpenak **5.374**
Mapak **2**
Partiturak **1.690**
Bideo jokoak **4.152**
E-reader / iPad **49**
Ordenagailu eramangarriak **2.834**



Euskaraz **59.426**
Gaztelaniaz **261.282**
Besterik **16.342**



e-Liburutegia **14.466**



Funts Historikoak Kontsultak
700



Bazkideak 94.472

Helduak **82.217**
 Haurrak **11.709**
 Besterik **546**
 Gizonezkoak **42.522**
 Emakumezkoak **51.419**

Berriak 3.354

Helduak **2.284**
 Haurrak **1.027**
 Besterik **43**
 Gizonezkoak **1.442**
 Emakumezkoak **1.870**

Aktiboak 22.449 23%

Helduak **16.959**
 Haurrak **5.170**
 Besterik **320**
 Gizonezkoak **9.174**
 Emakumezkoak **12.968**



Bisitariak 533.615

Eguneko **1.926**

WWW. Kontsultak

KZ guneeetan **15.739**
 Aretoan **15.110**
 OPAC **431.552**
 Web **165.668**
 DonostiaTEKA **136.849**
 Liburu Dantza **5.300**



Jarduerak 1.158

Etorritakoak **16.523**
 Online **55**
 ZOOM **42**
 Ikustaldiak **3.162**
 Erakusketak **8**

LIBURUTEGI NAGUSIA

Sorrera urtea 1874

Irekiera leku berrian 1999



Funtsak

150.321

Sarbide librekoak 65.226

Historiko sailkatua 85.095



Altak
9.374



Bajak
7.289



Maileguak
81.344

Eguneko
349



Kontsultak
funts historikoan
469

Kontsultak
hemerotekan
231



Bisitak
149.836

Eguneko
504



Jarduerak
429

Etorritakoak
6.619



Erakusketak
3

LIBURUTEGI NAGUSIA Haur Saila

Haur Liburuaren

Dokumentazio Gunea

Sorrera urtea 1970

Irekiera leku berrian 1994



Funtsak

49.834

Sarbide librekoak 31.940

Historiko sailkatua 17.894



Altak
3.468



Bajak
2.462



Maileguak
23.965

Eguneko
106



Bisitak
14.637

Eguneko
51



Jarduerak
62

Etorritakoak
1.086



Erakusketak
4



Kultur Etxetako Liburutegiak

AIETE Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
2010



Funtsak
35.915



Maileguak
38.992

Maileguak eguneko
173



Altak
2.847



Bisitak
41.742

Bisitak eguneko
140



Bajak
1.214



Jarduerak
32

Jardueretara etorritakoak
724

LARRATXO Liburutegia

Sorrera urtea
1987



Funtsak
18.970



Maileguak
7.319

Maileguak eguneko
33



Altak
1.248



Bisitak
11.966

Bisitak eguneko
53



Bajak
932

CASARES / TOMASENE Kultur Etxeak Liburutegia

Sorrera urtea 1986
Irekiera leku berria 2006



Funtsak
40.886



Maileguak
32.040

Maileguak eguneko
108



Altak
2.838



Bisitak
46.559

Bisitak eguneko
156



Bajak
2.315



Jarduerak
101

Jardueretara etorritakoak
751

EGIA Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1997



Funtsak
28.073



Maileguak
18.965

Maileguak eguneko
83



Altak
2.272



Bisitak
11.668

Bisitak eguneko
52



Bajak
2.198



Jarduerak
124

Jardueretara etorritakoak
1.110

ERNEST LLUCH Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
2001



Funtsak
43.821



Maileguak
51.442

Maileguak eguneko
173



Altak
3.442



Bisitak
69.207

Bisitak eguneko
232



Bajak
1.258



Jarduerak
154

Jardueretara etorritakoak
1.363

INTXAURRONDO Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea 2000
Irekiera leku berrian 2011



Funtsak
49.789



Maileguak
32.917

Maileguak eguneko
133



Altak
3.082



Bisitak
36.848

Bisitak eguneko
149



Bajak
1.142



Jarduerak
50

Jardueretara etorritakoak
481

LARROTXENE Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1988



Funtsak
14.257



Maileguak
8.362

Maileguak eguneko
37



Altak
1.118



Bisitak
11.703

Bisitak eguneko
52



Bajak
1.026



Jarduerak
4

Jardueretara etorritakoak
56

LOIOLA Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1987



Funtsak
35.430



Maileguak
16.175

Maileguak eguneko
72



Altak
2.003



Bisitak
11.639

Bisitak eguneko
52



Bajak
1.642



Jarduerak
22

Jardueretara etorritakoak
165

LUGARITZ Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1993



Funtsak
37.202



Maileguak
22.761

Maileguak eguneko
101



Altak
2.335



Bisitak
21.980

Bisitak eguneko
98



Bajak
1.949



Jarduerak
67

Jardueretara etorritakoak
485

OKENDO Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea 1987
Irekiera leku berria 2004



Funtsak
43.246



Maileguak
56.897

Maileguak eguneko
191



Altak
3.460



Bisitak
92.112

Bisitak eguneko
309



Bajak
3.578



Jarduerak
73

Jardueretara etorritakoak
2.183



Beste liburutegiak

SAN TELMO MUSEOA Liburutegia

Sorrera urtea
2011



Funtsak
16.708

Sarbide librekoak

9.958

Historiko sailkatua

7.622



Maileguak
883

Maileguak eguneko
5



Altak
678



Bisitak
1.909

Bisitak eguneko
10



Bajak
140



Jarduerak
13

Jardueretara etorritakoak
1.285

URGULL Liburutegia

Sorrera urtea
1997



Funtsak
5.540



Maileguak
288

Maileguak eguneko
5



Altak
145



Bisitak
1.400

Bisitak eguneko
23



Bajak
81



Jarduerak
9

Jardueretara etorritakoak
56

DONOSTIAKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO Liburutegia

Sorrera urtea
2006



Funtsak
19.621



Maileguak
3.373

Maileguak eguneko
15



Altak
445



Bisitak
6.410

Bisitak eguneko
29



Bajak
711

CRISTINA ENEAKO INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEKO Liburutegia

Sorrera urtea
2002



Funtsak
2.650



Maileguak
41

Maileguak eguneko
0,1



Altak
0



Bisitak
724

Bisitak eguneko
2



Bajak
0

AMUNDARAIN MEDIATEKA

Sorrera urtea 2006
Irekiera leku berrian 2018



Funtsak
5.330



Maileguak
4.413

Maileguak eguneko
20



Altak
355



Bisitak
3.108

Bisitak eguneko
14



Bajak
267



Jarduerak
15

Jardueretara etorritakoak
142

ESKURA Giza Eskubideen aldeko pedagogia baliabideen zentroa

Sorrera urtea
2019



Funtsak
2.423



Maileguak
76

Maileguak eguneko
0,34



Altak
420



Bisitak
167

Bisitak eguneko
0,76



Bajak
0



Jarduerak
3

Jardueretara etorritakoak
17



2

0

DK

Programazioa
ARTE
ESZENIKOAK

2

1

Programazioa ARTE ESZENIKOAK



154

Lorena Noga_Pasionaria © AlexFont

Arte eszenikoak 2021ean

2021. urtea ez zen libratu pandemiatik. Ohartu ginen Covid 19arekin eta haren aldaera guztiekin bizitzen ikasi beharra zegoela. Hori esanda, tartean izanik edukiera mugatua, jasotako datuak, osasun-egoeraren araberako arauak eta beste hainbat gauza, ziurgabetasun handi samarrean bete genuen 2021. urtea; artistek edota herritar guztiek bezala, bestalde. Azkenik, gai izan ginen programazio erregularrari eusteko, eta garrantzitsuen da hori egin genuela osasun-neurri guztiak zehatz-mehatz beteta. Feriaren edizioa ere egin ahal izan genuen: dFERIA. 2020. urtekoa izan zen konfinamenduaren aurretik Espainian egin ahal izan zen azken feria, eta oraingoan, berriz, 2021.eko lehen izan da. Kontuan izanik dFERIA sei hilabete lehenago hasten dela prestatzen, ez dago esan beharrik oso aintzat hartzekoak direla egindako apustua eta hartutako arriskua, ziur-ziur jakin gabe zer-nolako pandemia-egoera aurkituko genuen martxoan. Garrantzitsua zen arriskua hartzea, bai sortzaileak babesteko, oso egoera ahulean baitzeuden, bai eta herritarrek babesteko ere, espero zituzten kalitatezko proposamenak eskaintzen jarraituz.

Ikus-entzuleen aldetik, emaitzak gorabeheratsuak izan ziren, urtea bera bezala. Hiruhileko batzuek baikor izateko motiboa eman ziguten ikus-entzuleak geureganatzeari begira, eta beste une zailago batzuetan, berriz, gogor lan egin behar izan dugu ziurgabetasun uneei aurre egiteko.

Oro har, esan daiteke urtea aurrera atera dugula, programazio normalizatua osatu baitugu kantitatearen aldetik, eta maila nahikoa onekoa kalitateari begira: **Donostia Antzerki Sarria**, helduentzako euskarazko antzerkiaren programazioa, dantzari eskainitako **Ballet T Egunak** astea, **Udako Antzerkiaren** programazioa, edota **dFERIA** 2021 bera. Bestetik, ordea, pandemiak ez zigun utzi burutzen eskolentzako kanpainak, ez eta lanean jarraitzen ere Donostia musikal handien hiri izan dadin.

Arte eszenikoak

Lehen seihilekoa ona izan zen ikus-entzuleen erantzunaren aldetik, edukiera-mugak kontuan hartuta. **dFERIA** egitea lortu zen, martxoaren 15a eta 18a bitartean. Sektoreko profesionalen erantzuna ona izan zen, ia berdindu egin baitzituzten 2020ko datuak, bai eta ikus-entzuleen eta kritikaren erantzuna ere. Edizioa arrakastatsua izan zen, baina Covid neurriek markatua, ezinbestean. Aurreratu egin zen feriaren eguneko jarduera, eta aurreratu egin zen, berdin, gauetan jarduerari amaiera emateko ordua ere. Goizak beste edizio batzuetan baino emankoragoak gertatu ziren, eta aintzat hartu ditugu zenbait ekintza eta neurri, hobekuntzarako bide direlakoan. Espainiako estatuko lehen feria izan zen, eta nota onez gainditu zen erronka.

Bereziki, helduentzako euskarazko antzerkiaren proposamenei eusteko asmoa hartu genuen aintzat. Halaxe egin genuen, eta ikus-entzuleen aldetik lortutako emaitza harrigarri ona izan zen. Urte osoan zehar, 50 bat funtzio izan ziren euskaraz, eta ikus-entzuleek, esan bezala, oso ondo erantzun zuten. Esan dezakegu euskara sendotu egin dela Donostian, antzerkiari dagokionez. **Donostia Antzerki Saria**, Euskararen Udal Zerbitzuarekin batera sortua, bere fruituak ematen ari da azken urteotan, eta esan dezakegu euskarazko antzerkiaren kontsumoa sendotuz joan

dela hala gazteen nola helduen artean. Esanahi handia du horrek euskarazko dramaturgiari eta arte-sektore euskaldunari begira. 7.000 ikus-entzuletik gora izan ziren Donostia Kulturako agertokietan programaturiko 50 funtzioetan, hasi **Victoria Eugenia Antzokiko** agertoki nagusitik eta areto txikienetaraino, hala nola bertako **Kluba**, edota **Gazteszena** zein **Imanol Larzabal**.

Euskarazko antzerkiaren aldeko lan horrek **Donostia Antzerki Saria** emateko galarekin jotzen du goia, non helduentzako Euskarazko Ikuskizunik Onenari ematen baitzaio, dirutza eta guzti. Horrez gain, ikuskizun irabazlea bera eskaintzen da galan, eta artelan bat ematen zaie irabazleei. 2021.ean, saria **XAKE Produkzioak**en **Fadoak entzuten zituen gizona** lanari eman zitzaion 2020ko produkziarik onenaren saria. Inoiz pentsatu al duzue zergatik diren ezagunagoak fado kantari emakumeak gizonezkoak baino? Anderrek eta Mariok lehenagotik ezagutzen dute elkar, baina aspaldian egon dira bata bestearen berri izan gabe. Elkarrekin ekingo diote bidaia bati, eta oso berezia gertatuko da. **Getari Etxegarai** izan zen eszena-zuzendaria, eta **Iñigo Aranbarri, Kepa Errasti** eta **Ane Gabarain** aktoreak.

Beste ardatz estrategiko bat, kezkatzen gintuena, arte eszenikoak etorkizuneko ikus-entzuleei hurbilaraztea izan zen. Ikus-entzule berriak sortzea, alegia. Gazteenei eszenarako zaletasuna sorraraztea, arte bizien alderakoa, formetan zein edukietan berritzaile diren ikuskizunen bitartez. eta, horrez gainera, sortzaile gazteek eginak diren ikuskizunen bidez. Goraipatzekoa zenbait kultur etxetatik egindako lana; Egiatik, **Gazteszenaren** bidez, edota Antiguakotik, **Imanol Larzabal** aretoaren bidez. Prezioen politikan, **Ordu Gaztea** ekinbide "izarrak" izugarri lagundu du lan horretan. Edozein ikuskizunetarako sarrera, zeinahi dela ere, 3 eurotan izatea, 30 urte baino gutxiago dituzula frogatuz gero betiere, eta sarrera funtzioa hasi aurreko 30 minutuetan erosiz gero, oso ekintza ona da gazte jendeari arte eszenikoez gozatzeko aukera emateko, zaletasuna sortuz joan dadin eta loturak ezar daitezen etorkizunean gazteen eta eskaintza eszenikoaren artean. 500dik gora izan dira 2021. urtean.



After the party

Helduentzako euskarazko antzerki formatu handikoaren produkzioetik, bi ale nabarmendu nahi ditugu: **Sisiforen paperak**, **Harkaitz Canoren** testua eta **Fernando Bernuesen** zuzendaritza, eta **Amaren kuraia**, **B. Brecht**ena, **Maria Goirizelaia** zuzendari. Bi produkzio publiko, euskal dramaturgia beste nonbait, goragoko maila batean, kokatu duten bi ikuskizunen sorkuntza babesteko.



Ave Ososo

Dantza

Dantzan, badira urte batzuk lankidetzat estua dugula **Kukai Dantzarekin**, zeinari Espainiako Dantza Sari Nazionala eman baitzaio sorkuntza modalitatean. Folklorearen eta mito eta errito tradizionalen trataera ikusgarria du bereizgarri talde honek, unibertsaltasunera eramaten baititu gaur egungo dantza-hizkuntzaren bidez. Eta ohi bezala, **Malandain Ballet Biarritz**, **Victoria Eugenia Antzokiaren** lankide estu eta etengabea 2007tik, urtero zenbait emankizun dakarrena antzokira. Malandain Ballet eta Kukai parte-hartzaile nagusiak dira urte osoan zehar antolatzen diren prestakuntzarako eta dantzaren alderako sentsibilizaziorako jarduerak koreografikoetan: topaketak, eskolak, lantegiak, laborategiak eta abar. 2021ean ere **Ballet T Egunak** izeneko programa antolatu genuen, Donostia Kulturaren urte osoan zehar antolatzen den jarduerak koreografikoak ikusgai jarri eta ezagutarazteko: ikasleentzako emanaldiak, ibilaldi koreografikoak hirian barrena, erakusketak, lantegiak eta baita estreinaldi bat ere: horiek guztiak asteburu bete osatu zuten dantzaren inguruan.

The personal element_Adji Cissoko, Shuaib Elhassan Photo by_ M. Crisostomo 3

Azpimarra dezagun, halaber, Dantzaren Profesionalen Elkarteak dantza sustatzeko eta garatzeko egiten duen lana, zeinaren adierazlerik nabarmenena Dantzaren Hilabetea antolatzea baita, eta zehatzago, **Dantzaren Gala**, **Victoria Eugenia Antzokiarekin** lankidetzan. Ez dugu ahaztu nahi Verdini, ez eta dantza urbanoak, tradizionalak edota flamenko hutsa interpretatu zuten konpainiak ere. Denen artean, urte koreografiko koloretsua, ñabarduraz eta mugimenduz bete eskaini zuten.



Ekoizpenak

Victoria Eugenia Antzokia arte eszenikoen arloko eragile dinamizatzailea da (antzerkia, dantza eta, gutxiago bada ere, zirkua), eta urtero, urratsez urrats, aktiboki hartzen du parte sektorea ehuntzen. Antzerkia ikuskizunen erakustoki bat baino gehiago da. Antzoki dinamikoa izan nahi du, kudeaketa-bide berriak urratuko dituena, erronka berriei ekingo diena eta erakuste hutsa baino harago iritsiko dena, konpromisoak hartuz eta modu desberdinean inplikaturaz proiektuetan, modu beteagoan. Gastuak partekatzea ez du xede bakarra; gainera, ikuskizunaren garapenari eta ondoren izango duen bizitzari lagundu nahi die. Hortik dator koproduzitzeko borondatea, ekoizpenaren parte batean besterik ez bada ere, eta lagundu, bermatu eta bultzatzekoa. Azken buruan, proiektuan parte izatekoa. Produzioen kostu handiek eta ondorengo banaketaren zailak bat egitera eta arriskuak hartzera behartzen gaituzte. Lasaitasun handiagorik eta baliabide gehiagorik sortzeko apustua egitera, zertarako eta emaitza artistiko onak eta ustiatze-aldi luzeagoak lortzeko.

Victoria Eugenia Antzokiak honako ikuskizun hauek koproduzitu zituen 2021ean:

MOZART À 2

Malandain Ballet Biarritz

Koprodukzioa:

CNN-Malandain Ballet Biarritz - Donostia Kultura, Victoria Eugenia Antzokia, Ballet T

Koreografia: Thierry Malandain

Musika: Wolfgang Amadeus Mozart

SINFONIA

Malandain Ballet Biarritz

Koprodukzioa:

CNN-Malandain Ballet Biarritz - Donostia Kultura, Victoria Eugenia Antzokia, Ballet T

Koreografia: Thierry Malandain

Musika: Luciano Berio

CRÍOS SOLO, SOLO CRÍOS

Koprodukzioa:

NUEVAS DRAMATURGIAS-ANTZ3RKIZ (Arriaga Antzokia - Gasteizko Principal Antzokia - Donostiako Victoria Eugenia Antzokia), eta Teatro Zanguango

Egilea: Paco Gámez

Zuzendaria: Miguel Muñoz

HNUY ILLA

Koprodukzioa:

Kukai dantza - Tanttaka Teatroa - Donostia Kultura, Victoria Eugenia Antzokia, Ballet T

Olerkia: Joseba Sarrionaindia

Gidoia eta eszena-zuzendaritza: Mireia Gabilondo

Koreografia: Jon Maya

Jatorrizko musika: Iñaki Salvador

Dramaturgia berriak

Dramaturgia berriak Donostia Europako 2016ko Kultur hiriburu izateak utzitako ondarea da, eta Bilboko **Arriaga Antzokiarekin** eta Gasteizko **Principal Antzokiarekin** batera daramagu aurrera. Programaren helburua sortzaileen eta dramaturgoen sare bat sortzea da, zertarako eta, ohiko bakar-lana eta hain ohiko ez den talde-lana konbinatuta, material dramatikoaren harrobia osa dezan, antzerki-konpainientzat eta sorkuntza eszenikoarentzat erreferente izango dena. Halaber, ekinbide honen helburua antzerki-testu berriak sortzea da; testua, partitura gisa ulerturik, zeina zuzendari bati ematen baitzaio eszenaratu dezan. Hautaturiko pertsonak, gehienez ere zortzi, obra dramatiko bat garatu beharko dute lau hilabetean, arte eszenikoetako profesionalen gidaritzapean: **Patxo Telleria** eta **Mireia Gabilondo**.

Sentsibilizazioa

Prestakuntza jarduerak eta arte eszenikoetan sentsibilizatzeko jarduerak, horra Antzerki eta Dantza Unitatean modu berezian zaintzen dugun ardatza, urtean 3.500 lagun mugiarazten dituen topaketa, lantegi, *master class*, truke eta abarren bitartez.





PEDRO PÁRAMO

Juan Rulfok 1955ean idatzi zuen **Pedro Páramo** eleberria, XX. mendeko literaturaren gailurretako bat. Gizon apal bat, Pedro Páramo, Mexikoko Comala herriko jauntxo bihurtzera iritsiko da, eta zukutu eta birrindu egingo du leku hura, herri mamu bihurtzeraino. Handik urte batzuetara, haren semea iritsiko da bertara, Juan Preciado, zeinak, herrira iritsitakoan, han bizi izandakoen mamuak aurkituko baititu. Hala jakingo du nor izan zen benetan aita, eta nola erabili zituen herritarrak, ama barne. Zuzendaria, **Mario Gas**. Aktoreak, **Vicky Peña** eta **Pablo Derqui**.



SISIFOREN PAPERAK

Egunkariaren itxierari buruzkoa. Ikuskizun bikaina, hamar aktore eszenaratzen dituena. Koprodukzioa da, ANTZ3RKIZ (Arriaga Antzokia-Gasteizko Principal Antzokia-Donostiako Victoria Eugenia Antzokia) eta CDN-Centro Dramático Nacional-en artekoa. Lau erakunde publiko horiek lehen aldiz elkartu dira ikuskizun bat muntatzeko, bertsio bikoitzean: euskaraz eta gaztelaniaz. **Harkaitz Canok** sinatu du testua. **Fernando Bernués** da zuzendaria, eta **Ikerne Giménez**, berriz, eszenaratzearen arduraduna.



LA MÁQUINA DE TURING

Alan Turing *Enigma* kode sekretu nazia deszifratu zuen gizona da, alemanek beren mezuak zifratzeko gerran erabiltzen zuten kodea. Ross sarjentuak gizon ohiz kanpoko eta xarmagarri batekin egiten du topo, eta adiskide egiten dira. Baina Alan Turing kondenatu egingo dute homosexuala izateagatik, eta azkenean bere buruaz beste egingo du. Turing da ordenagailuaren asmatzaileetako bat. Apple-ren sagarra hari egindako omenaldia da. Jenioa matematikan, heroia gerran eta aurreiritzien biktima, Alan Turing halaxe pasatuko da historiara, Bigarren Mundu Gerran milioika bizi salbatu zituen jenio gisa. Zuzendaria, **Claudio Tolcachir**. Aktoreak, **Daniel Grao** eta **Carlos Serrano**.

Victoria Eugenia
Antzokia

© Marcos Gunto



UNA NOCHE SIN LUNA

Pieza hunkigarri bezain harrigarria, Lorcaez ari zaiguna XXI. mendeko sentiberatasunetik, Federico bera egun gure artean balitz bezala. **Federico García Lorca**ren bizitzako eta obrako alderdi ezezagunenetara hurbiltzen gara. Antzezlanak **Federico García Lorca**ren elkarrizketak, solasaldiak eta hitzaldiak biltzen ditu, bai eta haren obren zati batzuk eta zenbait poema ere. Horien bidez eta **Juan Diego Botton**ren dramaturgiaren bidez, Lorcak berak hurbilduko gaitu bere mundura. Ikuskizun bikaina, urteko arrakasta handienetako bat, ezbairik gabe. **Juan Diego Botto** da dramaturgiaren eta interpretazioaren arduraduna. Zuzendaria, **Sergio Peris-Mencheta**. Eszenaratzearen arduraduna, **Curt Allen-Wilmer**.



THE MOUNTAIN

Agrupación Señor Serrano. Ikuskizun hau 2020ko urriaren 10ean estreinatu zen, Festival International des Arts Bordeaux Métropole-n. *The Mountaine*nek hainbat gauza konbinatzen ditu: Everestera igo zirenen lehen espedizioa, zeinaren arrakasta zalantzan jartzen baita egun, eta Orson Wellesek *Munduen gerra* irrati-programarekin sortutako izualdia; badminton jokariak beisbolean jokatzen; *fake news*en webgune bat; dron bat ikus-entzuleei zelata egiten; elur asko, pantaila mugikorrak; irudi zatikatuak; eta Vladimir Putin gustura hizketan konfiantzari eta egiari buruz.



MAN UP / TEATRO EN VILO

Ikuskizun berri honekin, Teatro en Viloko zuzendariek erronka bati egin diote aurre: maskulinitasunaren eta bere erreferenteen kontakizun tradizionala mozorrogabetzea ironiaren, adar jotzeen eta umore absurdoaren bitartez. Kode maskulino tradizionalak zaharkituta geratu diren honetan, eta berriak oraindik egiteko daudelarik, *Man Up* honek tarte bat ireki nahi du nondik auzitan jarri hainbat kultur uste: zer esan nahi duen gizon izateak, gizon izateko modu berriak irudikatzea...

161



LOS PAZOS DE ULLOA

Los Pazos de Ulloa eleberraren antzerkirako egokitzapena, **Eduardo Galán**en bertsioan eta **Helena Pimentaren** zuzendaritzapean. Emilia Pardo Bazánen *Los Pazos de Ulloa* eleberriaz proposatzen den antzerki-bertsioa indarkeriaren eta ankerkeriaren kontrako aldarria da, eta enfrentamendua du ardatz: desiraren, pasioaren eta maitasunaren, landako jauntxoaren indarkeriaren eta hiriko (Santiago Konpostelako) kortesia eta modu onen arteko enfrentamendua. Antzezlanean agertzen dira jauntxoa, grinei doi eusten dien apaiz bat, emakume maitemindu bat... Bi apaiz oso desberdin: bat, ustela eta bere buruaz ziur dagoena; bestea, ziurtasunik gabea, beldurtia eta bihotz onekoa.

Horra 2021. urteko adibide batzuk, non testu handiak, zuzendari handiak, lehen mailako aktoreak izan baititugu gure gozamenerako, kalitatezko programazio batean, non hitza eta eduki interesgarriak izan baitira protagonista. Programazioa gai izan zen pulsuari eusteko eta ikus-entzuleen arreta erakartzeko hain urte bihurri eta berezian.

Antzeko zerbait esan daiteke dantzari dagokionez ere. Aipa ditzagun hiru ikuskizun aparteko:

© Paco Villalta



UN CUERPO INFINITO

Autoezagutza fisiko eta espiritualerako bidaia bat, Carmen Amaya artista legendazkoaren inguruan. Higitzen diren pentsalariek eta higiduraren pentsalariek bat egin dute enigma hori arakatzeko. Gorputzak mito ofizialak baino harago doaz, Amayaren gorputz astralaren bila, dantzaren alderako maitasuna birformulatuz eta norberaren islari aurre eginez: denboraren joana, oinazea, desagertzea. **Olga Pericet** da ikuskizunaren egile eta koreografoa, Espainiako 2018ko Dantza Sari Nazionala, eta, horrez gainera, interprete bakarra. **Carlota Ferrer** da eszena-zuzendaria, zeinak dantzako emakume interprete onenaren Max saria jaso baitzuen lan honengatik.

© Olivier Houeix



MOZART A 2

MALANDAIN BALLETT BIARRITZ *Mozart à 2* balleta 1997an sortua da, Temps Présent konpainiarentzat, eta gaur egun Alemaniako Leipzig Ballet-en eta Austriako Wiener Staatsballet-en errepertorioan dago. Zenbait maite-pasadizo kontaktzen dira, Mozart-en pianorako kontzertuen harira.

© Yocom Houeix




SINFONÍA

MALANDAIN BALLETT BIARRITZ Partitura Luciano Beriorena da, eta 60ko musikaren monumentutzat hartua izan da. Mugaldez, hesiaz, ertzaz ari da, baina, ohiko esaldiaz baliatuta, esan dezagun benetako gertaerekin duen antz oro kasualitate hutsa dela.



DOSIS DE PARAÍSO

Topo egin zuten eta batak besteari eman zioten beren burua. Nahasmenduaren ohitura aurkitu zuten, besarkadaren aukera eta bakardadearen beldurra. Paradisuan irautea ez zen gertatu erraza; orainean irautea, iraganaren islarik gabe eta etorkizunaren proiektiorik gabe. Denok gabiltza geure buruaren bila, denok bidean, hautematen gaituen eta denboraren mugak lausotzen dituen argi uherraren pean, oroimenik gabeko ostertz baterantz, bakardade beterantz, non beharbada maitasuna agertuko baita bihotz-taupadan. **Sharon Fridman** da zuzendaria eta koreografiaren arduraduna.



© Gorka Bravo

HNUY ILLA

1995ean, Joseba Sarrionandiak poema-liburu bat eman zuen argitara, euskal literaturan mugarri dena: *Hnuy illa nyha majah yahoo*. **Kukai Dantzak** eta **Tanttakak**, 25. urteurrena zela-eta, liburuaren berrargitalpena eta hartan oinarritutako ikuskizunaren bertsio berria prestatu zituzten. Alegia, Kukai Dantzak aurreko lan haren berrikuspen eguneratua egin zuen. Musikaren alderdian, **Mikel Laboak** maisuki bihurtu zuen musika Sarrionandiaren poesia. Eta Laboarekin batera, haren kide min bat: **Iñaki Salvador**. Bien musika izan zen ikuskizunaren soinu-bandaren ardatz nagusia, **Ruper Ordorikaren** eta **Maria Berasarteren** lankidetzarekin batera. Koreografia **Jon Maiak** (Kukai) sinatua da, eta gidoia eta eszena-zuzendaritza, berriz, **Mireia Gabilondok** (Tanttaka).



© Reiner Pfisterer

MELLIZO DOBLE

ISRAEL GALVÁN ETA NIÑO DE ELCHE

Flamenkoaren bi iraultzailek beren indar artistikoak batu dituzte konbentzioak hautsi eta etorkizunera begira jartzeko. Biren eromena eta proposamen bakarra, klasikoa eta garaikidea aldi berean, oin bat tradizioan eta bestea berrikuntzan dituen. Ortodoxiaren araztasuna haustea da bi artista definigaitz hauen bereizgarria. Topagune bat, non batera jartzen baitute flamenkorik klasikoenez dakiten guztia XX. mendeko abangoardiekin fusionatzeko: tekno musika, elektronika edo minimalismoa. Kabaret berria, dekoraturik edo jantzi berezirik gabea, bi sortzaile ikonoklasta hauen arteko lotura estua barren-barreneraino arakatzeko duena.

dFERIA

dFERIA, arte eszenikoen feria, ikus-entzuleen eta kritikarien artean arrakasta handia lortuta amaitu zen, "oso sentsazio onekin". **dFERIA**ren hogeita zazpigarren edizioan, "etorkizuna" hitza leit-motiv zela, 28 ikuskizunen 41 funtzio programatu ziren, 10 agertokitan. 4.000 lagun baino gehiago izan ziren programaturiko emanaldietan, eta, batez beste, % 98ekoa izan zen aretoen okupazioa. Akreditatuei dagokienez, aurreko urteetakoen % 80 etorri ziren. Kontuan izanik zein edukiera murriztuak genituen eta pandemia-egoera, esan dezakegu feria oso arrakastatsua gertatu zela.

164

ETORKIZUNA

dFERIAk ikus-entzuleei eskaintzen dien antzerki eta dantza jaialdiarekin batera, jarduera profesional betea azpimarratuko dugu: bilerak, topaketak, erakusketak, harreman profesionalak, proiektu-aurrekezpenak, negozio-bilerak, lantegiak.

Antzoki Zaharra

Antzoki Zaharra Euskal Herrian den euskarazko antzerkiaren programazio egonkor eta erregular bakarraren zutabe nagusia da, eta badira zenbait urte horretaz arduratzen direla Donostia Kultura eta Euskararen Udal Departamentua. Kale Nagusiko agertokitik pasatzen dira euskarazko antzerkian dabilzan konpainia nagusiak, hala nola **Txalo**, **Pausoka**, **ATX Teatroa**, **Tartean**, **Tanttaka**, **Teatro Arriaga**, **Artedrama**, **Jon Plazaola**...

Gazteszena

Egia Kultur Etxeko aretoak lan bikaina egiten jarraitzen du dantza garaikideari buruz. Programazio orekatua, euskal dantza garaikideko konpainiak - besteak beste, **Amaia Elizaran** eta **Adriana Bilbao**-, Espainiako estatuko beste dantza-konpainia batzuekin batera -hala nola **Thomas Noone**, klasiko bat-. Ikus-entzule gazteen bilaketa ez da dantzara mugatzen; antzerkian ere, eta bereziki euskarazko ikuskizunetan, **Artedrama** eta **Axut** konpainiak eta **Altsasu** ikuskizuna pasatu dira, besteak beste, Gazteszenatik. Nabarmentzekoa Donostiako Teatro Estudio konpainiari egindako omenaldia, **Baile de huesos** programatuta, oso emanaldi hunkigarri eta merezimendu handikoan. **Matarilek** ez zuen huts egin Egiako aretoko hitzorduan, azken sorkuntza-lana ekarri baitzuen: **El diablo en la playa**.

Imanol Larzabal

Lugaritz Kultur Etxeko **Imanol Larzabal** aretoaren lanak, formatu txikian, orekari eusten dio: artista eta konpainia berriak, batetik, hala nola **Doble Sentido** edo **El Sol de York**, eta konpainia tradizionalagoak, bestetik, hala nola **El Mono Habitado**, **Teatro del Temple** edo **Teatro En Vilo** Donostiarako sarbide ona da artista hasiberrientzat. Estilo desberdinak, kontzeptu desberdinak, artista gazteentzako aukera... Hautaturiko gaiak gaur egungo gizartearen sentiberatasunarekin bat egiteko konpromisoari esker, programazioak ahalegin interesgarria egiten jarraitzen du ikus-entzuleekiko loturari eusteko.

2

0

DK

Programazioa
MUSIKA

2

1

Programazioa MUSIKA



166

Gatibu

2021. urtean, programazio ugari eta askotarikoa eskaini da, eta Euskal Herriko eta Espainiako proposamenak asko izan dira. Gorabehera gutxi izan ziren, bi kontzertu besterik ez ziren bertan behera geratu, urteko azken astean.

Ikus-entzuleak, pandemiaren araudiak ezarritako mugen eta edukieren barruan, ugari etorri ziren, eta ohikoak izan ziren erabateko betekadak.

Proposamen gazte eta joera berrietakoak izan dira nagusi programazioan, eta batzuetan, beste aretorik ezean, Victoria Eugenia Antzokiak hartu ditu proposamenak, oso garaikideak eta oso jendearen gogokoak.

Alde horretatik, honako hauek nabarmendu daitezke: **Anari, Arnau Griso, Sen Senra, Gatibu, Iker Lauroba, Ismael Serrano, Kalakan, Mala Rodríguez, María Arnal** eta **Marcel Bagés, Maren, Morgan, Niña Coyote** eta **Chico Tornado, Olatz Salvador, Quique González, Rafa In Memoriam (Rafa Berrio** gogoratzeko kontzertua), **Rodrigo Cuevas, Rulo y La Contrabanda...**



Olatz Salvador



Rodrigo Cuevas



© Antonio Porcar

Bruce Barth © Antonio Porcar

Amaia Zubiriak irabazi zuen **Adarra Saria**, eta kontzertua eman zuen ekainaren 21ean.

Udazkenean, kontzertu-ziklo bat aurkeztu zen, non pianoa izan baitzen protagonista: **Uri Caine, Trio M, Giovanni Mirabasi, Bruce Barth, Mikel Azpiroz, Marcin Masecki,...**



Amaia Zubiria

2

0

DK

Programazioa
ZINEMA ETA
IKUS-ENTZUN-
EZKOAK

2

1

Harkaitz Cano

K A N D E L I K A R A

*Bumeli buruzko
film baterako
apunteak*



IX

Nosferatu bilduma

Programazioa ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK



Los olvidados - Nosferatu Buñuel



Buñuel en Toledo - Argazkia Carlos Saura - Nosferatu

2021ean, gure ikus-entzunezko jardueren hartzaileek beren konpromisoa erakutsi dute pantaila handian emandako zinearekin, esperientzia kolektiboa den aldetik, ondo erantzun baitiote, mugak muga, gure programazio instituzionalaren ahaleginari eta beste erakunde batzuekin elkarlanean egindakoari.

Luis Buñuel izan da ardatz nagusia, Historiako zinegilerik handienetako bat, Donostia Kulturaren Nosferatu programazioak haren filmografia osoa eman baitu, Tabakaleran eman ere, ohi bezala. Hainbestearinokoa izan da arrakasta, non saio batzuen bigarren emanaldia programatu behar izan baitzen urtearen zati batean.

Gure ohiko zinemaldi nagusiez gainera – Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea eta Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia (bere atala du honek memoria honetan)–, 2021ean DK-k diruz lagundu dituen zinemaldien artean aipatu behar dira **XIV. Dock of the Bay**, zeina ekainera aldatu baitzen, **Itsaspeko 45. Zinemaldia** eta **Donoskino V**, film laburrei eskainia.

Beldurrezko Astea:
9400 ikusle inguru zine aretoetan,
eta 6000 ekitaldi paraleloetan.

Giza Eskubideen Zinemaldia:
3800 ikusle presentzialak,
5816 ikusle online (ikastolak) eta
3866 ikusle ekitaldi paraleloetan.

Mai Zetterling

(1925, Västeras – 1994, Londres)



Mai Zetterling Zikloa

Menditouren Zinea eta Mendia saioek urtarrilean jarraitu zuten, oso harrera onarekin. Oso harrera ona izan zuten, halaber, **Zinegoak** zinemaldiaren luzapenak (apirilean) eta **Emakumeen Etxearen** ziklo berriak, zeina oraingoan Mai Zetterling zinegileari eskaini baitzitzaion.

Antzoki Zaharrak hainbat eratako **gala ikus-entzunezko eta sozialak** hartu zituen: Esciviren ikasturtea, Larrotxeneko ikasturtearen amaiera-ekitaldia -gure Bideoaldiarekin-, AGISAS gala eta Begiradak lehiaketaren amaierako gala. Victoria Eugenia Antzokian, Atzegiko ikasleek beren trebeziak erakutsi zituzten.

Tinkorekin hitzarmenez lotutako **Euskara Zine Aretoetara** programak online formatuan jarraitu zuen ekainaren azkenera arte, eta udazkenean aurrez aurreko eredura itzultzen saiatu zen poliki-poliki.



Valentina - Zinegoak

Bang Bang Zinema urtearen hondarrean baino ez zen berriro jarri martxan, zine-aretoak edukiera osora itzuli zirenean, eta bi saio programatu zituen, bat Beldurrezko Astearekin lankidetzan.

Bukatzeko, **Kresala zineklubak** bere ohiko saria eman zuen berriz ere urte hondarrean, film bat proiektatzearekin batera. Oraingoan, Afrikar Zinearen Jaialdia omenduz.



Everest -The Hard Way - Menditour 2021

2

0

DK

Festak

2

1

Festak



Malabarek

Errege Magoak

Sortaldeko Errege Magoak ezin izan ziren ohi bezala etorri gure hirira, baina, hala eta guztiz ere, moldatu ziren haur donostiarrei agur esatera etortzeko, aurreko urteetan egin izan duten bezala.

Donostiara iritsi aurreko egunetan, Erregeek **bideoak bidali zizkiguten, bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz** -bi- biak zeuden **egokituta entzumen-arazoak** dituzten haurrentzat ere-, non bidaiaren xehetasunak ematen baitzizkiguten, bai eta mezu labur bat ere, Donostiako haurrei zuzendua. Mezuak arrakasta handia izan zuen txikienen artean, eta lehen egun haietan **15.000 aldiz ikusi zuten**. Bideo horiez gainera, Erregeek Donostia Kulturaren webgunea eskaini zuten haurrek plataforma horren bidez **idatz zituzten beren gutunak**, eta, hala egin zutenei, bideo batez erantzun zien zeini bere gogoko erregeak.

Erregeei ere ez zitzairen arrotza gertatu pandemia, eta hiriaren erdialdeko kaleetan egin ohi den **desfilea ezin izan zen egin**. Hala eta guztiz ere, eta haur donostiarrak Erregeak ikusi gabe gera ez zitezten, urtarrilaren 5ean **topaketa berezi-berezi bat antolatu zen Ilunben Meltxor, Gaspar eta Baltasarrekin**. Sortaldeko magia ere izan zen bertan, formatu txikiko zirku-ikuskizunak zirela medio. **Bost saio** guztira, goizez zein arratsalde, **2.000 haur inguruk** aukera izan zezaten Erregeen etorreraz gozatzeko. Gainera, saio horietako bat **streaming** bidez eman zen, zertarako eta Ilunben bertan izateko egin zen zozketan sarrerarik lortzeko zori ona izan ez zuten haur guztiek ere ikuskizunaz gozatu ahal izan zezaten. Ikuskizunaren gidioa **Juan Terol** donostiarrak egin zuen, eta aurkezpena **Maite Eskarmendi** eta **Oraitz García**ren esku egon zen.



Errege Magoak

Txikiak ez ziren bakarrak izan Erregeen mezu eta agurrak jasotzen; gure zaharrek ere, Donostiako egoitzetan bizi direnek, omenaldi beroa jaso zuten, zeinaren bidez Meltxor, Gaspar eta Baltasar, jakinik ezin zirela bertaratuko bisita egitera azken urteetan egin ohi duten bezala, nola eta bideo baten bitartez adierazi eta opa baitzizkieten beren asmorik onenak eta animoak, dugun egoera honi ahalik eta ondoen aurre egiteko.



Baltasar erregea eta Pajeak



Danborrada palkoan

San Sebastian eguna - Danborrada

Ez dugu uste oker gabiltzanik esatean ezen, donostiarrentzat, **Danborradarik gabeko** urtea, noiz eta urtarrilaren 20an ez baita entzuten gure kale eta plazetan danborren eta barrilen tarrapatarik, **urte arraroa** dela. Urte bitxia. Gure hiriaren egun handia ezin izan zen ospatu ezaguna dugun moduan, ezin izan ziren egin danborrada jendetsuak, eta ospakizun txikiagoekin askietsi behar izan genuen, eta teknologiaz baliatuta beste behin ere, hala bateratu ahal izan baitziren batzuk eta besteak.

“**La Izada, la Infantil y la Arriada la tocamos todas y todos. Etxetik eta denon artean**” lemaren hotsean, donostiar herritarrek izan ziren protagonista gure jaietako jarduera hain enblematiko hauetan, bere etxe eta balkoietatik, eta telebista zela medio. Horretarako, aurreko egunetan, Donostia San Sebastián Festak-etik, **hiru bideo grabatu ziren**, eta gero zabalkundea eman zitzairen. Hala hasi ziren Festaren hiru unerik esanguratsuentzat jo daitezkeenak: **Bandera jasotzea, Haur danborrada** eta **Bandera jaistea**.

GU
ERE
BAI!

Deia egin genuen nahi zuten danborradek grabazioetan parte har zezaten, bakoitza hiru kidek ordezkatuta (danberrari bat eta bi barril-jotzaile). Guztira, **80 danborradak** eman zuten baiezkoa, eta, **Donostiako Udaleko Musika eta Dantza Eskolako Irakasleen Bandarekin** –Juan José Ocón zuzendari zuela–, **Orfeo Donostiarrekin** eta **Easo Abesbatzarekin** eta **Kresala Dantza Taldea** eta **Goizaldi Dantza Taldearekin** batera, hiru bideoak grabatu zituzten, San Sebastian egunean urtero jo ohi diren 12 piezak interpretatuz (gainera, Bandera jaistearen bideoan “Cosacos del Kazan” pieza eta Errealaren ereserkia interpretatu ziren). Danborradari boluntarioak eskatu zitzaizkien, grabazioetan danberrari eta barril-jotzaileak zuzentzeko, eta beren burua eskaini zuten pertsonen artean zozketa egin eta sei lagun aukeratu ziren denen artean (bi banderaren igoerarako, bi jaitsierarako eta beste bi Haur Danborradarako).

Bideoak **ETBtik eman ziren**, hiru jarduerok hasi ohi diren orduetan, bai eta **Udalaren eta Donostia San Sebastián Festak-en kanal digitaletatik** ere.

Donostia San Sebastián Festak-ek egindako **beste bideo bati** ere oso harrera ona egin zioten donostiarrek. **10-12 minutuko** iraupeneko bideo horretan, zenbait donostiarrek -haur zein heldu- **Festaren inguruko inpresioak eta esperientziak** azaldu zituzten, nola bizi ohi dituzten eta nola biziko zuten urte hain berezi batean. Bideo horretan, jendeak bere sentipenak adierazi eta donostiar izatearen eta sentitzearen harrotasuna erakutsi zuen.

Ez zen falta izan **Txistularien Udal Bandak** gure egun handia iragartzeko eman ohi duen kontzertua ere; oraingoan, Santa Maria Basilikan egin zen, eta segurtasun-neurri guztiak betez eta edukiera gehienez ere 200 lagunekoa izanik.

Aurreko egunetan, halaber, **Donostiaren 10.000 bandera** banatu ziren **hirian**; parte bat, instituzioen eraikinak eta eraikin enblematiko batzuk apaintzeko, eta beste guztiak donostiarren artean, beren balkoietan ipin zituzten.

Donostia San Sebastián Festak-etik bultzatutako beste jardura bat **Danborradako jantzien erakusketa** izan zen. **Hiriko zenbait dendatako erakuslehoetan** ikusi ahal izan ziren. **89 danborradak** (58 helduenak, 31 hurrenak) utzi zuten jantziren bat beren auzoko dendaren batean ikusgai jartzeko, urtarrilaren 15a eta 25a artean.

Azkenik, Danborradaren webgunetik jardura bat sustatu zen, Haur Danborradaren parte diren milaka eta milaka danborrarietara zuzendua: **konpainia guztien marrazkiak** deskargatu ahal izatea, koloreztatzeko

Guztira, jardura sorta zabala, gure egun handiena beste era batera ospatzeko.



Danborradaren aurkezpena © Javier Campos



Victoria Eugenia Danborrada

DANBOR ZUZENDARIA

IGOERA

Leandro Carro
(Baso Etxea)

JAITSIERA

Arantzazu Lersundi
(Gure Borda)

HAUR DANBORRADA

Eneko Esteban
(El Carmelo Ikast.)

UPEL-ERRADA ZUZENDARIA

IGOERA

Irati Enjuto
(Real Club de Tennis de San Sebastián)

JAITSIERA

Braulio Barreiro
(Intxaurra)

HAUR DANBORRADA

Nora Pradera
(Gaztelubide Txiki)

Donostiako kaldereroak

Hungariako Kaldereroen Konpartsa

Tradizionala osatzen duten 19 tribuek ere ez zuten desfilerik egin, ez eta hiriko auzoetan ibili ohi diren beste konpartsa guztiek ere.

Konpartsa Tradizionalak **bideo bat** egin zuen, zeinean gogoratu baitzigun bizirik eutsiko ziotela suari kanpamentu guzti-guztietan.

Inude eta Artzainak

Inude eta Artzainen konpartsak ere ezin izan ziren atera pandemia zela-eta.



Erakusketa Garberan

Inauteriak

Inauterietan egiten diren konpartsen desfileak ere ez ziren egin, eta **Inauterietako ekitaldiak hutsaren hurrengo izateraino gutxitu ziren; Donostia San Sebastián Festakek, Garbera Merkatalgunearekin eta San Sebastián Shopsekin batera, atzera begirakoa** antolatua zuen azken urteotan Donostiako Inauterien irudi izandako **kartelek**in, eta horri gehitu zitzaizkion azken urteotako **Momo jainko eta jainkosek erabilitako jantziak**, bai eta konpartsek berek Inauterien zenbait ediziotan *atrezzo* gisa erabilitako objektuak ere. Erakusketa Garbera Merkatalgunean egon zen, otsailaren 11tik 28ra bitarte.

Bestalde, Altzako auzoan egin ohi den **Piñata igandear**en ospakizuna gogoratzeko, beste erakusketa bat antolatu zen **Harria parkean**, non auzo hau omendu baitzen inauteri-tradizio handia duelako, eta bereziki Inauterietako irudi nagusia -**Momo jainko edo jainkosa**- haragiztatu zuten auzoko pertsona guztiak. Tamalez, **erakusketa**k ez zuen iraun, eguraldiak hartarako prestatutako kartel eta argazkiak desegin baitzituen inauguratu eta ordu gutxira.

San Juan bezpera

San Juan bezperan ez ziren piztu ohiko suteak, eta ez zen egin Konstituzio plazan egin ohi den ekitaldi instituzionala ere, alkatea eta udalbatzako zenbait kide elkartzen dituen.

San Juanen ospakizuna kontzertu batera mugatu zen, **San Bizenteko elizan**, zeinean abesbatza bik jardun baitzuten batera: **Leioa Kantita Koralak** eta **Easo Gazte Abesbatzak**. Kontzertua edukiera mugatuz egin zen, doan eta jendea libre zeuden jarlekuak bete ziren arte onartzuz.



Ilunabarra Zurriolan

Aste Nagusia / Abuztua Donostian

Bigarren urtez segidan, Aste Nagusia ez genuen ohi bezala ospatu. Hala eta guztiz ere, pandemiak zertxobait hobera egin zuenean, eta txertoa populazioaren zati handi batengana iritsi eta gero, bigarren aldiz segidan egin ahal izan zen **Abuztua Donostian** izeneko jarduera. Abuztuan **183 jarduera** egin ziren guztira Donostian, formatu txikikoak, batez ere asteburuetan, ostegunetik igandera bitarte; jende-sail zabalei zuzendutako jarduerak, bi ezaugarriok zituztenak denak ere: aire librean izatea gehienak, eta segurtasun-neurriak eta edukiera-neurriak zorrotz gordeta egitea.

Oro har, programaturiko jarduerari oso erantzun ona eman zien jendeak, nahiz eta batzuk aurrez pentsatutakotik oso urrun geratu.

Kontzertuek, aire libreko antzerki-ikuskizunek eta **haurrentzako jarduerak** oso erantzun ona jaso zuten jendearengandik. Donostiako auzoetan programatu genuen **zineak**, aldiz, ez zuen bildu espero eta nahi adinako jendetzarik.

Argi dago **Erraldoien Konpartsak** oso erakarmen handia duela oraindik ere haurren artean, eta **San Telmo Museoarekin** batera Museoko klaustroan antolatu genuen erakusketak jendetza handia erakarri zuen, familiak gehienbat. Euskaraz zein gaztelaniaz egin ziren **escape street** direlakoetan, eskainitako leku guzti-guztiak bete ziren, itxaron-zerrenda izateraino.



Tio Teronen Semeak



Erakusketa San Telmo Museoan © Oskar Moreno

Gastronomia-lehiaketak Aste Nagusian egon ohi direnak baino gutxiago izan ziren, baina oso parte-hartze handia izan zuten denek ere. Jendeak oso ondo erantzun zien Aste Nagusiko jarduera ohikoei; esate baterako, Kurasaalean **bertsolariei** emandako erantzuna eta Trinitate plazako herri kirolei emandakoa bikainak izan ziren; bai eta **Urrezko Kopari** emandakoa ere, non **Joxe Mari Olasagastik**, proba irabazitako azken gipuzkoarrak (2007), jendearen omena jaso baitzuen, eta garaikurra eman baitzion **Mikel Larrañaga** irabazleari, gipuzkoarra hau ere; eta **Igeldoko Harria**ren kasuan -non emakumeentzako proba aurkeztu baitzen, eta 2022an egingo baita lehen aldiz **Uliako Harria** izenez-, salgai jarritako sarrera guztiak agortu ziren.

Beste **kirol jarduera** batzuentzat ere izan zen tokirik: pilota, hondartzako boleibola, bizikleten eta patinen martxa, *nordic walking*, saskibaloia...

Zuzeneko musika, dantza eta argiztapena biltzen zituen ikuskizun bat, **Iluntz**, gure hiriko zenbait kulturgunetarako programatu zen, eta oso kritika onak jaso zituen.



Herri Kirolak

ABUZTUA DONOSTIAN PALMARESA

HERRI-KIROLAK

Igeldoko Harria (irabazlea)

Jokin Eizmendi

Urrezko Kopa (irabazlea)

Mikel Larrañaga

MARMITAKO LEHIAKETA

Bikote irabazlea

Xabier Mendizabal, Ramón Mugika

GAZTEENTZAKO GASTRONOMIA-LEHIAKETA

“Prestatu gosari osasuntsua”

Bikote irabazlea

Sara Garde, Lucía González

LEGATZA SALTSA BERDEAN LEHIAKETA

Bikote irabazlea

Idurre Aristizabal, Ibai Turrillas

2021. urtean, Feria-lekua berreskuratu genuen. Orain arte Koldo Mitxelenaren aurrealdean (haurren feria-lekua) eta Paseo Berrian (zortzi urtetik gorako lagunentzako jolas eta jostagarriak) ipini izan direnak Paseo Berrian paratu ziren denak, abuztuaren 1etik 15era -azkenik, abuztuaren 16raino luzatu zen epea, jendearen erantzuna sekulakoa izan baitzen-, eta 130.000 bat lagunek bisitatu zituzten. Jarduera egin ahal izateko ezarri genituen segurtasun-neurriak eta edukiak zirela-eta, jolas eta jostagarrien kopurua gutxitu egin zen, ohiko 49etatik 27ra. Feria-lekurako sarreretan, semaforoak ipini ziren, edukiera eta feria-lekuan zegoen jende-kopurua une oro kontrolatzeko, eta, oro har, sistemak ondo funtzionatu zuen. Esan beharrik ere ez dago feria-lekua berriro jartzea eskertu zuela ferianteen kolektiboak; izan ere, hainbat hilabetez beren lanean jardun ezinik egon ondoren, adibidetzat jarri gintuzten, frogatzeko nola ezar zitezkeen segurtasun-neurriak eta nola, aldi berean, beren eginkizunean jardun zezaketen gure inguruko hirien jai-egunei begira.

Abuztuaren 31 oroitzeko jarduerak eman zioten buru hilabeteari; azken urteetakoak baino askoz jarduera neurtuagoak, intimoagoak, ikus-entzunezkoen eta hitzaldien bidez gogoratuz zer gertatu zen 1813an, eta kontzerturen bat edo beste ere bai, egun haren oroigarri.



Barrakak

Su Festen Nazioarteko Lehiaketa Jaialdia

Bigarren urtez segidan, Su Festen Nazioarteko Lehiaketa **ezin izan zen egin.**

Euskal Jaiak / Iraileko jarduerak

Aurreko urtekoaren antzeko formatua erabiliz, zenbait jarduera programatu ziren Donostiako estropaden ohiko hitzordua osatzeko. Abuztua Donostian programako jardueretan bezala, jarduerak **bi asteburuetan** (ostiral-larunbatetan) kontzentratzen saiatu ginen, eta oso kokapen zehatza eman ez Parte Zaharrean, eta bereziki **Trinitate Plazan**. Bi kontzertu (**Faltriqueira** eta **Errenferriako Musika Banda, Donostiako Txistularien Udal Banda**ekin batera), **Dantza Askatuko Lehiaketa** (hamaika bikote lehiatzen, eta **Katerin Artola** eta **Iker Belintxon** irabazle), **“Sagardoak elkartzen gaitu”** kanpainaren aurkezpena, **Donostia Bertsotan, kirol probak** (pilota-txapelketak eta bolo-jokoa -lehen aldiz- Arroitxulo parkeko bolatokian), bertako produktuen **azokak**, eta abar.

Donostiako Estropadak


Irailaren batean (emakume taldeen sailkapena), 2an (gizonezkoen taldeen sailkapena), 5ean (lehen jardunaldia) eta 12an (bigarren jardunaldia) jokatu ziren 2021eko Kontxako Banderaren estropadak. Urte horretako edizioa edukiera mugatuta egin zen, ikusleen oso kopuru txikia izanik, kontrolatzeko, eta bederatzi zona ezarri estropadak ikusteko. Zona horiez gainera, eta ohikoa denez, Paseo Berriko tribuna ipini zen. Guztira, estropadak bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten pertsonen kopurua 2.760 lagunekoa izan zen, eta sarrerak estropadak jokatu aurretik erosi behar izan ziren, dela Internet bidez, dela Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletara joanda.

Probaren inguruan hartutako segurtasun-neurriak aurreko urtekoen oso antzekoak izan ziren, eta banderen ematea **Ciudad de San Sebastián** katamaranean egin zen beti bezala, eta badian.


Beste behin ere eman ziren **ADEGI Fabrika Nueva Cultura** sariak -2021. urtean VI. edizioa egin zen-, Gipuzkoako traineru onenari, bai nesketan eta bai mutiletan.



Estropadak - Arraun Lagunak



Estropadak - Kartela



2.760 pertsona

2021eko DONOSTIAKO ESTROPADAK
(Irailak 1, 2, 5 eta 12)

Ikusle-kopurua murriztuta egin zen.

KONTXAKO XIV. BANDERA

(EMAKUMEENTZAT)

21
TRAINERU PARTE-HARTZAILEAK

SAILKATUAK

Donostia Arraun Lagunak
Orio - Orialki
Hondarribia Bertako Igogailuak
Tolosaldea
Deustu - Tecuni - Bilbao
Hibaika Jamones Ancín
Club de Remo Chapela

Horiekin batera, Donostiarra Lacturale trainerua ere aritu zen bi igandeetan Donostiaren ordezkari.

IRABAZLEA

Donosti Arraun Lagunak

(GIZONEZKOENTZAT)

24
TRAINERU PARTE-HARTZAILEAK
(25ek eman zuten izena, baina azkenean, Castrok ez zuen parte hartu)

SAILKATUAK

Santurtzi - Transportes y Grúas Aguado
Go Fit Hondarribia
Zierbena Bahías de Bizkaia
Cabo
Orio - Orialki
Bermeo Urdaibai-Avia-Enagas-Echebestar
Club Remo Ares

Horiekin batera, Donostiarra Amenabar trainerua ere aritu zen bi igandeetan Donostiaren ordezkari.

IRABAZLEA

Santurtzi - Transportes y Grúas Aguado



Olentzero eta Mari Domingi

Santo Tomas

Feria prestatzeko lanetan aritu baginen ere, eta ordurako jende asko izena emanda egonik beren produktuak Donostian erakutsi eta saltzeko, azkenik, eta osasun-egoerak txarrera egin zuelako, **Feria bertan behera geratu zen bigarren urtez segidan**. Hiriko zenbait auzotan egitekoak ziren jarduerak ere ezin izan ziren egin.

Olentzero eta Mari Domingi

Urtero bezala, Olentzero eta Mari Domingi Donostiara iritsi ziren **abenduaren 24an**. Donostiako neska-mutikoek biekin bat egiteko aukera izan zuten, eta hiriko zenbait auzotan egindako ibilbidean ikustekoa, bai eta gutunak haiei emateko aukera ere Udaletxeko terrazan, eta, eguna amaitzeko, desfileaz gozatu ahal izan zuten hiriaren erdialdeko kaleetan.

Goizean, Udaletxetik ibilgailu antigoaleko batean abiatuta, **Egia, Intxaurrondo. Altza, Martutene, Amara eta Morlans auzoak bisitatu zituzten**. Arratsaldean goiz, **Udaletxeko terrazan**, berekin argazkia atera eta gutuna eman nahi izan zieten haurrak hartu zituzten. Hori guztia aire zabalean egin zen, ukipen fisikoa eta hartu-emana saihestuz, musukoak jantzita une oro, segurtasun-tartea gordez betiere, eta jarduera egitea bermatuko zuen COVID protokoloa betez. Ondorengo **desfilea 12 kolektibok osatu zuten**, eta, ikusleen artean jende-pilaketarik izan ez zedin, 400 metro **luzatu zen ohiko ibilbidea**; esandako protokoloa indarrean jarri zen desfilean ere, eta **ez zen jaurti gozokirik**.

Auzo eta ikastetxeetako irteerak ere gutxiago izan ziren, eta **11 kolektibok** edota ikastetxek egin zituzten Olentzero eta Mari Domingiren inguruko irteera edo jardueraren bat.





Eskualdeetako Etxeak - Aurreko Edizioak © Javier Campos

Kultur jarduera eta aisialdikoak Donostiako auzoetan

Kultur jarduerak eta aisialdikoak Donostiako auzoetan 2020an bezala, Donostiako **auzoetako jaien ospakizunei berriro eragin zien** osasun-egoerak, eta berrasmatu egin behar izan ziren, zertarako eta, kontuan izanik agintariak **ezarritako zenbait baldintza, kultur eta aisialdiko jarduera batzuk** antolatu ahal izateko, berriz ere giroa bere onera ekartzen lagunduko zutenak formatu txikiko jolas eta kultur jardueren bidez, egun jakin batzuetara ekarrita, baina auzoetako jaiak berez sortu ohi duten jai-giroa islatzetik urrun, hala ere.

Guztira, **17 kolektibok** hautatu zuten halako jarduerak egitea, jaiak antolatu ohi dituztenen artetik.

Beste jarduera batzuk

Etxe erregionalen ospakizunak ere ez ziren egin, salbu eta Errioxako Etxeak egin zituen **azokak, Mahats-bilketaren jaia** eta **Errioxaren** eta **San Bernaberen eguna** ospatzeko Boulevardean.

Senidetzeak

Gure hiriak gaur egun dituen senidetza-harremani dagokienez, jarduera bakar bat egin zen, **Marugame** japoniar hiriarekin trukatu ohi diren **plaka-garaikurrak bidaltzea**. Ez zen izan trukerik, Marugametik ez baitzen plakarik bidali, 2021. urtean ez zelako izan lehiaketarik Donostian.

Eskerrak babesleei

Un año más, queremos expresar nuestro Beste behin ere, gure esker ona adierazi nahi diegu hainbat eta hainbat erakunde eta markari, haiek gabe jarduera batzuk ezin izango baitziren egin. Eskerrik asko lankide izateagatik, honako hauei: **Coca Cola, El Diario Vasco, FCC, Eroski, Supermercados BM, Insalus, Nestle, EKP, Frigo, Super Amara, ADEGI**, eta abar.

2

0

DK

Jaialdia
DONOSTIAKO
JAZZALDIA

2

1

Jaialdia DONOSTIAKO JAZZALDIA

Kontzertu ahaztezinak agertoki
guztietan eta ikusleen erantzun bikaina
izarrez beteriko edizio batean

Hurrengo edizioa 2022ko
uztailaren 21etik 25era egingo da



56 JAZZALDIA



56. Jazzaldia arrakastatsua izan da. Bigarren urtez jarraian, bizi garen egoera berezietara egokitu behar izan duen jaialdi batera joan gara, edukiera txikiarekin eta nahitaezko maskarekin. Hala ere, Jazzaren zaleek modu eredugarrian erantzun dute, gogo handiz eta eszenatoki guztietako sarrerak agortuta, beti ardura handiz, eta osasun eta segurtasun neurriak uneoro betez.

56. Jazzaldia arrakastatsua izan da. Jazzaren zaleek modu eredugarrian erantzun dute, gogo handiz eta eszenatoki guztietako sarrerak agortuta, beti ardura handiz, eta osasun eta segurtasun neurriak uneoro betez. Sarrera guztiak ordainpeko 27 kontzertuetatik 15etan saldu dira: 5 Trinitate Plaza Keler, 5 Škoda San Telmo Museoa, 3 Kutxabank Kursaal Auditorioaren 5 kontzertuetatik, 1 Chillida Lekun eta 1 Victoria Eugenia Antzokian. Oro har, ordainpeko 27 kontzertuek % 90eko salmenta-ehunekoa lortu dute.

Trinitate Plaza Keler

Trinitate Plaza Kelerrek 10 kontzertu hartu ditu 5 gauetan, eta ikus-entzuleek edukiera gauero bete dute.

Dave Douglas eta **Franco d'Andrea** izan ziren lehenak, kontzertu gogoangarri batekin, non tronpeta-jotzaile estatubatuarrek eta pianista italiarrak elkarrizketa musikal irudimentsu eta zoragarria egin zuten. **Cécile McLorin Salvant**, Jazzeko emakumezko ahotsik interesgarrienetako bat, **Sullivan Fortner** pianoan lagun zuela.

Ostegunean, uztailaren 22an, kubatar gau handi batez gozatu ahal izan genuen, non bi piano-jotzailek irabazi zuten zirimir donostiar iraunkorraren gainean. **Gonzalo Rubalcabarekin** hasi zen gaua, pianoan, eta **Aymée Nuviola** ahots ikusgarriarekin. Bigarren kontzertua **Chucho Valdés** Donostiako Jazzaldia Saria emanaz hasi zen. Piano jotzaile kubatarrek, hunkituta, bere aitari, **Bebo Valdés**, duela 18 urte eman zioten Donostiako Jazzaldiaren sari bera jaso zuen, eta, ondoren, latin Jazzeko piano-jotzaile onenetakoa izaten jarraitzen duela erakutsi zuen.



Dave Douglas, Franco d'Andrea Q_071 © lolo vasco _Jazzaldia

Ostiralean, uztailaren 23an, bi jenioz gozatu ahal izan genuen pianoan. **Marco Mezquidarekin** hasi zuen gaua, bere azken proiektua aurkeztu ziguna, **Talisman**. Menorkiarra pozik eta, beti bezala, talentuz gainezka egon zen. Ondoren, piano erraldoi batek, **Kenny Barron** maisu maisuak, Jazz gau zoragarria eskaini zigun, **Steve Nelson** bikain batek bibrafonoari lagunduta, **Peter Washington** bikain batek kontrabaxuari eta **Jonathan Blake** erraldoi batek bateriari lagunduta.



Larunbatean, uztailak 24, bi emakume izan ziren protagonista. Agertokira igotzen lehena **Naïssam Jalal** izan zen, Rythms of Resistance bere taldeak lagunduta, giroa magia beroz eta lasaitasun bikainez bete zen, Ekialdeko eta Mendebaldeko musikaren arteko oreka zoragarria. Gaueko bigarren kontzertuan **Noaren** ahots paregabea izan zen protagonista, **Gil Dorren** gitarrarekin eta **Iñaki Salvadorren** pianoarekin batera. Elkarrekin, **Txoria Txori** eta **La vida es Bella** oihukatzen amaitu zuen publiko bat miretsi zuten.

Azkenik, uztailaren 25ean, Jazzeko bi pertsonaia nagusi, bakoitza bere hirukotearekin: **Brad Mehldau** piano-jotzailea, lirikoa eta bikaina, eta **Bill Frisell** gitarra-jotzailea, magistrala eta bere sonoritatean bakarra. Azkenik, Jazzaldiaren eszenatoki sinbolikoenak kalitate artistiko goreneko une ahaztezinak eskaini zituen.



Bill Frisell Trio_088 © Iolo Vasco_Jazzaldia



Brad Mehldau_05 © Iolo Vasco_Jazzaldia

56



José James_08 © lolo vasco _Jazzaldia

Kutxabank Kursaal Auditorioa

Kutxabank Kursaal Auditorioan 5 kontzertu handi ikusteko aukera izan dugu, bat arratsaldean. Asteazkenean, uztailak 21, **Jose Jamesek**, estilo eta karismaz beteriko bere ahots ikusgarriarekin, listoia oso goian jarri zuen hasieratik. Hurrengo egunean, **Buikak**, bere estilo guztiz pertsonalarekin, publiko bat txunditu zuen, baleazalea ikusteko eta entzuteko irrikaz, sarrerak zenbait egun lehenago agortu zituelako. Ostiralean, hilak 23, **Jorge Pardo** eta **Niño Joselaren** txanda izan zen. Larunbatean, **Giovanni Guidi** piano-jotzaile italiar gazte eta distiratsua txanda iritsi zen, **Gato Barbieri** saxofoi jotzaile argentinarra omendu zuena (bere emanaldiak oso nabarmenak izan ziren) amerikar eta transalpino musikariekin osatutako seikote izar baten buru zela, non, askorentzat, Jazzaldiaren edizio honetako kontzertu hoberenetako bat izan zen. Azkenik, uztailaren 25ean, egungo ahotsik onenetako batek, **Silvia Pérez Cruzek**, heldutasun handiko une batean, bere abestirik berrienak interpretatu zituen **Farsa Circus Band** taldearekin, edertasun sentiberatasunez beteriko kontzertu delikatu eta sotil batean.



Silvia Pérez Cruz_314 © lolo vasco _Jazzaldia

FCC Victoria Eugenia Antzokia

Uztailaren 21ean, asteazkenean, 12: 30ean, **La Locomotora Negra** taldeak Donostiako Jazzaldia Saria jaso zuen eta, ondoren, bere musikariek kontzertu zoragarri bat eskaini zuten bere 50. urteurrena ospatzeko, erretiratzea erabaki duten arren, sasoi betean jarraitzen dutela erakutsiz.

22: 00etatik 25: 00etara, 12: 30etan, Jazzaldiak JazzEñeren zazpigarren edizioari leku egin zion. SGAE Fundazioak antolatu du jaialdia. JazzEñeren helburua Espainiako Jazz musikariak nazioartean ezagutaraztea eta bultzatzea da. Lau saio bikoitz izan ziren, Jazz hispanoaren gauzarik aipagarrienak bildu zituztenak: hilaren 22an, ostegunean, **Ariel Brínguez Quintet** eta **Caminero Quintet**; uztailaren 23an, **Daniel García** eta **Chano Domínguez** piano-jotzaile handien hirukoteak; 24an, **Smack Dab** kataluniar boskotea eta **Sumrrá** galiziar hirukotea; eta, azkenik, hilaren 25ean, igandean, **Alba Careta Grou** eta **María La Mónica** eta **Javier Galiana** egon ziren.

Škoda San Telmo Museoa

Goizero, 11: 00etan, San Telmo Museoko klaustroan, zaleek 120 lagunentzako lekua agortu zuten pianoaz gozatzeko, akonpainamendurik gabe eta leku paregabe batean, giro intimo eta goxoarekin.

Franco d 'Andreak, Jazz italiarraren maisuak, hizkuntza tradizionala eta abangoardiakoa menderatu zituenak, bere dotoreziaz gozatu zigun uztailaren 21ean. Hilaren 22an eta 23an, bi saio ezberdinekin, **Marcin Masecki** poloniarra, berritzailea eta ezberdina, **Thelonious Monk** handia omendu zuen lehen egunean, eta ragtime-a ekarri zuen gogora, bigarrena, bertaratutakoen oroimenean geratuko diren bi kontzertu. **Marko Mezquidak**, magistralak, publikoa altxatu zuen uztailaren 24an, txalo zaparrada itxi batean. Eta azkenik, hilaren 25ean, igandean, **Iñaki Salvadorrek** berak miresten dituen musikagileei keinu ugari egin zizkien: **Chick Corea**, **Keith Jarret**, **Bach** eta **Duke Ellington**.



Cécile McLorin Salvant 2

Chillida Leku

Aurten bi kontzertu egin dira Chillida Lekun, antzez eta naturaz inguratutako agertoki paregabe batean, non publikoak musikaz gozatu zuen belar berde eta freskoaren gainean eserita, eguzkia nola jartzen ari zen ikusten zuen bitartean.

Uztailaren 18an, igandean, Jaialdiaren aurreko saio batean, **Cécile** abeslaria **McLorin Salvant** eta **Sullivan Fortner** piano-jotzaileak bertaratutakoen gozamenak egin zituzten, bertako giro bukolikoarekin bikain uztartzen zuen musika batekin. Hilaren 24an, **Marc Ribotek**, **Ceramic Dog** hirukotearekin, guztiz kontrakoa egin zuen, kontzertu bikain eta kementsu batekin, non gitarrista eta abeslariak bere alderik borrokalari eta aldarrikatzaileena erakutsi zuen.



Marco Mezquida_189 © Iolo Vasco_Jazzaldia



Jean Toussaint Quintet © Iolo Vasco_ Guuk Gunea_56 Jazzaldia

JAZZALDIA

Frigo Gunea eta Guuk Gunea

25 kontzertu egin dira Frigo Gunean eta Guuk Gunean, 5 egunerokoak, guztiak doakoak eta jende asko bildu da, eta, askotan, 800 lagunentzako gehieneko edukiera osatu du.

Aurtengo ediziorako aukeratutako 10 talde lokalen, Katapulta Tourreko 4 talde hautatuen eta azken urtean disko bat argitaratzeagatik aukeratutako 5 talde lokalen emanaldiez gozatu ahal izan dugu. Horiez gain, **Jean Toussaint** eta **Éric Sevaren** boskoteak ere izan dira.

Txikijazz

TxikiJazz taldeak goizeko 4 kontzertu eskaini ditu, bi Guuk Gunean eta beste bi Kutxa Kultur Tabakalera. Haurrek, familia giroan, **Hollywood Band Kids**, **Swingtronics**, **Ghost Number** eta **Oreka TX** taldeen musikarekin gozatu ahal izan dute.

Zuzeneko emisioak, Appa eta Sare Sozialak

Aurten 18 kontzertu eman dira streaming bidez, 9 Keler plazatik eta 9 Victoria Eugenia Antzokitik. Gaur egun, edizio honetako kontzertuen 15.000 bistaratze baino gehiago daramatzagu Youtubeko gure kanalean (Jazzaldia - Donostia).

Gainera, edizio honetan, Guukek garatutako aplikazio bat estreinatu dugu. 750 pertsonen deskargatu dute aplikazioa eta batez beste egun bakoitzeko 19 minutu eta 45 segunduz izan da erabilia.

Sare sozialetan 37.000 jarraitzaile izatera iritsi gara.

57. Jazzaldia - 2022

Jazzaldiaren hurrengo edizioa 2022ko uztailaren 21etik 25era izango da, eta baldintza postpandemikoetan egitea espero dugu.

2

0

DK

Jaialdia
DKLUBA

2

1

Jaialdia DKLUBA

Dklub programa emanaldi-zirkuitu bat da, helburutzat auzoetako musika-eskaintza dinamizatzea duena, nola eta tokian tokiko banda berriak bultzatuz eta artista ezagunak ekarriz. Oinarrian, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzeta, komertzialak ez bezalako proposamenak programatzeko eta tokian tokikoa balioesteko (hala musika-taldeei nola kolektibo, klub, sustatzaile eta elkarteei dagokienez). Azken batean, Dklubak modu naturalean lortu nahi du programazio-erreferente bat izatea bertako talentuarentzat eta musika-emanaldien zirkuituentzat.

Horren adibide izan zen aurreko urtean bertako klubekin egindako akordioari jarraipena ematea, diruz laguntzeko zirkuitu pribatuko programazioari. Osasun-neurriak zirela-eta egindako edukiera-murrizpenek aretoen jarduna zigortu zuten, eta arriskuan jarri zuten areto ezagun batzuen jarraipena, hala nola **Doka, Dabadaba, Altxerri, Bataplan, iBe!Club** eta beste batzuen.

Areto horien iraupenak hiriko kultur ekosistemarako duen garrantziaz oharturik, eta bertako eszena bizirik edukitzeko helburuz, **Dklubak 63 kontzertu antolatu zituen areto horiekin 2021ean, eta 4.500 ikus-entzule etorri ziren haietara.**





Noa & The Hell Drinkers & Friends

Egoera hain ohiz kanpokoa izanik, zuzeneko musikaren zaleek suharki erantzun zuten berriro, nahiz eta edukierak mugatuak izan eta eserita egon behar. Zirkuituak programazio eklektikoa hartu zuen, eta han izan genituen, besteak beste, **Rüdiger, Ofunkillo, Manolo, Kabezabolo, Los Estanques, Willis Drummond, Elena Setién...**

Urtea baikor hasi genuen, pentsatuz udan osasun-egoerak hobera egingo zuela, baina abelera oso aldakorra zen, eta ezin izan ziren berriro antolatu urteroko jaialdi jendetsu batzuk, hala nola **Musikaren Eguna**, Loiola kalean, **Glad is the Day**, Cristina Enea parkean, eta **Musikagela Fest**, erdialdean egitekoa zena.

Intxaurrondo K. E.ari dagokionez, **Dklubaren** agertoki nagusia baita, 2021a hilean kontzertu bat eskainiz hasi zen. Urtarrilean, **Gari & Maldanbera** izan ziren, eta otsailean **Noa & The Hell Drinkers & Friends**, eta bi-biek erakarri zuten jendetza handia. Apirilean, berriz, **XI. Musikagela Weekend** jaialdia inoiz baino bertakoagoa izan zen, **Mihise** usurbildarrak izan baitziren kartelburu. Nordikaren 10. urteurrenean, oster, **Juárez** iruindarrek jo zuten. Maiatzean, aretoak **Revolution JamRock Biziriken** lehen jardunaldia hartu zuen, eta ekainean **Bruma** madrildarrak, **Musikaren Eguna** zela-eta.





Chill Mafia

Udaren ondoren, gitarra-birtuosoak etorri ziren: **Twanguero** irailean eta **Joseba Irazoki eta Lagunak** azaroan, **Revolution JamRocken** bigarren jardunaldian hain zuzen ere. Azaroan, berriro egin ziren zutikako kontzertuak, urte eta erdiren ondotik.

Urteari modu handiosean agur esateko, abendura atzeratutako **Donostikluba** jaialdia, zeinean une honetan den bandarik lotsagabeena izan baitzen: **Chill Mafia**. Bi urtez edukiera murriztuak eta eserleku behartuak izan ondoren, aretoak berriro jarri zuen "Sarrerarik ez" kartela, edukiera bere osoan zela, Covid-19 pasaporteak eskatu zen lehen asteburuan.



2

0

DK

Jaialdia
FANTASIAZKO
ETA
BELDURREZKO
ZINEMAREN
ASTEA

2

1



Jaialdia FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

Beldurrezko Astearen 32. edizioak animoa eta baikortasuna ekarri zien ikus-entzuleei zein sortzaileei. Jakina, jarduerak mugatu egin behar izan ziren, erantzukizunez jokatuta, baina edukiera oso-osoari eta filmen programazio zabalagoari esker, Astea gogoangarria izan zen berriro.

Estatuko estreinaldiak, multinazionalen filmak, sektoreko gonbidatuen kopuru handia (zinemaldietakoak, ekoizleak, zuzendariak...), argitalpen eta erakusketak: horietan eta beste askok osatu zuten zazpi egunez menua.

Film luzeen sail ofizialean, nabarmendu beharra dago **Ana Lily Armipour** edo **Prano Bailey-Bond** zuzendariak etorri izana, bai eta aurrez gure zinemaldira film laburrak ekarriak zituzten zenbait sortzailearen opera primak ere. Ezin ahaztu, bestetik, dagoeneko ospetsu diren izenak: **Bustillo-Maury**, **Mamoru Hosoda** edo **Ben Wheatley**. **Alex de la Iglesia** zuzendari bilbotarraren azken filmak inauguratu zuen Astea.

Klasikoen arloan, **Merceroren** *La cabinari* egindako omenaldiaz gainera, **Stanislaw Lem** idazlearen mendeurrena ospatu genuen Poloniako Kultura Institutuarekin batera.



Inaugurazioa



Mozorro lehiaketa



Damian Mc Carthy - Caveat

32



Manuel San Julián - Erakusketa



Victoria Eugenia Antzokiaren aurrealdea



Carlos Areces kabinan

Euskal talentuak distira egin zuen erakusketa batzuetan: **Simonides** Kutxa Kultur Plazan, eta **Asisko Urmeneta Sugarren menderekin**. **San Julián** ilustratzaileari eskainitako antologiak gure mugak gaingitu zituen, eta gertaera handia izan zen laurogeigarren urtebetetzearen ospakizuna.

Azaro Mamua online kanala hazi egin zen 2021ean: diseinu berria izan zuen, eta laugarren zinemaldi espainiarra bereganatu du (Isla Calavera, Kanarietan). Generoaren inguruko eduki hautatuen proposamen bat, urte osoan gozagarri, doan.

Esandako neurriak eta mugak ezarri arren, aretoko ikus-entzuleen kopurua 2019. urtekora hurbildu zen edizio honetan. Hala ere, etorkizunari begira, ezin ahaztu gure ikus-entzuleak lotu beharra dugula, bai eta interes berria sortu beharra ere.



2

0

DK

Jaialdia
GIZA
ESKUBIDEEN
ZINEMALDIA

2

1

18

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS HUMAN RIGHTS FILM FESTIVAL

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2021

23 - 30 apirila / abril / April

Human
Rights
Film
Network

Connecting
human rights
film festivals
around the world



www.zinemaetagizaeskubideak.eus



www.zinemaetagizaeskubideak.eus
www.cineyderechoshumanos.eus

Jaialdia GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Montxo Armendáriz y Puy Oria - 2021 Saria

2021eko apirilean, **Giza Eskubideen Zinemaldiaren** 18. edizioa egin zen, aurreko urtean pandemia zela-eta bertan behera utzi behar izan zena. Aretoen edukierak eta ordutegiak egokitu egin behar izan ziren, noski, baina argi genuen gisa honetako zinemaldi bat inoiz baino beharrezkoagoa dela oraindik ere.

Udaleko Giza Eskubideen Sailak antolaturiko zinemaldiak enpatiaren, elkartasunaren eta pentsamendu kritikoaren alde egindako apustuak irmo iraun behar du honelako garaiotan, non beldurra, desinformazioa edo mezu sinpleegiak ugari baitabiltza gure artean.

2021ean, ohorezko saria jaso zuten **Puy Oria** eta **Montxo Armendariz** zinegileek, irmotasun horren adibide egoki-egokiak biak ere. Euskal produkzioen estreinaldiek leku nabarmena izan

zuten: **Aita Mari** lana, **Apaiz kartzela** eta memoria historikoa, eta **Vidas menoresen** begirada ausarta. Oso hurbilak genituen, halaber, **Traidoresen** historiak. Film laburren lehiaketa eta gazteen parte-hartzea ere bere onera etorri ziren urte horretan.



Javi Julio - Aita Mari



Hitzaldia

Eztabaidarako lekua hartu zuten gaiak, bestalde, Balkanetako gerra, bizi-kalitate zahartzea edota sareko sexu-gehiegikeriak izan ziren. Lehen aldiz, Victoria Eugenia Antzokiko solasaldi guztiak oso-osorik jarri dira ikusgai zinemaldiaren youtube kanalean.

Ikastetxeen interesari erantzuteko, baina segurtasunari eutsiz betiere, hezkuntzarako filmen eskaintza online formatuan bideratu zen. Aurkezpenak eta gida didaktikoak ere izan ziren tartean, eta oso erantzun ona jaso zuten denek, noski.



Jarduera paraleloen artean, nabarmentzekoa **Giza Eskubideen Baliabide Pedagogikoen 3. Eskura Feria**, bai eta **Emakumeak Borrokan** erakusketa eta **Jane Goodalli** eskainitakoa.



Gervasio Sánchez - Álbum de posguerra

2

0

DK

Jaialdia
DFERIA

2

1

ETORKIZUNA FUTURO

MARTXOA 15-18 MARZO
DONOSTIA / SAN SEBASTIAN

2021

dFERIA

XXVII. ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS



BERNABE ELIZEN

Arantza / Organatza



donostia
kultura

Ikusleak / Patrocinatzaileak



Laguntzaileak / Colaboradores



Jaialdia dFERIA

4.300 lagun baino gehiagok eszenatokietan programatutako emanaldiez gozatu ahal izan dute, batez besteko okupazio maila %93koa izan da. Orokorrean, aurtengo datuak agintariek ezarritako neurriei egokitzen dira, hau da, %50eko aforoa zinema eta antzokietan, alarma egoerako arriskuak saihesteko.

Kopuruei dagokienez, ikuskizunen kopuru handi bat (**%64 estreinaldiak**) izan dira modu batean edo bestean. Diziplinen eremuan, **%50a dantza** izan da, beste **%39a antzerkia** eta gainontzeko **%11 diziplina anitzak**.

Akreditatuen esparruan, **362 profesional** baino gehiago etorri dira guztira. Hala, iazko kopurua proportzionalki jaitsi da, aforoen mugak behartuta: 134 programatzaile, 55 banatzaile, 110 ekoizle eta konpainien ordezkari, 30 erakundeetako ordezkari, 21 kazetari eta kritikari eta bestelako 12.

dFERIAra etorri diren konpainia gehienak estatukoak izan dira. Gutxi batzuk nazioarteko kideak zituzten euren lan-taldetan: **Argentina, Errusia, Japonia, Frantzia, Portugal** eta **Erresuma Batua**.

Jarduera profesionaletan **3500 lagun** izan dira, honako hauek partehartzeak.



Victoria Eugenia fatxada © Gorka Bravo



Akreditatuentzako topagunea © Gorka Bravo

Berritasunak

Hiru dira edizio honetan nabarmendu beharreko berritasunak:

Alde batetik, egitura eta guneak egokitu egin dira osasun neurri guztiak bete ahal izateko, hartara, azpiegitura berriak instalatu dira, adibidez, karpa bat akreditatuek sarbide errazagoa izan zezaten bilgunera.

Lugaritzeko Imanol Larzabal Aretoa dFERIAko eszenatoki gisara berreskuratu eta lau funtzio eskaini dira bertan.

Azkenik, aurreko edizioetako jarduera profesional ia guztiak mantendu dira; pozik egoteko modukoa da hori, egungo egoera ikusita.



Programazioa

28 konpainien, 28 ikuskizun eta 41 emanaldi izan dira Donostiako hainbat antzertokitan. Kopuruei dagokienez, ikuskizunen kopuru handi bat (**%64**) **estreinaldiak** izango dira modu batean edo bestean: bost mundu mailan (horietatik bi gaztelaniazko bertsioak baitira) eta hamahiru Euskal Herrian. Diziplinei dagokienez, **%50a dantza** izango da, beste **%39a antzerkia** eta gainontzeko **%11 diziplina anitzak**.



Seda, GNP Producciones, Clásicos Contemporáneos, Hika Teatroa © Gorka Bravo

Estreinaldi orokorrak: *Seda*, GNP Producciones, Clásicos Contemporáneos eta Hika Teatroa; *Viento para un jardinero en el jardín de las fieras*, Morfeo Teatro; *Solos extremos*, Cía Artistas Inflamables; *Jo-Aho!!!*, Amaiur Luluaga; *Dreaming Juliet*, Elefante Elegante.

Estreinaldiak Euskal Herrian: *En la cuerda floja*, Ana Morales; *Elektra.25*, Atalaya; *No pleasure*, Iker Karrera; *La cresta de la ola*, La Estampida; *Golfa*, Crémilo-Primera Toma, *Burgos-New York Dantz*; *Al desnudo*, Metamorphosis Dance.



Ama Kuraia, Teatro Arriaga Antzokia © Gorka Bravo

Eszenatokiak zortzi izan dira: Victoria Eugenia Antzokia, Victoria Eugenia Club, Antzoki Zaharra, Gazteszena (Egia K.E.), Intxaurreondo K.E., Imanol Larzabal (Lugaritz K.E.), Kutxa Kultur Plaza (Tabakalera) eta San Telmoko Eliza.

Aurtengo **euskarazko emanaldi** hauek izan da:

- **Ama Kuraia**, Arriaga Antzokia
- **Hnyu Illa Kukai** Dantza eta Tanttaka teatroa




Jo-Aho!!!, Amaiur Luluaga © Gorka Bravo



Dreaming Juliet, Elefante Elegante © Gorka Bravo



La cresta de la ola, La Estampida © Gorka Bravo



ETORKIZUNA FUTURO

Ondorioak

Aski ezaguna da artea, orokorrean, eta arte eszenikoak, zehazki, gizartearen isla direla; gizartearen ispilu-eginkizuna betetzen dute.

Honela, dFERIA 2020 programatzaile, konpainia eta banatzaile nagusienekin beren herrietan etxeratuta eta beren antzokiekin itxita amaitu zen. Eta 2021eko dFERIA honek oso agerian utzi du bizi dugun errealitatea:

Feriaren aurretik ondokoak ziren gure kezak: lehenik, dFERIA egin ahal izatea eta, bigarrenik, eginez gero segurtasun-berme osoarekin egitea artista eta bertaratuentzat (horretarako bereziki garatu den segurtasun-plana). Eta behin FERIA amaituta esan daiteke bi baldintza horiek bete ditugula, bai eta horiek bezain garrantzitsua den beste bat ere: eskaini diren lanen kalitate onarena, alegia. Lanak aukeratzekoan ikusi ahal izan

genuen aurtengo uzta bereziki ona zela eta horrela berretsi dute bertaratuek - sektoreko profesionalak (programatzaile, banatzaile, kritikari) zein bertako ikusleak-, gogobetetasun-maila handia agertu baitute.

Beste behin, egungo gai guztiak jorratu dira: gizarte-, politika- eta genero-arazoak, eguneratutako literaturaren lan klasikoak, etab. Eta aurtengo leloari jarraiki, etorkizunaren inguruko hausnarketa bat gehitu zaie ere.

Eta, etorkizunari begira, edizio honetan parte hartu duten profesionalak arreta eta interes berezia jarri dizkiete topaketa profesionalei. Negozio Foroak inoiz baino interes handiagoa piztu du, profesionalak berek adierazi duten bezalaxe, "gure espazioak eduki onenekin bete nahi ditugu gertuko etorkizun bati begira non, espero dezagun, kulturak bere espazio guztia berreskuratua izango baituen". Ondorioz, feriak bere helburu nagusietako bat bete duelakoan gaude: egungo arte eszenikoen uztaren erakustoki izatea, arreta berezia eskainiz euskal ekoizpenei.



Dead, Lasala © Gorka Bravo

Esker ona

Tokiko ikus-entzuleei modu bikainan erantzun baitute. Profesionaleei osasun neurrien aurrean erakutsitako ulermenagatik, eta bukatzeko, azken urteotan dFERIA babestu duten -eta babesten duten- erakundeen laguntza eskertu nahi genuke. Beren babesik gabe dFERIA ez litzateke egun dena izango.



Ondokoak dira: INAEM, Eusko Jaurlaritz, Gipuzkoako Foru Aldundia, bai eta ondokoen laguntza berezia ere: KUTXA Fundazioa, SGAE Fundazioa, Etxepare Institutua, Nafarroako Gobernua, COFAE (Coordinadora de Ferias de Artes Escénicas del Estado), REDELAE (Red Eurolatinoamericana de Artes Escénicas) eta IBERESCENA.

Baina, gehienbat, euskal antzerki eta dantza konpainien inplikazioa azpimarratu beharra dago orokorrean eta, zehatzago, Eskena (Euskadiko Ekoizle Eszenikoen Elkarte), ADDE (Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte), EAB (Euskal Aktoreen Batasuna) eta Artez aldizkariaren babesa.

Guztiek ere, eta beste behin, beren ideiak proposatu dituzte aurtengo edizioa zehazteko, beren esku dagoen guztia egin dute azokari laguntzeko eta beren ekarpen ekonomikoa egin diote ere.

2

0

DK

Jaialdia
POLTSIKO
ANTZERKIA

2

1



Jaialdia POLTSIKO ANTZERKIA



Fabiolo © Iñaki Rubio



Real Book © Iñaki Rubio

Kultur etxeek **Poltsiko Antzerkia Jaialdiaren 30. edizioaz** egin zuten balantzea oso ona izan zen antolakuntzari eta herritarren erantzunari dagokienez. **Covid-19ak markaturiko 2021. urtean, 4.000** ikus-entzule inguru hurbildu ziren antzerkiaz, umoreaz, txotxongiloez, musikaz eta kabaretaz gozatzeri, **irailaren 24a eta urriaren 10a artean.**

Jaialdia udazkenean itzuli zen, otsailean atzeratu eta gero, eta berritasun aipagarriena izan zen **ia osorik karpapean egin zela**, unean-unean indarrean zeuden segurtasun- eta osasun-neurriak bermatzeko. Murrizpenek galarazi egin zuten programazioa ohi bezala eskaintzea, tabernetan eta beste gune ezagun batzuetan, eta, ondorioz, **antolatzaileak ikus-entzuleentzako egokiak ziren agertokiak sortzea erabaki zuen, hiru plazatan eta asteburuetan.**

Guztira, **17 konpainiak** hartu zuten parte, eta **32 funtzio eskaini zituzten, 8 agertokitan.** Beste urte batzuetan bezala, arreta berezia eskaini zitzaion

euskal sorkuntzari, eta **16 funtzio euskaraz izan ziren.** Konpainiek esker ona erakutsi zieten bai Donostia Kulturari, sektorearen eta jaialdiaren alde egiteagatik halako egoeran, bai ikus-entzuleei, beldurra alde batera utzita eta ilusioz etortzeagatik beren ikuskizunetara. **Ikus-entzuleen erantzuna ezin hobea izan zen**, ez bakarrik ugari etorri zirelako karpapa eta ikuskizunetara; baita segurtasun-neurriak bete zituztelako ere.

Poltsiko Antzerkia Jaialdiak bazituen bere ikus-entzuleak, eta ez zioten huts egin. Gainera, ikus-entzule berriak inguratu zituen Donostiako kultur programazioan dagoeneko klasiko bihurtua den hitzordu honek.

Proposamen honek, inguruabarretara egokiturik, agerian jarri zuen kultur etheen eguneroko lana: herritarrengandik hurbil dauden ekipamenduak izanik, beste begirada bat eskaintzen diete hiriko kultur programazioei.



2021
POLTSIKO
ANTZERKIA
TEATRO

Fabiolo © Iñaki Rubio

2

0

DK

Jaialdia
LITERAKTUM

2

1



Jaialdia LITERAKTUM

2020ko edizioa azken orduan bertan behera geratu eta gero, **Literaktum** indartuta itzuli zen Donostiako kultur agendara. Berritasun aipagarriena **Literaktum Topaketak** izan ziren. Ekinbide horri esker, literatur panoramako autore nabarmenenek Donostia bisitatu ahal izango dute urtean zehar, jendearekin partekatze beren ibilbideak eta proiektuak.

Bi hitzordu desberdinek, bat **Leonardo Padurarekin**, 2015eko Letren Asturiasko Printzesa sariduna bera, eta bestea **Najat El Hachmirekin**, zeinak Nadal saria irabazi baitzuen 2021ean, hasiera eman zioten maiatzean jaialdiaren **apustu** berriari.

Literaktum, Donostiako literatur jaialdia, **azaroaren 8tik 21era egin zen**, hiriko zenbait lekutan, eta berriz ere jende ugari etorri zen antolatutako ekitaldietara. Guztira **3.500 herritarrek hartu zuten parte, era batera edo bestera, programazioan**.

“Literatura eta oroimena” izan zen ardatz nagusia. Gai horri buruz jardun zuten etorritako idazle gehienek, zera azpimarratu baitzuten, zeinen garrantzitsua den oroimena beren literatur sorkuntzaren prozesuan. Literaktumen izan ziren,

besteak beste, **Luis Landero, Leila Slimani, Borja Ortíz de Gondra, David Grossman, Marta Barone, Isabela Figueiredo, Jordi Amat** edo **Eduarne Portela**, denak ere oroimenaz zeresana franko duten sortzaileak

Topaketak Donostiako kultur etxeetan izan ziren, San Jeronimo kaleko aretoan, Koldo Mitxelena Kulturunean, Tabakalera eta hiriko beste zenbait tokitan. Zenbait ekitalditan, aretoak bete egin ziren; esate baterako, **Leila Slimani, Luis Landero, Javier Cercas** edo **Manuel Jabois-enetan. Nolanahi ere, David Grossman** israeldarrak bildu zuen jende gehien.

Nabarmenezkoa, halaber, **Anjel Lertxundi** idazlearen parte hartzea, jaialdiaren lehen egunean, zeinean Martin Ugalde gogoratu baitzuen, euskal kulturako idazle garrantzitsua, haren jaiotzaren mendeurrenean. Aipagarriak, baita ere, **Kirmen Uribe**k New Yorketik bidalitako hitzak, bere azken lanari buruz, edo **Eider Rodriguezek Harkaitz Canorekin** izandako solasaldia, bere lehen eleberria zela eta.

LITERAKTUM



Literaktum_Aiete Piraten istorio bat © Iñaki Rubio

Ekitaldi horietako asko grabatu egin ziren, eta nahi zuenak berriro ikusi eta entzun ahal izan zituen ikusgai jarri ziren topaketen podcastak, hala Donostia Kultura Irratiaren webgunean (<https://irratia.donostiakultura.eus/es/>) nola podcasten plataforma nagusietan.

Idazleekin izandako elkarrizketez gainera, beste jarduera batzuk ere izan ziren **Literaktumen**, literatura beste hizkuntza batzuekin solasean jarri zutenak: eztabaidak, ikastaroak, musika-irakurketak, irrati-tailerra, antzezlan bat, instalazio bat eta baita bost erakusketa ere.

Literaktum Txikia programa ere, literaturzale gazteenei zuzendua, arrakastatsu gertatu zen. Kontu-kontariak, antzerkia, Haurren Egun Unibertsalaren jaia, lantegiak eta "**Marrastu zure animalia fantastikoa**" ilustrazio-lehiaketa: horiek guztiek eta beste batzuek eratu zuten programa. Aipagarria, halaber, lehiaketa horretan parte hartu zutenen kopurua, 200 ilustraziotik ora bildu baitziren.



Literaktum Txikia_Aiete Kultur Etxea © Iñaki Rubio



2


0

DK

Ekoizpen
unitatea

2

1



Repsol eguzkiak

Ekoizpen unitatea

2021ean, Donostia Kulturako Produkzio Unitateak **602 ekoizpen** egin zituen, Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean, San Telmo Museoan, Kursaal zentroan eta beste gune batzuetan egindakoak batuta.

Horrek esan nahi du 2020ko produkzioak baino % 49 gehiago izan zirela, urte hura gogor zigortu baitzuen Covid-19ak, guneak ixtearen eta jarduerak gutxitzearen ondorioz. Nolanahi ere, 602 ekoizpen horiek urrun daude oraindik (% 68) 2019ko 887 ekoizpenetatik, hots, egoera normala izan zen urte batean egindakoetatik.

Ekoizpenotan sartzen dira **Antzerki Feria, Giza Eskubideen Zinemaldia, Jazzaldia** eta **Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea** ere.

Donostia Kulturaren produkzio horiez gainera, 2021ean beste entitate eta erakunde batzuei ere eskaini genizkien gure ekoizpen-zerbitzuak.

227

Kursaal Eszenaren kontzertuak (musika klasikoa eta herri-musikak).

Musika Hamabostaldia / Quincena Musical Kursaal Zentroan, San Telmo Museoan eta Tabakaleran.

Produkzio Koordinazioa, SSIFF Donostia Zinemaldiarekin batera, Victoria Eugenia Antzokian.

Cristina Iglesiasen artelanaren inaugurazioa Santa Klara uhartean.

Donostiako Plan Estrategikoaren aurkezpena Tabakaleran.

El Diario Vascoren Eguberrietako kontzertua Kursaal Auditorioan.



Hondalea



Realeko Batzarra



NATURALDIA GNAT ZINEMA Estreinaldia

2

0

DK



2

1